


1. GAIA: LIBERAL-BURGES IRAULTZA ETA LEHEN INDUSTRIA IRAULTZA (XIX.MENDEA) I

Sarrera: Antzinako erregimenaren ekonomia egitura (XVI-XVIII. mendeak)

Lurraren jabegoaren egitura



Artisautza

- XVI. mendea. Manufakturen hedapen garaia:
- Luxuzko oihalgintzaren garapena (hiriak).
- Nekazaritza-munduak eskatutako eta ekoiztutako kalitate gutxiagoko oihalgintza.
- Nekazaritza-eskariak bultzatutako euskal burdinolen garapena.
- XVII. mendeko krisialdia sektore guztietan.
- Hiritar zirkuituen erorketa.
- Eskariaren beherakada.
- Landatar-inguruekiko lotura handiagoa.

Merkataritza

- XVI eta XVII. mendeetako merkataritzaren egitura
- Merkatuan saltzen da baina ez da merkatuarentzat ekoizten.

- Lurraren errentaren eta hamarrenaren bitartez bildutako zerealen eta bestelako produktuen merkataritza.
- Klase pribilegiatuen luxuzko produktuen eskaria.
- Gaztelako hirietako merkataria nagusi
- Beharrezko ondasunen esportazioa eta metal preziatuen inportazioa.
- Koloniar merkataritzaren monopolio teorikoa (praktikan nazioarteko bankaren kontrolpean, zorrak, maileguak...).

Espainia XIX. mendean Testuinguru labur bat

- XIX. mendean, Espainia gainbeheran zegoen inperio zahar bat zen, eta hainbat motatako arazo eta erronkei aurre egin behar zien.
- Merkataritza balantzak defizit kroniko bat zuen (nazioarteko espezializazio ekonomikoren ondorio).
- Desoreka hau Ameriketako zilarrarekin eta kolonietatik zetozen beste diru iturri batzuekin estaltzen zen.
- XIX. mendean zehar bizi izandako barne zein kanpo gerra, estatu kolpe eta bestelako liskar politiko-militarrek ogasuna eta Estatu bera finantza kolapsoaren ertzean utzi zuten.
- Per capita errentari dagokionez, bere per capita BPG Italia, Frantzia eta Alemaniakotik oso gertu zegoen
- Bere manufaktura-sektorea, neurri handi batean, merkatu kolonialaren (berarentzat erreserbatu zegoena) menpe zegoen.
- Merkatu gatibu hori galdu ondoren, manufakturatutako produktuen esportazioak behera egin zuen.
- Gainera, Espainiak gero eta erronka handiagoari egin behar izan zion aurre, erregimen feudal-absolutista batetik estatu liberal eta ekonomia kapitalista baterako trantsizioari.

1.1 Antzinako Erregimenaren krisia eta Estatu liberalaren sorrera: Nekazaritza erreforma eta beste aldaketa instituzional batzuk

Sarrera:

Espainia erregimen atzeratua → koloniar galdu

Europa → erreforma handiak → koloniar eskratu

Espainian buru izan ez ziren erreformak eragin handiak etorkizunean

Etapak hau independentzia gerratik → lehenengo karlistadara

Gudak → onuragarriak armagintzaren, txarrak hainbat sektoreentzat →

- jendearen emigrazioa ekoizpena moteldu
- atzerritar inbertsioak behera
- barne-merkatua puskatu

- baliabideak eta kapitalista (giza eta fisikoa) txahutu gerran
- baliabide eta kapital hori ordaintzeko → deuda
- financiación kanpoan bilatu
 - barne zorra puntu batean bpg handiagoa bilakatu → arazo larria
 - azkenean españa ezin du zorrak ordaindu eta estatuak ez diote dirurik lagatzen
 - banku mundialak zorra erosi bere balio monetarioaren truke
 - Peztak ekoiztu → inflazioak gora → honek espainaren garapena mugatu

Kolonien galera espainiar merkatuan eragin handia → bere babesaren beste europako herrialdeen lehiakortasunaren aurka

kanpo-merkataritze kolapsatu espainarentzat → gainera zegoen aurrezki txikiak gaizki erabili den Beste herrialdeak industrializazioarekin hasi → españa ez


Antzinako Erregimenaren krisiak Espainian luze iraun zuen (1789-1839). Faktoreak:

- Gerrak eta ezegonkortasun politikoa (desantolaketa ekonomikoa).
- Krisi fiskala: aurrekontu-defizit handia, diru-sarrera fiskalen murrizketa handiarekin batera, gerren eraginez eta Amerikatako zilarren galeraren ondorioz (batez besteko diru-sarrera fiskala 1820an 1790eko hamarkadako baino % 23 baxuagoa izan zen, Britainia Handian % 187 igo zen bitartean; Espainian zorraren kanpo ez ordaintzeak: 1809, 1820, 1831, 1834 eman ziren).
- Kanpo-defizita, merkataritze kolonialaren kolapsoaren ondorioz (1784 eta 1820 artean esportazioak % 40 murriztu ziren eta kanpo-merkataritze % 11). Espainia, inperio zahar bat izatetik, estatu atzeratu bat izatera igaro zen.
- Kolonia amerikarren galerak Espainiako per capita BPGa % 7-8 murriztu zuen, eta kapitalaren inbertsioa % 16-18 inguru murriztea eragin zuen.
- Gainera liskar sozial eta politikoko ugari (estatu-kolpeak, gerrak...).

Gerrek, ezegonkortasun politikoa eta Espainiako inperioaren galerak eragin oso kaltegarriak izan zituzten hazkunde ekonomikoan.

Espainia Europako potentzia handietatik urrundu zen urte horietan (1814tik aurrera, Europak bake, hazkunde eta oparotasun garaia bat bizi izan zuen).

Espainiar ogasun publikoaren saldoa, 1782-1807 (beiloizko errealak)



Estatuaren aurrekontu saldoa (1801-1849), urteroko batezbestekoak milioi errealetan



Espainiar pagamendu balantza (milioi erreal)

	1784-92	1814-20
AMERIKA	111	4
ATZERRIA	-118	-241
GUZTIRA	-7	-236

España koloniak galtzean defizit handia. Oso argi ikusten da guztizko erantzunean (-236) gainera gerra kolonialak ordaintzeko baliabideak eskatu atzerrira zorrak areagotuz .

Erakundeak eta hazkundera

- Hazkunde ekonomiko modernorako, erakundeak eraldatu beharra zegoen.
 - **Jabetza eskubide seguruak:** ("jabetzaren magiak harea bihurtzen du urre", Arthur Young 1787) Jabetza pribatua ondasun kapitalistatzen ulertu behar zen (Saldu, alokatu) hala ere estatuak bere esku hartzea zuen (trenak eraiki)
 - **Norbanakoen "babesa":** Jabetza babesteko instituzioak → guardia zibila
 - **Segurtasun juridikoa** (arbitraje administratiborik ez, ustelkeriarik ez, eroskeriarik ez...): Legearen inperioa. Legeak zeuden baño interpretagarriak ziren. erreforma honek legeak berdinak egiten zituen jende guztiarentzat eta ustelkeria eta kazikismoa saihesteko zegoen hala ere kazikismoa urte askotan zehar iraun zuen
 - **Oinarrizko ondasun eta zerbitzu publikoak** (azpiegiturak, hezkuntza, defentsa)

Hainbat arazo:

- egitura nulua produktuak garraiatzeko
- analfabetismo handia → jendea ezagutza txikia
- horiek bultzatzeko hezkuntzaren garapena → ondorio zuzena industrializazioa bultzatzeko
- hezkuntza legeak berantiarra eta mugatua

- • **Zerga baxuak** (eta batez ere, lege-arauarekiko errespetuz) zerga baxuak proportzionalak egin nahi ziren eta lege arauak jarraituz

Españian jabetzari buruzko liskar handiak ikuspuntu desberdinengatik → karlistak/liberalak Atzerritar inbertsioak ihes egiten du nagusiki bi eremuetan izan ezik → trenbide sarean eta meategietan → espainiaren garapenaren aintzindari eta oinarri

Erakunde hauek inbertsioa bultzatu zuten, merkatuen eta enpresen funtzionamendua erraztu zuten (hazkundearen motorrak) eta herritarren parte-hartze zabala ahalbidetu zuten (hezkuntza...).

Hemezortzigarren mende bukaerako Europa Mendebaldearen hazkunde ekonomiko modernoak bultzatu zuten. Espainian prozesua motelagoa izan zen.

“Negozio eta enpresen baldintza nagusia pertsona eta ondasunen segurtasuna da” (William Cunningham, 1896).

19812an erregea itzultzean, garatu egin ziren ideia hauek, atzera bukatu ziren absolutismoa ezarri

Estatu liberalaren sorrera: askatasuna, berdintasuna eta jabetza giza eskubide natural gisa.

- 1º La libertad, o sea la facultad de hacer con seguridad cuanto le pareciere más acomodado a sus deseos, siempre que con ello no dañe a los demás hombres; ASKATASUNA
- 2.º la igualdad, o sea el derecho para ser protegido en sus medios y en sus facultades, sin diferencia de unos hombres a otros, gozando de una misma consideración sin distinción alguna; BERDINTASUNA
- y 3.º la propiedad, o la facultad exclusiva de disponer y gozar a nuestro arbitrio del producto de nuestro trabajo. (balibide hidrikoak eta mineralak ezik, horiek gobernuaren menpe) JABETZA
 - liberalen 3 oinarriak argi ikusten dira

Nekazal Erreforma: Testuingurua

Nekazal erreforma gehiegizko zorraren ondorio

- salmentara atera ziren lurak garestiegiak ziren jirnalari xumeentzat eta nobleak berriz erosi lurak

Espainian nekazritza nagusi → BPGaren %60

Elizak desamortizazioaren ondorioz lurren %60 galdu

- XIX. mendearen hasieran, Espainiak nekazaritza nagusi zen ekonomia zuen (biztanleria aktiboaren 2/3 baino gehiago, gutxienez herrialdeko BPGren % 50).
- Europako beste herrialde batzuetan gertatu zen bezala, nekazaritza erreformak behar izan ziren lur eta lan merkatuak mugatzen zituzten erakunde feudalak indargabetzeko.

- Aldi berean, nekazaritzako erreformak 1830eko hamarkadaren erdialdeko egoera politikoaren testuinguruan ulertu behar dira: Estatu zorpetu bat, indar karlisten aurkako gerra irabazteko (elizaren laguntza izan zutenak) etsi-etsian dirua behar zuena.
- Nobleak eta eliza lur-jabe garrantzitsuenak izan ziren domeinu feudala garaian, herrialdeko nekazaritza-lurren % 60 inguru beren esku zegoen (merkatutik kanpo), gero nekazari txikien taldea zegoen; nekazari gehienak maizterrak ziren, eta elizari edo noblei alokairu bat ordaindu behar zieten.
- Gobernu liberalak nobleen laguntza bilatu zuen gerran.

Lurraren jabetzaren egitura:

Lur askoren jabetza antzinako hitzarmenengatik zehaztuta.

Anarkismoaren sorrera → andaluzia → jabetzaren aurkako mugimendua

Guardia zibila mugimendu horiek zapaltzeko sortua



Nekazaritza Erreformaren oinarritzko neurriak

Liberaleskin bat egin zutenan lurrak ezin ziren desamortizatu eta jabetza pribatua izatera aldatu

Elizaren lurrak lehenak desamortizatzen

- Lurrak galtzean elizagintzan aritzen ziren askok hezkuntzara aldatu
- Eragin handia Espainiako hezkuntzan. Huraren garapen erlijioso bultzatu

Herriaren lur komunalk saltzeak arazo larriak biztanleentzat. Nekazarien gabezia aregotu

- Jabetza feudala eta nobleek lurraren gainean zituzten pribilegioen abolizioa (Jaurerriak) 1820an, Hirurteko Liberalean. Prozesua azkartu egin zen liberalak 1833an boterera itzuli zirenean.

- Jabetza feudala kapitalista bihurtzea, 1841ean Maiorazkoa ezabatzea, jabetza lehen oinordeko gizonaren eskuetan mantendu ohi zuen erakunde feudala deuseztatu zen, baina nobleek beren jabetzak mantendu zituzten.

- Elizarenak ziren lurrak desjabetzea (Desamortizazioa Eklesiastikoa), orain partikularrei salduak (Mendizabalen desamortizazioa 1837). Elizak higiezin (lurrak nagusiki) % 60 inguru galdu zuen.

- Herri lurren desjabetzea (Desamortizazioa Zibila), Herri eta herrixken jabetza komunalk, partikularrei saldu zitzaizkien (Madozen desamortizazioa 1855).

- Mendizabalen eta Madozen desamortizazioek Estatuari kapital kopuru handia eman zioten, defizit publiko izugarria hein batean estaltzeko balio izan zuen.

Nekazal Erreformaren ondorioak

1. Landatutako lurra 10,5 milioi hektareatik 18,8 milioi hektareara igo zen 1800 eta 1888 artean. Landatutako lur kopurua handitzean → ekoizpena gora
2. Lurraren jabetzaren egitura berria, modu desorekatuagoan banatua: lur-jabe handi batzuk (merkatariak eta noble ohiak), lur-jabe txikiak, errentariak (jabeei errenta altuagoak ordaintzen zizkietenak) eta soldata oso baxuko nekazaritzako jornaleroak. Liskar sozialak eta landa matxinadak (gerra karlistak, mugimendu anarkistak...). 1844an Guardia Zibila sortu zen, landa-eremuan gizarte-ordena mantentzeko eta matxinadak erreprimitzeko. Goi burgesiak eta nobleak lur handiagoak lortu zituzten eta beraz jornalri txikiak lur are txikiagoekin soldataren murrizketa pairatu
3. Pribatizazioa eta merkaturako joera gero eta handiagoa = lurraren erabilera eraginkorragoa (baina nekazaritza intentsiboak, eskulan oso merkearen erabilera estentsiboa egin zuena XIX. mendean zehar). Giza kapitala hain merkea zen inbertsioak ez zirela egiten teknologia produktiboagoa bultzatzeko

Alejandro Mon-en Erreforma Fiskala

- 1837ko abuztuan Mendizabalen irteeraren eta 1844ko maiatzean Mon-en izendapenaren artean 30 ministro egon ziren Espainian!

Erreforma fiskala: zerga-sistema berria

- Estatu liberala 1836-1840 bitartean gauzatu zen, I. Karlistaldian zehar. Gobernu liberalaren lehen neurriak: diru-sarrera iturri berriak aurkitzea eta zor publikoaren finkapena izan ziren.
- Erreforma fiskala 1845ean: printzipio liberalak barneratzea eta Estatuaren zorpetzea murrizten saiatzea. Printzipio liberalak: Gobernua/Estatua zerga-biltzaile bakarra, orokortasuna eta berdintasuna (gizabanakoak eta lurraldeak) eta aberastasun-zenbatespenen (estimazio) lehen saiakerak.
- Hamarrenak kentzea: elizari mesede egiten zion nekazaritza-ekoizpenaren gaineko zerga.
- Zuzeneko zerga berriak, hala nola lurraren eta jabetzaren gaineko zerga (higiezinak, laborantza eta abeltzaintzaren gaineko ekarpena) eta industria eta merkataritza ekarpena (industria eta merkataritza jardueren gaineko zerga).
- Baina zeharkako zergak garrantzia handia zuten (aduanak-eskubideak, kontsumo-zergak...), baita estatuko monopolioek (tabakoa, gatza...).

Estatuko diru-sarreraren eta gastuen banaketa, 1850-1909

	Zerga Zuzenak	Zeharkako Zergak	Estatuaren jabetzak eta tarifak	Monopolioak	Jabetza eta eskubideen salmenta	Besteak
1850-1859	27.3	25.1	26.8	3.8	2.8	14.2
1900-1909	42.6	36.2	16.8	2.0	0.3	2.2
	Diru-sarrerak (goian)			Gastuak (behean)		
	Orokorrak	Defentsa	Hezkuntza, Osasuna, etxebizitza	Pentsioak eta gizarte-segurantzia	Bestelako zerbitzuak	Zerbitzu ekonomikoak eta beste gastu batzuk
1850-1859	27.9	23.6	1.6	9.0	9.0	29.0
1900-1909	12.1	19.2	4.0	8.2	4.4	52.0

Defizit kronikoa Estatuaren finantzetan

	Aurrekontu-saldoa/Gastu publikoa (%)	Zorra/Gastu publikoa (%)	Zorren ordainketa/Gastu publikoa (%)	Zorra/BPG (%)
1850-54	-4.0	10.7	12.2	67.1
1860-64	-19.1	5.7	21.1	46.0
1870-74	-27.4	11.8	37.8	94.6
1881-92	-5.0	9.3	33.2	106.7
1893-98	1.2	9.7	41.0	68.0

Erreforma fiskalen ondorioak

- Printzipio liberalak (pertsonek eta lurraldeen arteko berdintasuna – Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa izan ezik –, ekitate handiagoa, zuzeneko zergak).
- Estatuaren errenta bikoiztu egin zen XIX. mendearen bigarren erdian (400 milioi pezetatik 800 baino gehiagora), baina ez zen nahikoa izan.
- Arazo nagusia: Estatuak zerga-jabetzaren ezagutza urria zuen; zerga-ihesa orokortua zen, eta zergadunen arteko ekitatea eta progresibitate eza nabaria zen.
- Tributazio baxua, ona lur-jabe, merkatari eta industrialentzat, baina kaltegarria langile klaseentzat, kontsumitzaileentzat eta Estatuarentzat, baliabide urriak baitzituzten, oso gastu publiko txikia (azpiegituretan, hezkuntzan, etab.). 1900ean BPGaren % 7,5koa zen, Frantzia, Italia, Alemanian edo Erresuma Batuan bikoiztu egin zen bitartean.
- Estatu pobrea eta oso zorpetua (zor publikoa BPGren gaineratik zegoen): kanpo ez-ordainketa ugari: 1851, 1867, 1872 eta 1882an.
- Galera handia Espainiako ekonomia eta bere garapenarentzat.

Zor publikoa: zama astuna Espainiako ekonomiarentzat

- Ondorioz, Estatuak dirua atera zuen sektore pribatutik (desplazamendu-efektua). Espainiako interes-tasak Mendebaldeko Europakoak baino altuagoak ziren (horrek inbertsio pribatua garestitzen zuen).
- Zor publikoaren monetarizazioa beharrezkoa izan zen 1870eko hamarkadatik: inork ez zuenez Espainiako zor publikoa erosi nahi (ez ordainketa desberdinen eraginez), Espainiako Bankuak erosi zuen, eta honek moneta gehiago jaulki zituen trukean (horrek handitu egin zituen moneta-eskaintza eta inflazioa).

BESTE ALDAKETA INSTITUZIONAL BATZUK

- Zuzenbide Estatuak, administrazio publiko berria (zentrala, probintziala eta lokala), sistema judizial berria, armada berria.
- Lan eta kapital-merkatuen liberalizatzea; gremio komertzialak eta artisau-gremioak desagitea; enpresa-askatasuna; Mesta abolitzea.
- Baliabide hidrikoen eta meatzarien nazionalizazioa (industriaren garapenerako funtsezkoak). Haien jabetza, lehen nobleziaren eta elizaren esku zegoena, estatura pasatu zen, eta gero baliabide horiek pribatizatu zituen.
- Merkatu nazionalaren integrazioa: eskualdeko mugak eta aduanak ezabatzea (1839), pisu eta neurrien sistema bateratzea 1849an (sistema metriko hamartarra hartzea), moneta bakarra -erreal- 1848an (geroago, pezeta 1868an), sozietate anonimoen legea 1848an.

- Kode legal berriak: kode Zibila (1889), Kode Penala (1850) eta Merkataritza Kodea (1829 eta 1885). Adierazpen, prentsa eta inprenta askatasuna (teorian behintzat).
- Hezkuntza Legea (1857): derrigorrezko lehen hezkuntza 6 eta 9 urte bitarteko haur guztientzat; Espainiako hezkuntza-sistemaren ildo nagusiak martxan jartzea.

Aldaketa instituzionalaren ondorio sozialak

- Irabazleak: merkataria, enpresariak, nobleak eta lur-jabe txikiak (nekazari lur-jabeak).
- Galtzaileak: eliza (jabetzaren % 60 inguru galdu zuen), udalerriak (ia beren lur eta baso guztiak galdu zituzten), nekazari pobreak (errentariak, herri-lurren onuradun izaten jarraitu ezin zutenak) eta nekazaritzako jornalariak.
- Espainian 'nekazaritza-arazo' baten existentzia, XIX. mendeko karlistaden eta XX. mendeko lehen hamarkadetako liskar eta gatazka ugariren oinarria izan zen (1936ko Gerra Zibilaren kausetako bat, lurraren eta diru sarreren banaketa ekitatikoago baten aurka).
- Baina aldaketa hauei esker Espainia estatu liberal bat bihurtu zen XIX mendean, Europako nazio nagusien antzekoa.

1.2. Demografia eta hiritar hazkundera


- XIX. mendean biztanleria nabarmen hazi zen, 1800ean 11 milioi pertsonatik 1900ean 18,6 milioi pertsona izatera igaroz. Biztanleria azkarrago hazi zen mendearen lehen erdian bigarrenean baino: 1821-60, ‰ 0,76; ‰ 0,43, 1860-1900.
- Hala ere, Europako beste herrialde batzuetako demografiarekin alderatuta, Espainiako biztanleria poliki hazi zen XIX. mende honetan: Frantziak eta Irlandak soilik izan zituzten tasa baxuagoak.
- Hazkunde demografiko motela hilkortasun handiaren ondorio izan zen batez ere, denborarekin zertxobait jaitsi bazen ere, mendebaldeko Europako tasen gainetik mantendu zen (% 29).
- Jaiotza-tasak ere nahiko altuak izan ziren (% 34), hilkortasun handia zela eta.
- Urbanizazio-tasek gora egin zuten, baina Europako batez bestekoaren azpitik.
- 1900. urtean, Espainiako biztanleen % 68 10.000 biztanletik beherako herrietan bizi zen; % 9 soilik bizi zen 100.000 biztanletik gorako hirietan.
- Zergatik dira garrantzitsuak hiriak hazkunde ekonomikorako eta industrializatorako?
- Biztanleria aktiboaren sektore-banaketak ere ez zuen aldaketa esanguratsurik izan (XX. mendearen hasieran, biztanleria aktiboaren % 66 lehen sektorean aurkitzen zen, 100 urte lehenagoko kopuru bera). Laburbilduz, trantsizio demografikoa XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan gertatu zen Espainian.

• Paradoxa demografiko bat? 1821-1860: hazkunde azkarra eta heriotza-tasa handia; 1860-1900: hazkunde motela eta heriotza-tasa beherakorrak. Azalpenik?

- 1821-60: nekazaritzaren hedapenak elikagaien hornidura hobetu eta prezioa jaitea ekarri zuen. Baina goseteen, gaixotasun endemikoen (bartzanga, elgorria, tifusa, tuberkulosia) eta epidemia errepikatuen (kolera, sukar horia) ondoriozko hilkortasunak handia izaten jarraitzen zuen.
- 1860-1900: goseteak desagertu ziren (trenbideen eta merkatu nazionalaren integrazioaren ondorioz), osasunaren hobekuntza eta elikagai hobeen kontsumo eman zen. Baina nekazarien egoera ekonomikoak zaila izaten jarraitzen zuen, landa eremuetatik Amerikara milioi 1 pertsona inguruk emigratu zuten 1860 eta 1900 artean.

• Edonola ere, heriotza-tasetan eta bizi-itxaropenean alde nabarmenak daude hiri eta landa eremuaren artean. Non bizi ziren hobeto XIX. mendeko espainiar biztanleak, landan edo hirian?

Bizkaiko hiri eta herri desberdinen biztanleriaren hazkundea, 1860-1920



Bizkaiko udalerrietako Heriotza-tasak eta Jaiotza-unekoko Bizi-itxaropena

	Sestao ‰	Abanto- Zierbena ‰	Larrabetzu ‰		Sestao E ₀	Larrabetzu E ₀
1860	31.7		20.3	1860	32.8	46.1
1877	27.9	45.1	23.5	1877	34.0	42.7
1887	45.0	63.3	23.3	1887	15.9	42.2
1900	28.9	28.8	22.9	1900	35.9	44.5
1910	24.2	19.2		1910		
1920	21.5		20.8	1920	49.6	45.1

• Heriotza-tasa nabarmenki altuagoak hirietan, ingurumen eta osasun baldintza txarragoengatik: hiri gainpopulatuak eta etxebizitza kaxkarrak + ura banatzeko eta ur zikinak eramateko azpiegiturarik eza = gaixotasunen eta epidemien inpaktu handiagoa.

• Baina hiriek hazkunde demografiko tasa handiagoak izan zituzten immigrazioaren ondorioz (landa-eremuak baino aukera gehiago eskaintzen zituzten garapen sozial eta ekonomikorako).

• Generoaren eta adinaren araberako diferentziak hiriko hilkortasunean: tasa altuagoak emakume, haur eta adinekoengan gizon helduengan baino.

• Migrazio-fluxuak. Amerikara: Espainiatik joandako migratzaile kopurua 1,4 milioi ingurukoa izan zen 1830 eta 1900 artean, nahiz eta bere erritmoa nabarmen handitu zen 1860ko hamarkadatik mende amaierara arte (lurrenontzia). Barnekoak, landa eremuetatik industrializatuetara (burdinbidea).


- Espainiako biztanleriaren banaketa eskualdeen arabera: korrelazio handia garapen ekonomikoaren eta biztanleriaren hazkundearen artean. Bartzelona, Bizkaia, Gipuzkoa, Madril eta Valentzia.

Alfabetatze-tasa baxuak: atzerapen ekonomikoaren arrazoia eta ondorioa

Alfabetatze-tasak: korrelazio handia dago alfabetatze-tasen eta epe luzeko diru-sarreraren igoeraren artean; emakumeen alfabetatze-tasek garrantzia nabaria dute (seme-alabak).

1900. urtean, emakumeen alfabetatze-tasa % 33ra baino ez zen iristen Espainian, eta gizonezkoen alfabetatze-tasa, berriz, % 57koa zen. Espainian, analfabetismo-tasa % 56koa zen 1900ean, Italiakoa baino zertxobait handiagoa (

% 48) eta Belgika, Frantzia edo Ingalaterrakoa baino askoz handiagoa (% 19, 17 eta 3).



Alfabetatze tasa baxuak: eskaintzaren eta eskariaren inguruko azalpenak

Eskolara zihoazen haurren tasak, epe luzera igo baziren ere, % 50etik behera mantendu XIX. mendean zehar. Zergatik?

1. Estatu pobrea eta eskolen eskaintza eskasa eta txarra. Ongi prestatu gabeko irakasleak eta oso gaizki ordainduak.
2. Espainiako espezializazio ekonomikoaren ondorioz (nekazaritza eta meatzaritza, alfabetatutako eskulanik behar ez zutenak), pertsona hezien eskari txikia.

1.3. Nekazaritza hedapena, teknologia eta ekoizpen-aldaketak

- Nekazaritzarako ingurune ekologiko gogorra da Espainiarra (nekazaritza-lurra guztizkoaren % 53 da, Mendebaldeko Europan, berriz, % 90 baino gehiago; euri gutxiago; orografia gorabeheratsua...).

- Nekazaritzako erreformak: ondorio sozialak eta ekonomikoak. Lur-jabe handien talde txikia, eskulan handikoa (merkea), kapital gutxiko nekazari txikien talde handia, errentari eta langile talde handiagoa (1 m jornalari 1787an eta 2,35 m 1860an).

- Landatutako eremua eta eskulana handitzeak ekarri zuen nekazaritzako ekoizpenaren hazkundera. Nekazaritza ekoizpena urtean % 0,65 eta % 0,77 artean hazi zen 1800 eta 1900 bitartean, biztanleria % 0,53ko urteko tasan hazi zen bitartean.

- Hazkunde-faktoreak: lurra eta lana, kapital gutxiago (hobekuntza teknologiko esanguratsurik gabe XX. mendeko lehen hamarkadara arte).

- Zergatik? Ekoizpen-faktoreen kostu erlatiboak (eskulan merkea eta kapital garestia) eta muga-zergek (merkataritza-politika), hau bultzatzen zuten.
- 1910ean, langile bakoitzeko batez besteko ekoizpena Britainia Handikoaren % 32, Frantziakoaren % 39 edo Italiakoaren % 71 zen.
- Espainiako biztanleria aktiboaren % 66ak lehen sektorean lan egiten zuen oraindik, Italian (% 58), Frantzian (% 43), Alemanian (% 36) edo Britainia Handian (% 12) baino askoz gehiago.

Nekazaritzaren hedapena: hazkunde-faktoreak

- Merkatu nazionalaren integrazioa:
- Gidariak: trenbideak eta beste garraiobide batzuk.
- Emaitzak: eskualdeko nekazaritza-espezializazioa.

Urteak	Prezioak Bartzelona Ptas/Hektolitro	Prezioak Valladolid Ptas/hl	Prezio-aldea	Bartzelona Index	Valladolid Index
1825-29	23.92	9.62	14.30	100	100
1835-39	25.77	13.77	12.00	108	143
1845-49	23.52	13.39	10.31	98	139
1855-59	26.22	21.08	5.14	110	219
1865-69	24.20	20.22	3.98	101	210

- Nekazaritzako dibertsifikazioaren hasiera (eta eskualdeko espezializazio ekonomikoa: artoa eta patatak iparraldean, zerealak, lekaleak, mahastiak, ardoa eta olibondoak penintsulan; eta ardoa, laranjak, mahatsak eta mahaspasak, fruitu lehorrak eta beste produktu batzuk Mediterraneoan).
- Merkatu nazionalaren integrazioaren emaitza

Azken nekazaritza-produktua Espainian, 1800-1931 (1910eko prezioetan, milioi pezeta)

	1800	1900	1931
Zerealak eta lekaleak	739 (43%)	1.068 (32%)	1.427 (30%)
Mahastiak	201 (12%)	435 (13%)	484 (10%)
Olibondoak	117 (7%)	270 (8%)	409 (9%)
Beste labore batzuk	114 (7%)	644 (19%)	995 (21%)
Ganadua	565 (33%)	891 (27%)	1.426 (30%)
Guztira	1.736	3.308	4.741

Nekazaritza hedapena: eskualdeko espezializazioa

- XIX. mendearen amaieran, Espainian hiruzpalau nekazaritza-eskualde desberdin ikus daitezke, laboreen, ekoizpenaren, produktibitatearen eta merkatuen espezializazioa kontuan izanik (iparraldea, erdialdea, Andaluzia eta mediterranea).

Zenbait nekazaritza-produktuen esportazioak (milioi pezetatan)

Ardo arrunta Xerezko ardoa Oliba olioia Laranjak Almendrak Kortxoa

1827 eta 1885-1889an Espainian gehien esportatutako produktuak (%)

Postua	Produktua	1827	Produktua	1885/89
1	Oliba olio	17,0	Ardoa	38,2
2	Ardoa	16,6	Burdin mea	5,6
3	Artilea	9,6	Beruna	4,9
4	Beruna	7,4	Kuprea, mea	3,4
5	Pattarra	6,0	Kuprea, metala	2,9
6	Mahaspasak	5,5	Oliba olio	2,7
7	Irina	3,0	Mahaspasak	2,6
8	Kortxo	2,9	Ganadua	2,5
9	Zetazko ehunak	2,8	Kortxo	2,4
10	Laranjak	2,7	Laranjak	2,4
11	Zeta	2,6	Artilea	1,7
12	Barrila	2,4	Oinetakoak	1,3
13	Papera	1,6	Espartzua	1,1
14	Almendrak	1,3	Mahatsak	1,0
15	Ganadua	1,1	Merkurioa	0,9
16	Lihozko ehunak	1,1	Irina	0,9
1tik 16ra		82,5		74,3

Iturria: Tafunell, X (2004)

Zenbait nekazaritza-produktuen esportazioak (milioi pezetatan)

	Ardo arrunta	Xeresko ardoa	Oliba olio	Laranjak	Almendrak	Kortxo
1849-1854	12,8	33,9	7,6	0,8	1,0	4,7
1855-1859	32,3	38,4	17,7	2,7	2,5	7,2
1860-1864	37,6	42,4	15,3	4,1	3,2	8,4
1865-1869	42,4	38,7	21,5	4,9	2,4	8,8
1870-1874	47,7	95,5	17,6	7,0	4,1	13,7
1875-1879	72,4	56,5	10,7	9,6	3,8	11,7
1880-1884	217,3	51,1	18,0	19,0	4,3	13,4
1885-1889	261,6	32,5	20,2	16,9	5,6	18,4
1890-1894	173,9	23,4	16,1	16,7	9,2	23,1
1895-1899	128,3	11,9	23,9	42,3	11,9	31,3
1900-1904	60,9	6,3	42,8	51,6	16,0	40,6
1905-1909	41,4	13,8	24,4	57,7	19,7	42,1

Iturria: Kanpo Merkataritzaren Estatistika

1827 eta 1885-1889an Espainian gehien inportatutako produktuak (%)

Postua	Produktua	1827	Produktua	1885/89
1	Kotoizko ehunak	21,3	Kotoi gordina	8,3
2	Lihozko ehunak	12,6	Pattarra eta likoreak	4,9
3	Azukrea	9,5	Garia	4,6
4	Artilezko ehunak	6,2	Egurak	4,5
5	Kotoi gordina	5,6	Azukrea	3,9
6	Zetazko ehunak	5,6	Harrikatza	3,7
7	Lihota eta Kalamu gordinak	3,7	Makailoa	3,5
8	Egurak	3,6	Artilezko ehunak	3,4
9	Bakailoa	3,5	Makineria	2,9
10	Kanela	3,3	Larruak	2,6
11	Kakaoa	3,1	Burdin eta altzairua, manufaktura Ganadua	2,5
12	Larruak	2,8		2,1
13	Tindagaiak	1,4	Produktu kimikoak	1,9
14	Burdin eta altzairua, manufaktura	1,2	Lihota eta kalamua, hariak	1,7
15	Arroza	1	Kakaoa	1,7
1tik 15ra		84,4		52,2

Iturria: Tafunell, X (2004)

Espainiar kanpo merkataritzaren banaketa geografikoa (%)

a) Esportazioak, herrialde nagusiak						
Urteak	Bretainia Handia	Frantzia	Portugal	EE. BB.	Kuba eta Puerto Rico	
1835	28,2	24,1	2,4	7,6	19,8	
1850-54	29,2	24,6	2,7	5,8	20,2	
1870-74	39,4	19,1	5,7	5,1	14,8	
1890-94	23,0	37,9	3,9	2,1	17,5	
1900-04	33,9	22,9	4,7	2,5	7,8	

b) Inportazioak, herrialde nagusiak						
Urteak	Bretainia Handia	Frantzia	Alemania	EE. BB.	Kuba eta Puerto Rico	
1835	17,3	20,6	3,0	2,8	23,7	
1850-54	19,8	26,8	1,1	12,3	16,8	
1870-74	32,3	25,6	0,6	10,4	8,2	
1890-94	21,3	28,8	3,5	10,0	6,9	
1900-04	20,8	15,7	9,1	11,8	1,0	

Iturria: Prados de la Escosura (1982)

Mea eta metalurgia esportazioek espainiar esportazio osoarekiko suposatzen zuten balio absolutu eta erlatiboak, 1849-1913

Epeak	Balioak (mila pezetatan)			Portzentaia		
	Meak	Metalak	Produktu guztiak	Meak	Metalak	Produktu guztiak
1849-1858	10.814	243.602	2.081.631	0,52	11,70	100
1859-1868	68.396	342.251	3.085.766	2,22	11,09	100
1869-1878	395.654	576.348	4.566.627	8,66	12,62	100
1879-1888	760.384	630.098	6.863.731	11,08	9,18	100
1889-1898	952.980	954.532	8.730.963	10,91	10,93	100
1899-1908	1.675.812	1.244.011	9.137.263	18,34	13,61	100
1909-1913	799.555	696.584	5.536.808	14,44	12,58	100
1849-1913	4.663.595	4.687.426	40.002.789	11,66	11,72	100

-Espainiak baliabide ugari zituen: Burdina (Bizkaian), beruna (Murtzian eta Almerian), kobrea (Huelva), merkurioa (Almaden).

-Industrializazio prozesuari loturik kanpo eskaria handia

-Legedia sektorearen hazkunde eta garapenerako oztopo: 1868ko meatze legea

-Atzerriko kapitalen etorrera, ekoizpena eta esportazioen hazkundea

-Harrikatzen arazoa

• Espainiako elikagaien merkatuak: Nazionala eta kanpokoa. 1860ra arte barne merkatua izan zen dinamikoena. 1869. urtearen ondoren (merkataritza-akordio berriak), nekazaritza-esportazioak izugarri hazi ziren, Espainiako esportazioen % 60 eta % 70 artean.

- Garai zailak Espainiako nekazaritzarentzat 1870eko hamarkadatik aurrera, honako arrazoien ondorioz:
- Atzerriko zerealen lehia (Estatu Batuak eta Errusia): prezioen beherakada arina (muga-zergarik ezean, behera egingo zuten)
- Lan-kostu gorakorrak (migrazioa) eta kapital-kostuak (diruaren prezioa)
- Lurraren erabilera zerealetatik mahastietara aldatzea (Frantziara ardo esportazioak, Espainia munduko upategia bezala ezagutzen zen). Baina 1891ren ondoren, ardo esportazioak kolapsatu egin ziren (Frantziak muga-zerga handia ezarri zien ardo inportazioei) eta filoxera iritsi zen Espainiara.
- Arazo horiei aurre egiteko: Lur-jabe eta ekoizleek Espainiako gobernuei tarifarik altuenak eskatzea eskatu zieten (1891ko Tarifen Legea).

Espainiako ekonomiaren eta nekazaritzaren irekiera ekonomikoa

- Jerez, Cava eta Errioxako ardoak, hiru salbuespen, ezaugarri komunak dituztenak:
- Kalitatea eta merkatu-hobia (prezio ertain/altua), atzerrikoa eta naziokoa, eta ohiko presentzia nazioarteko ardo-azoka eta lehiaketetan.
- Atzerriko teknologien transferentzia (Frantziatik),
- Markak komertzialak eta eskualdeko markak (Jerez, Errioxa, Cava) erabiltzea.
- Nekazaritzak hazkunde ekonomikoan duen zeregina: I) hiriak elikatzen ditu; II) eskulana eskaintzen die beste sektore batzuei; III) industriarentzat merkatu bat da; IV) kapitala sortzen du (zergen eta salmenten bidez).
- Nekazaritzaren eginkizuna Espainian:
 - (+) Pertsona-kopuru gero eta handiagoa elikatzen jarraitu zuen, eta gainera, esportazioak nabarmen handitu zituen, Espainiako ekonomiarentzat kanpoko diru-sarreraren iturri garrantzitsua sortuz.
 - (+) Nekazaritzak Espainian kapitala modu gordinen eratzten ere lagundu zuen, bankuetara eta beste sektorebatzuetara bideratutako zerga eta aurrezki pribatuen bidez.
 - (+) Nekazaritza-ekoizpenaren hazkundera nahiko txikia izan bazen ere, merkaturatu zen parte askoz ere azkarrago hazi zen. Nekazaritzaren hedapenak eragin nabaria izan zuen honi lotutako beste industria eta zerbitzu batzuetan, hala nola elikagaien eta edarien industrian edo garraio eta merkaturatze zerbitzuetan.
 - (-) Nekazaritzaren hazkunde motelak eragin negatiboa izan zuen industrian eta zerbitzuen garapenean.
 - (-) Produktibitate txikiaren ondorioz, Espainiako nekazaritzak biztanleria aktiboren kopuru handi bat asko atxiki zuen (% 66a 1900ean), soldata oso txikiekin. Industriarako merkatu gisa zuen garrantzia nahiko mugatua izan zen

1.4. Industrializazioaren mugak

Industrializazioa eta bere mugak

- Historialari ekonomikoak bat datoz XIX. mendeko Espainiaren industrializazioa "porrot" bat izan zela esatean.
- XX. mendearen hasieran, Espainian nekazaritza zen jarduera ekonomiko nagusia.
- Espainiako industria XIX. mendearen lehen erdian Europako lider industrialenetik urrun geratu zen. Gero, bigarren erdian, distantzia txikitzen eta bere industria eguneratzen saiatu zen, baina partzialki bakarrik lortu zuen.
- Espainiako industriak arazo larriei aurre egin behar izan zien XIX. mendean:
- Barne-eskari txikia eta oso motel hazten zena XIX. mendean zehar.
- Merkatu kolonialaren galera (Espainiak bere kolonia gehienak galdu zituen XIX. mendearen hasieran, beste herrialde batzuek bere merkatu koloniala handitzen zuten bitartean, Britainia Handia eta Frantzia kasu).
- Energia urria (eta garestia): ikatza eta ura (kontuan izan behar da Kataluniak eta Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik zituztela baliabide hidriko nahikoak industrializazio-prozesua errazteko).
- Diruaren prezio altua, Estatuaren zorpetze handia dela eta
- Gobernu ahula eta Estatu pobrea (azpiegiturak, zerbitzuak, industrializazio bultzatzen duten politikak... mugatuak).

Biztanle bakoitzeko industrializazioa Europako hainbat herrialdetan, 1800-1910 (1970eko Dolar Amerikarretan). Parentesi artean, Espainiaren maila hautatutako herrialdeko portzentaje gisa

	1800	1860	1890	1910
Britainia Handia	89 (38%)	257 (19%)	391 (24%)	458 (27%)
Frantzia	59 (58%)	164 (30%)	250 (37%)	356 (34%)
Alemania	—	102 (49%)	134 (69%)	391 (31%)
Suedia	—	46 (109%)	97 (96%)	198 (62%)
Italia	—	35 (143%)	63 (148%)	145 (84%)
Espainia	34	50	93	122

Kontsumo ondasunen Industrien ezaugarriak

- Errenta mailaren araberakoak (produktu finalak dira)
 - Barne merkatuaren ahultasunak baldintzaturik
 - Nekazaritza-sektorearen atzerapena
- Muga-sari babesa
 - Kanpo lehiari eusterik ez daukate
- Energia garestia
 - Ikatzaren arazoa
 - Atzerriarekiko menpekotasuna

Kontsumo ondasunen Industria

• Oztopo horiek guztiekin ere, XIX. mendean kontsumo-ondasunen industria bat agertu eta garatu zen, hazkunde moteleko barne-merkatuaren beharrak betetzeko asmoz: elikagaiak eta edariak, ehunak, oinetakoak eta paper-fabrikazioa.


- Elikagaiak eta edariak: irina, oliba olio, ardoa eta kontserbak. Kokapena, baliabide naturaletatik eta kontsumo-zentroetatik gertu.
- Ehunak: kotoia eta beste zuntz batzuk (artilea, zeta). Katalunia "tierra textil" ("Espainiako ehun fabrika"): industria-barruti handi bat. Merkatu nazionala (atzerriko lehiatik babestua).
- Oinetakoak: abarkak barne-merkatuarako eta larruzko zapatak esportaziorako. Katalunia, Valentzia eta Balear Uharteak.
- Paperaren fabrikazioa: bi sektore eta produktu desberdin. Idazteko papera eta erretzeko papera fabrikatzera bideratutako artisau-sektorea Katalunian eta Valentzian, batez ere. Egunkari-papera fabrikatzen duen industria modernoa Katalunian eta Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Guztiek atzerriko teknologia inportatu zuten eta (gehienak) muga-zergen bidez babestutako barne-merkatu baterako ekoizten zuten.

Espainia eta Ingalaterraren produkzio kostu diferentziak (kotoi gordinezko oihala)

Kostu atalak	1856		1875		1889	
	(1)	(2)	(1)	(2)	(1)	(2)
Kotoi gordina	30,7	15,8	8,1	11,9	5,0	13,7
Ikatzia	567,2	16,4			77,5	11,4
Gastu orokorrak	91,6	8,8	89,4	25,5	38,4	20,6
Amortizazioa	66,0	5,1			30,2	10,7
Kapital kostua	81,6	16,9	155,9	24,9	128,2	34,7
Eskulana	122,7	36,9	71,2	37,7	5,0	8,8
Guztira	89,9	100,0	41,0	100,0	17,2	100,0

Iturria: Sudriá (1999). (1) zutabeak atal bakoitzak Ingalaterrarekiko duen kostu diferentzia adierazten du (portzentaian). (2) zutabeak diferentzia osoaren banaketa adierazten digu (portzentaian ere bai).

Kotoi inportazioak 1834-1876 (Tm)



Industriaren kokapena azaltzen duten faktoreak

- Ekipamendu-ondasunen industriak zuen beste arazo bat atzerriko lehia zen (muga-zerga oso baxuak edo nuluak makineria, burdin eta altzairu plantxak, trenbide-materiala, metalezko produktuak edo itsasontziak inportatzeko).
- Merkataritza-politikak kontsumo-ondasunen industriei eta nekazaritzari lagundu zien.
- Burdina eta altzairua. Euskal Herrian kokatutako artisau-industria garrantzitsu bat (burdin forjatua), XIX. mendearen lehen erdian britainiarren lehia eta merkatu kolonialaren galera bizi izan zituen. Britainiar teknologiaren inportazioa (labe garaiak, burdina urtua, Cort labeak, forjatuak...)

- Burdingintza modernoa, lehenengo Andaluzian eta Asturiasen. 1870etik aurrera (altzairua fabrikatzeko Bessemer prozesua), Euskal Herriak bere lidergoa berreskuratu zuen: merkatu nazionalera eta kanpokora bideratutako enpresa handiak (San Frantzisko, La Vizcaya, AHV...).
- Metalezko produktuak. Lehenengo enpresak 1880ko hamarkadaren amaieran agertu ziren, euskal altzairutegietatik gertu. 1891ren ondorengo bultzada berri eta handia (Espainiako merkatua babesten zuten muga-zergak) inportazioen ordezkatzearen bitartezko industrializazioa.
- Ontzigintza. Zurezko ontzigintzaren industria oso garrantzitsua XIX. mendearen lehen erdian, 1860ko hamarkadan kolapsatu zena (aldaketa teknologikoa: burdinazko kaskoak eta lurrunezko teknologia) eta merkatuaren liberalizazioa. Ontzigintzaren industria moderno bat sortu zen Bilbon (eta Cadizen) 1890eko hamarkadan, merkatu garrantzitsuenetatik gertu eta Estatuaren (Armada) eta ontzi-enpresaburuen ekimenez (Astilleros del Nervión 1889, Euskalduna 1900, La Naval 1915 eta beste asko).
- Gipuzkoako Debako behe-haranean kokatutako su-armak (tradizio protoindustrialak).
- Kimika: 1870a baino lehen, ehungintzaren eskariari lotua; 1870aren ondoren, produktu eta sektore berriak (nekazaritzarako ongarriak, meatzaritzarako lehergaiak...)
- Industria-jardueraren banaketa geografikoa Espainian:
 - XIX. mendearen azken laurdenera arte: merkatu nazionalaren integrazio mugatua (garraio-kostu handiak) eta eskalako ekonomien irabazi txikiak. Oinarrizko baliabideetatik (lehengaiak, energia) eta/edo azken merkatuetatik gertu egotea funtsezkoa izan zen. Kasu batzuetan, ondare industrialak ere garrantzia nabaria izan zuen (ehungintza, burdingintza eta altzairugintza).
 - Hala ere, merkatu nazionalaren integrazioaren ondoren (eta garraio-kostuen murrizketa nabarmenaren ondoren), eskualde bakoitzaren industria-espezializazioa hasi zen. Hasieran zenbait faktoretan oinarritua, hala nola baliabide naturaletan, kualifikatutako eskulanaren horniduran eta/edo aurreko industria-ondarean.
 - Kataluniak eta Euskal Herriak Espainiako industrian zuten garrantzia indartu zuten XIX. mendean.”.

Meatzaritza

- Espainiak oso baliabide natural ezberdinak zituen: mineral metaliko ugari eta oso pobrea ikatzean.
- Nazioarteko meatze-potentzia bat, 1870 eta 1914 artean:
 - Munduko lehen berun-ekoizlea 1860ko eta 1870eko hamarkadetan (munduko ekoizpenaren % 29).

- Munduko bigarren kobre-ekoizlea (munduko merkatuaren % 23, Rio Tinto alorreko munduko enpresarik garrantzitsuenetarikoa).
- Munduko bigarren merkurio ekoizlea (Almadén).
- Eta burdin, ezta eta zink mineralen munduko sei ekoizle nagusien artean.
- Meatzaritza Espainiako ekonomiaren sektorerik dinamikoena izan zen, nazioarteko merkatura oso bideratuta zegoena. Nekazaritzako esportazioekin batera, kanpoko diru-sarreraren iturri nagusia izan zen (funtsezko ekarpena ordainketa-balantzari). Jende asko erabiltzen zuen. Meatzaritzak, sektore honetan inbertitu zuen atzerriko kapitala ere erakarri zuen.
- Espainiak, aldiz, ikatz-baliabide urriak eta kalitate txarrekoak zituen, gehienak Asturiasen kokatuak, eta muga-zergak laguntzen zituzten. Hala eta guztiz ere, Asturiasko ikatzak ezin zuen Britainia Handitik eta Frantziatik inportatzen ziren ikatzekin lehiatu.
- "Ikatzen arazo" horrek Espainiako industriaren lehiakortasun gabezia areagotu zuen.

Euskal siderurgia XIX. mendearen erdialdean

- Malagako lehia sortu arren sistema tradizionala mantendu egin zen:
 - Produktuaren kalitate hobea
 - Egur-ikatzaren prezio baxuagoa
 - Chenot labeak (zuzeneko sistema)
 - Aduanak kostaldere lekuz aldatzerakoan ekonomikoki funtzionatzeko gai ziren lehenengo labe garaiak agertu ziren (1841, Santa Ana de Bolueta, Begoña, Bizkaia)

BIZKAITAR NAGUSITASUNA

- Bizkaiari lagungarri zaizkion faktoreak
 - Erregai kontsumo txikiagoa
 - Politika librekanbista
 - Fleteen beherapena
- Lantegi berriak:
 - 1879 San Francisco, Sestao
 - 1882 Metalurgia y Construcciones de Vizcaya, Sestao
 - 1882 Altos Hornos y Fábricas de Hierro y Acero de Bilbao, Barakaldo

Harriatzaren prezioa Bilbon 1865 eta 1882 urteetan

	Asturiar harriatza (pzta)	Ingeles harriatza (pzta)	
1865			
Gijon-en, ontzi barruan	18,14	9,50	Newcastle-en ontzi barruan
Fleteak	6,50	22,56	Fleteak
		8,12	Zergak, muga-zergak...
Guztira	24,64	40,18	Guztira
1882			
Gijon-en, ontzi barruan	19,37	11,87	Newcastle-en ontzi barruan
Fleteak eta komisioa	6,25	8,75	Fleteak
		2,50	Zergak, muga-zergak...
Guztira	25,62	23,12	Guztira

1.5. Moneta, banka eta finantzak.

Banku sektorea Espainian

- Banku sektorea Espainian 1856 baino lehen:
 - Ehunka bankari pribatu txiki (bankari merkatariak).
 - Banku publiko bat (Banco Español de San Fernando, geroago Banco de España), txanponen jaulkipenaren monopolioa zuen.
 - Eta banku pribatu gutxi batzuk (sozietate anonimoak) eta aurrezki-kutxak.

Kapital merkatu lokalak (ez dago kapital-merkatu nazionalik XIX. mendearen lehen erdian). Bankuen ospea eta konfiantza likidezia eta solbentzia mantentzeko (eta izua saihesteko) funtsezko aktiboak.

- 1856ko banku-legeak: liberalizazioa eta "Bankugintza librea" atzerriko kapitala erakartzeko. Bi motatako bankuak sortzea eragin zuen: billeteak jaulkitzen zituzten merkataritza-bankuak eta kreditu-sozietateak (inbertsio-bankuak).
- Lehenengoak (zor-agiriak, kontu korrontek eta gordailuak), epe laburreko kredituetan espezializatu ziren (maileguak eta deskontuak).
- Kreditu-sozietateak (kapitalka eta baloreak), aktiboen zati handi bat epe luzeko proiektuetan inbertitu ahal izan zuten.
- Frantziako enpresa multinazionalen jabetzako kreditu-sozietateak, trenbideekin eta beste enpresa batzuekin lotura estua zutenak ugaritu ziren.
- Trenbide eta banku burbuila 1856tik 1865era: bi banku mota horiek (Merkataritza Bankuak 3tik 21era eta Kreditu Sozietateak 3tik 35era igaro ziren) nabarmen inbertitu zuten trenbideetan eta zor publikoan. Baina trenbideek eta gobernuak beren zorra ordaintzeko zituzten zailtasunek kolapsatu egin zituzten banku horiek. 1864-66ko krisiaren ondoren, kreditu-sozietateak erabat desagertu ziren (bat izan ezik) eta billeteak jaulkitzen zituzten bankuak gutxitu egin ziren (eta gehienak Espainiako Bankuaren tokiko sukurtsal bihurtu ziren, salbuespen batzuekin: Bilboko Bankua eta Santander Bankua).
- 1866-1874: Espainiako banku-sistemaren lehen krisi sistemikoa
- 1874an Espainiako Bankuak herrialde osorako billeteen jaulkipenaren monopolioa lortu zuen. Altxorak etsi-etsian behar zuen mailegu handi baten truke. Ordutik aurrera, Espainiako Bankuak erruz erabili zuen jaulkipen pribilegioa, eta aldi berean, mailegu eskuzabalak eman zizkion Altxor Nazionalari. Mekanismo horren bidez, Espainiako Bankua funtsean "zor publikoa monetarizatzen" ari zen. Zor nazionalaren bolumenak gora egin ahala, zirkulazioan zegoen diru kopuruak ere gora egin zuen, inflazio nabaria eraginez.

- 1874tik aurrera, antzinako banku jaulkitzaileetako batzuk, Bilboko eta Santanderreko bankuak kasu, euren eragiketak hedatzen hasi ziren, epe luzerako funtsak lortuz eta enpresen sustapen eta finantzaketan erabiliz, gero eta arrakasta handiagoa lortu zuten: Banku misto bihurtu ziren (merkataritza eta enpresa bankuak) alemaniar estiloan. 1885eko Merkataritza Kodeak berariaz baimendu zuen banku mistoak sortzea.

- 1891n horrelako banku berri bat sortu zen Bilbon, Banco del Comercio. Beste askok jarraitu zuten hurrengo urteetan, Euskal Herriko industria garapen harrigarriaren eskutik etorri zen prozesu baten baitan (Banco Guipuzcoano 1900, Banco de Vitoria 1900, Banco de Vizcaya 1900 eta Crédito de la Unión Minera 1901...). Katalunian, berriz, banku mistoak ez zuen aurrera egiten, ezta banku espezializatuak ere.

Banku pribatuaren finantza-aktiboak Espainian (%), egoitzaren kokapenaren arabera

	Madrid	Bartzelona	Bilbo
1874	62	29	7
1889	30	56	9
1904	30	23	42

- 1865 baino lehen, diru eskaintza, nagusiki, urre eta zilarrez osatua zegoen (txanponak eta lingoteak). Diru fiduziariora (jaulkitzailearen ospearen arabera) moneta-eskaintzaren % 10 baino ez zen.

- 1874tik aurrera, Espainiako Bankuak billeteen jaulkipenaren monopolioa lortu ondoren eta moneta bakarrarekin (Pezeta, 1868tik aurrera), diru fiduziarioaren kopurua nabarmen handitu zen.

Moneta-eskaintzaren banaketa Espainian (milioi pezetatan)

	1865	1900
Banku billeteak	100	1,600
Banku kontuak	60	960
Zilarra	250	1,300
Urrea	1,100	395
Guztira	1,510	4,255

- Espainia nazioarteko ekonomian integratu zen XIX. mendean:

- Elikagaien eta metalezko mineralen esportatzaile gisa.
- Manufakturen, zerbitzuen eta kapitalaren inportatzaile gisa.


- Espainia zerbitzu eta kapital inportatzaile garbia izan zen. Ordainketa-balantzaren defizita 1850 eta 1891 artean eta 1900 eta 1905 artean; superabita 1892-98 eta 1906-1914 artean.

- Oro har, Espainiaren hazkundera, XIX. mendearen bigarren erdian, atzerriko kapitalen joan-etorri erregularrean oinarritu zen.

- Merkataritza-politika: protekzionismo selektiboa, baina 1841etik 1868ra pixkanaka ireki zen; liberalizazioa 1869tik 1891ra; aldaketa protekzionista 1891tik aurrera.

1.6. Garraioen iraultza: azpiegiturak, sareak eta komunikazio sistemak.

- Garraio-kostu altuak ekonomiaren modernizatorako oztopo nagusietako bat dira (gogoratu Adam Smith: "Lanaren banaketa merkatuaren hedapenak mugatzen du").
- Hori Iberiar Penintsulari aplikatzen zaio bereziki: mendi-kateek, erdiko goi-lautada eta periferia bereizten dituzte.
- Espainiak, ez zuen ibai nabigagarririk edo ur-kanalik, Ingalaterra, Frantzia edo Alemaniak bezala. Errepideek eta trenbideek merkatu nazionala integratu zuten; itsas garraioak, berriz, Espainiako ekonomia nazioarteko merkatuan integratu zuen.
- Errepide sarea: 4.000 km 1800ean, 8.324 km 1856an eta 16.000 baino gehiago 1865ean. Baina Frantzia baino dentsitate txikiagoa. Gainera izaera erradiala zuen.
- Zenbait ibilbidetan, garraio-kostuak % 30 jaitzi ziren urte horietan. Espainiak 36.000 km errepide zituen XIX. mendearen amaieran, horietatik 16.000 lehen edo bigarren mailakoak.
- 1855eko Trenbideen Lege Orokorrak: tren-enpresak eratzea erraztu zuen (atzerriko jabetzakoak, batez ere frantsesak), estatu-sorospenak ordaintzea aurreikusi zuen, inbertsiogileei zenbait arriskuren aurkako bermea eman zien eta inportatutako trenbide materialak tarifarik gabe utzi zituen.
- Trenbide sare erradiala (ikus mapak). Eraikuntza-kostu handiak eta diru-sarrera txikiak (Espainiako merkatuak trenbide-garraiorako zuen tamaina txikiaren eraginez). Tren-enpresen etekin txikiak eta arazo ekonomikoak.
- Gainera, Kontzentrazio industrialak: 1905ean hiru enpresa nagusiek (Norte, MZA, Andaluces) Espainiako trenbide-sarearen % 75 zuten beren esku. Kapital frantsesa.
- Barne-merkatuaren integrazioan eragin erabakigarria izan zuten. Urte hauetan, garraio-kostuak % 86 jaitzi ziren zenbait ibilbidetan. Trenbideen batez besteko tarifak % 50 egin zuen behera 1857 eta 1914 artean; linea nagusien eragiketa-dentsitatea nabarmen hazi zen, 1860ko hamarkadan 100.000 tona-km baino gutxiago, eta 1910etik aurrera 250.000 baino gehiago.



- Itsas garraioa trenbidea bezain garrantzitsua (merkataritza-bolumena, BPG-ri egindako ekarpena): kostaldeko merkataritza eta kanpo-merkataritza.
- Aldaketa teknologikoa itsasontzietan: itsasontzi handiagoak, hobeak eta azkarragoak (zurezko belaontzietatik hasi eta burdinazko kroskodun lurrunetara, 1870eko hamarkadatik aurrera, erritmo oso azkarrean: Espainia prozesu honetan buru izan zen nazioetako bat, munduko bosgarren nazioa XIX. mendeko azken bi hamarkadetan. Itsas garraio modernoa Bilboko eta Bartzelonako portuetan kontzentraturik. 1900. urtean, Bilbok Espainiako merkataritza-flotaren % 50 baino gehiago ordezkatzen zuen.
- Ontzi modernoan Espainiar eskaria ontziola britainiarrek bete zuten, ez espainiarrek. 1849 eta 1935 artean, Espainiak 3.400 itsasontzi baino gehiago inportatu zituen.
- Aldaketa teknologikoa portuetan: zabaltze eta dragatze lanak, kaiak eta ontziolak eraiki, lurrun-garabiak, argia, olatu-hormak... Horiek guztiak murriztu egin zituzten ontzi-eragiketen iraupen-denborak eta portu-kostuak. Hala ere, portu garrantzitsu gutxi batzuetan baino ez zen gertatu. 1880ko hamarkadatik: Bilbo, Bartzelona, Huelva, Pasaia, Gijón, Cartagena, Las Palmas eta Santa Cruz Tenerife.

2. GAIA. Espainiar ekonomia XX. mendearen lehen herenean I

Espainiar ekonomiaren ikuspegi orokorra (XX. mendearen lehen herena)

- Hazkunde ekonomikoa, egiturazko aldaketa (urbanizazioa, trantsizio demografikoa, BPGaren sektore-banaketa, biztanleria aktiboaren sektore-banaketa...) eta Europako herrialde nagusiekiko distantziak laburtzea.
- Aldaketa teknologikoa (2. iraultza industrial: altzairua, elektrizitatea, petrolio eta produktu kimikoak).
- Kapitalismoa espainiar erara sendotzea: bankuak, familia ekintzaileak, enpresa-taldeak eta enpresa handiak.
- Estatuak ekonomian duen papera handituko du, politika ekonomiko "nazionalistaren" testuinguruan, "1898ko hondamendiari" erantzuna.
- Aldaketa sozial eta politikoak: sufragio unibertsala (maskulinoa, 1890; femeninoa, 1931), aldaketa demografikoak, alfabetatze-tasen igoera, urbanizazioa...

Baina:

- Hirietan istilu sozialak, sindikatuen eta enpresa-elkarteen arteko lan-gatazken ondorioz (grebak eta manifestazioak + errepresioa), eta gerrako mobilizazioak (Kubako Gerra 1898, Marokoko Gerra 1909, Bartzelonako Aste Tragikoa 1909, Marokoko Gerra 1921-1927)

- Nekazaritzaren arazoa (Problema Agrario) landa munduan, bereziki Espainia hegoaldean (jornalariak eta lur-jabe handiak). 1930eko hamarkadaren hasieran, liskar ugari eta erreforma saiakera.
- Ezegonkortasun politikoa: 1898ko hondamendiaren eragina politikan eta iritzi publikoan (zer egin behar da?). Berrezarkuntzaren krisia eta armadaren etsipena.
- Testuinguru honetan:
- Primo de Riveraren kolpe militarra 1923an.
- Bigarren Errepublika 1931n, eskuineko eta ezkerreko alderdi politikoen arteko tirabira eta gatazka gero eta handiagoak. 1934ko Asturiasko Iraultza, 1936ko beste kolpe militar bat eta honen porrotaren ondorengo Gerra Zibila.

Historia politiko laburra: Alfontso XIII.a

- Alfonso XIII (1886-1941), Espainiako errege: 1902-1931
- Haurtzaroa:
- 1885-1902 bere ama Maria Kristinaren erregeordetza
- Kubako gerra (1895-1898)
- Estatu Batuen aurkako gerra (1898)
- Kuba, Filipinak eta Puerto Ricoko kolonien galera
- Erregealdia:
- Borbondar Berrezarpenaren txandakatze erregimenaren krisia, ezegonkortasun politikoa eta Marokoko arazoa
- Primo de Riveraren diktadura (1923-30)
- Berenguer Jeneralaren Dictablanda (1930-31)
- II. Errepublika (1931-1939)
- Espainiar Gerra Zibila (1936-1939)

Historia politiko laburra: Primo de Riveraren diktadura,1923-1930

- Primo de Rivera jeneralak estatu kolpea eman eta erregeak goraipatu eta boterea eman zion.
- Berrezarpenaren sistema bertan behera geratu zen.
- Direktorio militarra (1923-1925)
- Direktorio zibila (1925-1930)
- Alderdi bat (Union Patriótica), sasi-parlamentu bat (Asamblea Nacional) eta ordena publikoa zaintzeko milizia moduko erakunde berria (Somaten)
- Marokoko arazoaren bukaera: Alhucemaseko lehorreratzea (1925)

Historia politiko laburra: Bigarren Errepublika (1931-1939)

- 1931ko Apirilaren 14an aldarrikatua
- Epe nagusiak:
 - Epe konstituziogilea (apirila-abendua 1931)
 - Biurteko errepublikar-sozialista (1931-33)
 - Biurteko erradikal-zedista (1934-1935)
 - Fronte popularraren gobernuak (1936)

2.1. Protekzionismoa eta esku-hartzea: ekonomia politika berria

- Estatuaren esku-hartze handiagoa: merkataritza-politika (muga-zergak), zerga-politika (Villaverderen erreforma), industria-politika (1917ko eta 1926ko legeak), Bigarren Errepublikako nekazaritza-erreforma.
- Aduana-mugasariak (inportazioen eta/edo esportazioen gaineko zerga) diru-iturri eta politika ekonomikorako tresna gisa ikus daitezke (merkataritza sustatzea edo inhibitzea, sektore bat atzerriko lehiaren aurka babestea...).
- Librecambisten eta protekzionisten arteko eztabaida ekonomikoa XIX. mendean zehar. Oro har, arantzelak modu espezifikoan eragin zion ekonomiaren sektore bakoitzari, eta sektore bakoitzak gehien komeni zitzaion merkataritza-politika babesteko joera izan zuen. Adibidez, kotoi-ekoizleek beren produktu bukatuetarako babesa nahi zuten, baina ez makineria, ikatza eta kotoia adarrean inportaziorako; nekazaritza-ekoizleek zerealentzako babesa nahi zuten, baina ongarririk eta nekazaritza makinaria muga-zerga gabe inportatu nahi zuten; eta horrela sektore guztietan.
- Antonio Flores de Lemusek adierazi zuen bezala, protekzionismoaren baitan, ezinezkoa da industria bat babestea beste bati, kontsumitzaileari edo biei kalterik egin gabe. Babesa ere ez da eraginkorra, normalean gehiago sustatzen baitu errenten bilaketa kostuak murrizteko prozesu bat baino, irabaziak handitzeko modu erraz bat den aldetik. Ondorioz, industriek ezin dute nazioartean lehiatu eta soilik barne-merkatuan saldu dezakete.
- Hala ere, aldi baterako politika protekzionista justifikatuta egon daiteke, gorabidean dauden industriei lehiatzeko aukera ematen badie ("sortzen ari den industriaren argudioa", F. List ekonomialari alemaniarrek garatua).
- 1869-1891 Merkataritza-politika liberala (merkataritza-akordioak eta beheranzko muga-zergak). Nazioarteko testuingurua: protekzionismora itzultzea 1870eko hamarkadaren amaieran.

- Espainiak protekzionismora jo zuen 1892an (Canovasen 1891ko Arantzel Legea): helburu nagusia nekazaritza babestea zen, baina industrian ondorio nabariak izan zituen (industrializazioa inportazioak ordezkatur). Merkataritza-politika berri horren atzean "ohiko taldeak" zeuden. Gaztelako gari ekoizleek eta kataluniar eta euskal industrialarietarako Estatuari muga-zergak handitzeko presioa egin zioten.

- 1906ko eta 1922ko muga-zergen legeek: Industria babesteko eta indartzeko (industrializazioa inportazioak ordezkatur). Antzeko bidea beste herrialde batzuetan, baina babes gutxiagorekin.

Muga-zergen mailak 1913an

	Produktu Manuf. Minimoa	Produktu Manuf. Maximoa	Nekazal produkt. Minimoa	Nekazal Produkt. Maximoa
Alemania	8.5	11.7	21.3	22.3
Italia	12.6	16.7	30.0	40.0
Frantzia	12.9	19.7	27.2	31.3
Austro-Hungaria	14.6	24.0	32.2	36.7
Espainia	35.7	49.5	44.0	46.0

- Irabazleak: Gari ekoizle eta industrialak (kotoia, burdina eta altzairua, baina beste asko ere bai).
- Galtzaileak: kontsumitzaileak, zergadunak, esportatzaileak eta inportatzaileak.

- Protekzionismoaren irabazi dinamikoak: ikaskuntza-efektu moderatuak (lan-kualifikazioa, egiten jakitea -know how-) zituzten industria berriak (ekipo elektrikoak, makineria, produktu kimikoak) agertzen lagundu zuen.

- Tarifek atzerriko inbertsio zuzenen fluxua ere handitu zuten Espainian: enpresa multinazionalen plantak eta instalazioak instalatu zituzten Espainian muga-zergen muga gainditzeko.

- Atzerriko lehia kanporatzeak enpresa-lehia gutxitu zuen, eta kolusio-akordioak erraztu zituen sektore askotan (siderurgia, paper-fabrika, kimika, makineria elektrikoa, ontzizintza...), oligopolio edo monopolioak bultzatuz.

- Baina, oro har, babesak ez zuen epe ertain-luzean sektore babestuen lehiakortasuna handitzea eragin, kontrakoa baizik. Enpresak ez ziren behar bezain lehiakorrik nazioartean esportatzeko, beraz, barne-merkatu txiki samar baterako ekoiztera

- behartuta zeuden, merkatu handiago bati lotutako eskalako ekonomietatik eratorritako mozkinak lortu gabe (barne-ekonomia + esportazioak)

	Estatuaren aurrekontu balantza/Gastu publikoa	Zorren karga/ Gastu publikoa	Zorra/BPG	Gastu Publikoa/ BPG
1881-1892	-5.0	33.2	106.7	7.1
1893-1898	1.2	41.0	68.0	7.8
1899-1906	7.1	42.7	108.4	7.4
1907-1914	-1.7	34.7	81.7	9.6
1915-1919	-32.0	36.6	61.4	10.0
1920-1923	-27.9	22.5	37.9	10.7
1926-1929	-6.6	24.3	50.9	9.9
1932-1935	-8.3	22.8	52.2	11.7

Zerga politika

- Ogasuneko arazoak, zorpetze kronikoa, zorpetze publiko handia, desplazamendu eragina, interes tasa altuak, AEBen aurkako gerrak eta 1898an Espainiako kolonien galerak areagotuak.
- Ordutik aurrera hobetu egiten da.

R. Fernández-Villaverderen zerga-erreforma 1900ean: 1845eko zerga-egitura osatu zuen, produktuei zerga berriak ezarriz eta kontsumo espezifikoek gaineko zerga batzuk finkatuz. Kapitalaren eta lanaren gaineko zerga berri bat (utilitateen kontribuzioa), soldaten, kapital-interesek eta merkataritza-irabazien gaineko hiru tarifa bereiziek.

Villaverdek Espainiako ekonomiaren errealitate berrira egokitu zuen zerga-sistema. Lurraren gaineko zerga ez zen hain garrantzitsua izan 1900. urtearen ondoren; kapitalaren eta lanaren gaineko zerga berriak, berriz, askoz ere garrantzitsuagoak izan ziren, eta gobernuak 1920ko hamarkadan izan zuen bigarren sarrerarik handiena izan zen, aduana-eskubideek soilik gaituta. Hala ere, zeharkako zergek garrantzi handia zuten oraindik gobernu zentralaren baliabideetan (pertsonek fisikoek errentaren gaineko zergak ez ziren sartu F. Fernández-Ordóñezek 1977ko zerga-erreformara arte).

1899 eta 1908 arteko aurrekontu-superabita, baina defizita 1909an berriro agertu zen, gastu publikoa handitu bezain laster. Zerga erreformarako beste edozein saiakerak porrot egin zuen bata bestearen atzetik, parlamentua kontrolatzen zuen lobby kontserbadore indartsuarekin topo egin baitzuten. Adibide bezala: José Calvo-Sotelok, Primo de Riveraren gobernuko Ogasun ministroak (parlamentuaren kontrolaren menpe aurkitzen ez zenak) ezin izan zuen bere 1926ko erreforma fiskala aurrera eramanez, klase kontserbadoreen oposizio basatia zela eta.

- Gastu publikoaren maila baxua. 1930ean BPGren gaineko gastu publikoa % 9,7ra igo zen Espainian, Erresuma Batukoa (% 18,6), Frantziakoa (% 17,8) edo Alemaniakoa (% 23,2) baino askoz txikiagoa. Hezkuntza sare eta azpiegitura eskasak (gutxienez, Europa Mendebaldeko beste herrialde batzuekin alderatuta).

- Industria-politika berri bat. Estatuak industria ere babestu zuen 1907ko eta 1917ko legeen bidez. Lege horiek hainbat subsidio, zerga-salbuespenak eta beste onura batzuk eman zituzten Espainiako industriari, eta estatuaren erosketak (adibidez, indar armatuen materialen erosketak) enpresa nazionalentzat gorde zituzten. 1887ko eta 1908ko ontzigintzako planek Espainiako ekipo-ondasunen ekoizpen industrialaren % 4 eta % 6 hartu zuten, 1888-1899 eta 1910-14 urteetan, hurrenez hurren.

- 1890eko hamarkadatik presio taldeen arteko borroka piztu zen, erakundeek, besteenen gainera beren interesak babestu zituzten: Liga Vizcaína de Productores (1894), Fomento del Trabajo Nacional (1889), Unión Minera de España, Asociación de Navieros de Bilbao (1900). Mekanismoak: manifestazio publikoak; iritzi publikoaren kontrola (egunkariak); eta Espainiako parlamentuaren kontrola (diputatuak eta Senatuak kideak).

Aurrekontua borroka "1898ko hondamendiaren" ondoren

Joaquín Costa mugimendu erregerazionista eta Liga Nacional de Productores (1899): Nekazaritza eta eskolak aurrekontu lehentasun gisa.

Antonio Maura eta Liga Marítima Española (1900), itsas garraioaren, ontzizintzaren eta industria astunaren lobbya (eta Armada).

- 1901eko hauteskundeetan Liga Nazionalak porrot egin ondoren, itsas lobbyak gobernu eskuratu eta 1908ko ontzizintza plana onartzea lortu zuen (1898ko maiatza eta 1907ko urtarrila bitartean, Itsas Ministeriotik 17 ministro igaro ziren): Planak, 201 milioi pta, urte horretako gastu publiko osoaren % 20 hartu eta Itsas Ministerioaren ohiko aurrekontua 6,5 aldiz gainditzen zuen. Itsas Armadaren kontratua, azkenean, SECNk irabazi zuen. Enpresa horretan bi bankuk, bi altzairutegik, ontzi-enpresa batek eta Vickersek (multinazional britainiar bat) hartu zuten parte.
- Itsas Industriak eta Komunikazioak Babesteko Legea (1909): enpresa pribatuentzat diru-laguntzak

2.2. Bigarren industria iraultza eta bere hedapena: enpresa eta teknologia berriak

Mendearteko hazkunde ekonomikoa

- 1898ko desastrea, ekonomikoki, ez zen horrenbesteko izan
- Koloniar eta Amerikako kapitalen itzulera
- Kolonien galera
- Pezetaren depreziazioa
- Atzerriko espainiarrei zor publikoaren interes tasak ordaintzea bertan behera
- Kapitalen tamaina handia eta beren eragina hazkunde ekonomikoan izugarria: enpresa handi modernoaren sorrera

Enpresa handi modernoa Espainian

- Enpresa handia jadanik trenbidean eta meatzaritzan
- Hiru sektore berritan agertuko da batez ere: Industria, Elektrizitatea eta Finantzak

- Protekzionismoak sektore berrien agerpena erraztuko du
- Gehienak enpresen fusioen ondorioz sortutakoak dira, eraso eta defentsarako integrazio prozesuak
- Inbertsio bankak paper garrantzitsua jokatu zuen prozesu horretan
- Fusioek eta enpresa berrien agerpenak balioen merkatuaren garapena bultzatu zuten

Elektrifikazioa

- Elektrizitatearen hedapena eta merketzea industria jarduera berri eta zenbait sektoreren hazkundearen eta garapenaren erantzule nagusi
- 1880. hamarkadatik aurrera zentralak eraikitzeke gero eta ekimen gehiago
- Hiru eskari mota:
 - Argiztapena: Ikusgarriena, gasarekin lehian.
 - Industria: Motor elektrikoek prezioen eta tamainen beherapenak industriaren elektrifikazioa bultzatu zuen
 - Trakzioa: Hirietako tranbia elektrikoak
- Prozesu honek hirigintzari bultzada emango dio, hiriak erakargarriagoak bihurtuko dira (zabalguneak, igogailuak, eraikin altuagoak, erosotasun ugari).
- Espainiak, hidroelektrizitate ahalmen handia izanik, probetxu handia lortuko du, batez ere 1905etik aurrera garraio arazoak konpondu eta gero.
- Elektrizitate enpresa handiak sortuko dira, inbertsio handiak eginez.
- Euskal inbertitzaileak aitzindari.

Sota y Aznar taldearen egitura (1900-1913)

Sota y Aznar Elkarte kolektiboa			
MEATZARITZA	MAKINERIA	ITSAS-GARRAIOA	FINANTZAK-ASEGU RUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Meatzaritza negozioak Bizkaian - Meatzaritza negozioak Sevillan - Setareseko Meatzaritza-Konpainia (Cantabria, <i>burdina</i>) - Ceferina meatzea (Avila, <i>beruna</i>) - Sierra Alhamillako Meatzaritza-konpainia (Almeria, <i>beruna</i>) - Sierra Menera MK (Guad.-Teruel, <i>burdina</i>) 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Gazteiz Hnos., Yermo y Cía. (nekaritza-makineria)</i> 	<ul style="list-style-type: none"> - Sota y Aznar itsas-konpainia (→<i>Remolcadores Ibaizabal</i>) - <i>Euskalduna</i> ontziolak - <i>Cía. de Navegación Internacional</i> 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Banco de Bilbao</i> (→<i>Banco del Comercio</i>) - <i>Compañía de Crédito Especial</i> - <i>Crédito Industrial Gijonés</i> - <i>La Polar</i> (aseguruak)

- Compañía Naviera Sota y Aznar, S.A. 1906an sortu zen Bilbon, Eduardo de Aznar de la Sota eta haren lehengusu Ramon de la Sota y Llanok 1889 eta 1899 artean sortutako ontzi bakarreko 25 konpainiek bat egitearen ondorioz.
- Enpresa berriaren zuzendari gerenteak, biziarteko izaeraz, Ramón de la Sota eta Eduardo zenaren semea ziren, Luis M^a Aznar, Sota y Aznar enpresa kolektiboko bazkideak.
- Enpresa, bere ontzidiaren tamainari dagokionez, Espainiako lehen ontzi-enpresa izateaz gain enpresa-talde zabalago baten zutabeetako bat ere izan zen.

Sota y Aznar taldearen egitura (1914-1930)

Sota y Aznar Elkarte kolektiboa			
MEATZARITZA	MAKINERIA	ITSAS-GARRAIOA	FINANTZAK-ASEGURUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Meatzaritza negozioak Bizkaian - Meatzaritza negozioak Sevillan - Setareseko Meatzaritza-Konpainia (Cantabria, <i>burdina</i>) - Ceferina meatzea (Avila, <i>beruna</i>) - Sierra Alhamillako Meatzaritza-konpainia (Almeria, <i>beruna</i>) - Sierra Menera MK (Guad.-Teruel, <i>burdina</i>) 	<p><i>Garteiz Hnos., Yermo y Cia. (nekazaritza-makineria)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sota y Aznar itsas-konpainia (→<i>Remolcadores Ibaizabal</i>) - Euskalduna ontziolak (→Talleres de Elorrieta) (→Suárez y Cia.) - Franco-Española de cables - <i>Cía. de Navegación Internacional</i> 	<ul style="list-style-type: none"> - Banco de Bilbao (→Banco del Comercio) (→Hispano-Portuguesa de Transportes Eléctricos Saltos del Duero, elektrizitatea) - Compañía de Crédito Especial - Crédito Industrial Gijónés - La Polar (<i>asegurua</i>) - Crédit Basque
SIDERURGIA	TRENBIDEA		BESTELAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Cía. Siderúrgica del Mediterráneo: 	<ul style="list-style-type: none"> - Cía. Ferrocarriles del Norte de España (→FC Bilbao Portugalete) (→FC Central de Aragón) (→Ferrocarriles del Oeste) (→FC Logroño Pamplona) (→Minas de Barruelo, Palencia, <i>harrikatza</i>) - MZA - Ferrocarriles Vascongados 		<ul style="list-style-type: none"> - Gran Hotel Carlton - Editorial Vasca

- Cía. Siderúrgica del Mediterráneo: 1900ean Ramon de la Sotak Compañía Minera de Sierra Menera (CMSM) sortu zuen, Teruelgo Ojos Negros burdin hobia ustiatzeko asmoz. Minerala esportatzeko kanpoko erakundeen esku ez zegoen itsasorako irteera bat aurkitzeko beharrak eraginda, Valentzian Sagunto aukeratu eta bertan portu bat eraikitza ermana zuen.

Lehen Mundu Gerra, 1914-1918

- Espainia gerra hastean neutralitatea aldarrikatu zuen: aliadofiloak eta germanofiloak
- Ondorio ekonomiko nagusiak kanpo merkataritzaren bitartez jasango dira
- Zenbait manufakturen kanpo eskaria handitu zen
- Lehen atzerrian erosten ziren zenbait produktuen eskaintza gutxitu
- Gerran ari ziren herrialdeek tradizionalki erosten zituzten zenbait produktuen eskariak behera eta produktu merkeen garraioaren kostua erlatiboki garestitu zen.

- Sektore gehienetan ekoizpena eta irabaziak handitu egin ziren, produktibitatea aldiz egonkor
 - Nekazaritza
 - Burdinaren eta harriatzaren meatzaritza
 - Manufakturen industria: Metalurgia, Oihalgintza, kimika, makineria...
 - Itsas-garraioa
 - Banka
- Halere zenbait sektore kaltetuak suertatu ziren

1917ko Industriaren babeserako legea

- Helburua: Gerran zehar sortutako enpresek eta jarduerak gerraostean irauten laguntzea
- Estatuak hiru laguntza mota eskaintzen zituen:
 - Zerga-salbuespenak eta bankuekin harreman bereziak
 - Maileguak
 - Gutxieneko interesaren bermea inbertitutako kapitalari
- Onuradunak:
 - Industria berriak (1914tik aurrera sortutakoak)
 - Espainiar eskari osoa asetzeko gai ez direnak
 - Gainprodukzioa dutenak eta, ondorioz, esportazio beharra daukatenak
 - Nazioaren defentsarako erabilgarriak diren produktuen ekoizleak
- Sektore bereziki babestuak: ontzigintza, siderurgia, metalurgia, herremintak, nekazaritza-industriak, ongarriak, kimika, oihalgintza, material elektrikoa...
- Baldintzak:
 - Espainiarrak izatea
 - Langileen %80 espainiarra
 - Erabilitako lehengaiak eta makineria espainiarra izatea (salbuespen teknikoak salbu)
- Comisión Protectora de la Producción Nacional
- Emaitza kaxkarrak: aurkeztutako 413 eskarietatik 26 baino ez ziren onartuak izan

Gerra osteko krisiak (1919-1923)

Krisi politikoa

- Berrezarpenaren sistemaren egiturazko arazoak
- Batzorde militarrek eta Marokoko arazoa: Annual 1921
- Gizarte arazoak: Pistolerismoa
- Krisi ekonomikoa: Gerraosteko egokitzea
- Neurriak: Cambó mugasaria (1922) eta industria babesteko legedia

Krisi ekonomikoa: Gerraosteko egokitzea

- Gerra ostean nazioarteko krisia, laburra baina Espainian berezikisakona
- Mundu gerran aritu ez arren Marokon bai
- Esportazioen beherapena eta inportazioen igoera:Gerran aritutako herrialdeen industrien berreskurapena eta Atzerritar moneten depreziazioa
- Krisiaren ondorioak:
 - Enpresen desagertpena
 - Bankuen desagertpena
 - Deflazioa
 - Langabeziaren hazkundera, langile mugimendua eta pistolerismoa
 - Industria krisia sektore helduetan: siderurgia, oihalgintza, harrikatza
 - Dibertsifikazioa/produktu berriak ahalmena eta baliabideak zituzten enpresen kasuan.
 - Inportazioak ordezkatzeko zituzten industrien hazkundera: Makineria, material elektrikoa

Gerraren irabaziak

- Gerrak eragindako irabaziak oso handiak izan ziren
- Irabazi horien banaketa oso desorekatua
- Enpresariak lortutako irabaziak handiak izan ziren
- Langileak kaltetuak suertatu ziren hasiera baten: alokairu errealeko beherapena (salbuespenekin)
- Gerra osteko langile mugimenduak egoera hobetzea ekarriko du: 1917ko iraultza, grebak, 8 orduko laneguna...
- Lur-jabeen sarrerak gorantz, hiritar jabeenak beherantz
- Finantza aktiboen jabeen sarrerak beherantz
- Finantza ikuspegi batetik gerran zehar lortutako irabaziei hurrengo erabilpenak eman zitzaizkien:
 - %40 Espainiako Bankuak gordeko dituzten moneta erreserba bezala
 - %30 Atzerritarren eskuetan zeuden aktiboak erostera zuzendu zen: zor publikoa edo enpresak
 - %30 Kapitalen esportazioa debekatuta egonik espekulaziora zuzendu zen. 20ko hamarkadako moneta krisiak galera handiak sortuko dituzten bankuak, Bartzelonakoa eta Terrassakoa kasu, porrot eginez.

Cambó mugasaria,1922 (

- Zenbait arazo konpontzeko mugasari babesa beharrezkotzat hartzen zen
- Industriaren krisia
- Zerga krisia (Marokoko gerrak eragindakoa)

- Kanpo balantzaren desoreka
 - 1920an eta 1921ean tasak igo ziren egoera berriari egokitzeko
 - 1922an mugasari berri bat onartu zen:
 - Ez zuen mugasari egoera orokorra ekarri, kasu batzuetan jaitsi
 - Krisia gehien pairatutako sektoreak oso babestuak: siderurgia eta harrikatza
 - Legediak gobernuari mugasariak negoziatzeko ahalmen handia ematen zion
- 1923an Primo de Riveraren kolpe militarren ondoren, erregimen politiko berria enpresaburuen elkartearen menpe egongo zen (aurreko gobernuek baino menpekotasun handiagoa), erregimenari egonkortasuna, babesa eta legitimazioa emateko funtsezkoa. 1924ko Legea (1917ko Legearen berrargitalpena): Ekonomia Nazionalaren Kontseilua. Lehiakide berriak sartzeko oztopoak, 1926an Industria Ekoizpena Arautzeko Batzordearen bitartez. Beste batzorde askok jarraitu zuten. Oro har, politika ekonomiko berri horrek oso enpresa-lehia txikia eragin zuen (oligopolioa sektore askotan), eta ez zuen lagundu Espainiako industriak nazioartean lehiakorragoak izaten.
- Primo de Riveraren diktadurak 1920ko hamarkadan errepide, trenbide, portu eta urtegietan (nekazaritzarako ura eta industria eta hirietarako elektrizitate hornidura) egindako gastu publikoaren gorakada handia.
 - Estatuaren esku-hartzeak gora egin zuen II. Errepublikan, baina indar nahiko desberdinarekin alderdi sostengatzaileen atxikipen politikoaren arabera: Nekazaritza-erreforma, Lan-erreforma eta Lan-eskubideak. Guztia gorabehera politikoen eta 1930eko hamarkadako krisi ekonomikoaren baitan.

2.3. Banka eta Estatua ekonomian

Primo de Riveraren diktaduraren ekonomia alorreko politika

- Italia faxista diktadurarentzat eredu bat izango da
- Lan publikoak
- Estatuaren esku-hartzea ekonomian:
- Protekzionismo administratiboa: ekoizpenaren kontrola
- Campsa: Compañía Arrendataria del Monopolio de Petróleos
- Administrazio publikoaren eraberritzea: Udalen Estatutua, 1925
- José Calvo Sotelo, Ogasun ministro aipagarriena (1925-1930)

Lan publikoak

- Erregimenarentzako garraio eta komunikazio azpiegituren modernizazioa ezinbestekoa zen etorkizuneko garapena ziurtatzeko
- Estatuak zuzenean sustatutako ekimena lau alorretan:
 - Trenbideak
 - Errepideak
 - Urtegi eta konfederazio hidrografikoak
 - Portuak
- Erakunde Publiko bereziak sortu ziren: Caja Ferroviaria, Konfederazio hidrografikoak (energia+ureztapena), Portuetako Lanen Batzordeak ...
- Banco de Crédito Local
- Ekimen gehienek aurreikusitako helburuak ez zituzten bete, finantzaketa nahikorik ez.
- Zenbait sektorerentzat oso onuragarria: porlana eta eraikuntza materiala, siderurgia, harrikatza, elektrizitatea edo trenbide materiala.
- Historialariek garai baten uste zutena baino garrantzia txikiagoa ekonomia hazkunderan

Protektionismo administratiboa

- Industria babesteko dekretu berria (1924): espainiar enpresentzako dirulaguntzak, desgrabazioak eta kontratu publikoak
- Consejo Regulador de la Producción Nacional
- Ekoizpena antolatzeko eta arautzeko ahalmena zeukan erakundea
- Comité Regulador de la Producción Industrial (1926)
- Merkatuan sartzeko hesiak ezartzeko betebeharra
- Edozein enpresa sortzeko, handitzeko edo lekuz-aldatzeko gobernuaren baimena ezinbestekoa zen
- Bankan ere aplikatuko da
- Gain produkzioa eta lehiaren kalteak ekiditea bilatzen zuen

Campsa: Compañía Arrendataria del Monopolio de Petróleos S.A.

- 1928an petrolioaren monopolioa ezarri zen Espainian, Calvo Soteloren aginduz
- Helburuak:
 - Estatuaren sarrerak handitzea
 - Hornikuntza ziurtatu, barne merkaturaketa nazionalizatuz eta petrolio putzuakatzerrian erosiz
 - Espainiar industria bultzatzeko politika: birfindegiak, petrolio bilaketa eta untzigintza
 - Merkatu pribatua oligopolio bat izanik, atzerritarrek jasotako gainprezioa espainiar gobernuak eskuratzea

- Nazioarte mailan arazoak sortuko dizkio diktadurari
- Merkaturaketaren irabaziak lortu zituen, baina industriarentzako onurak ez ziren epe laburrean lortu

Diktadura garaiko hazkundearen ezaugarriak

- BPGren urteroko % 4,1eko hazkundera
- BPG per capita urteroko % 3,2ko hazkundera
- Inbertsioaren hazkundera
- Nekazaritzaren hazkunde motela (% 1,6 urtero), mediterranean produktuen kasuan ezik
- Oinarrizko industriaren hazkunde erlatiboki garrantzitsua (% 5,5 urtero)

Industriaren egiturazko aldaketa

- Espainiar industria egituraren aldaketa. Faktoreak
 - Gerraostearen berreskurapena eta inbertsioa
 - Etxebizitzaren eraikuntzaren hazkundera
 - Elektrifikazioa (energia gehiago eta teknologia berriak)
 - Zenbait sektoreren eta industria barrutien metatze ekonomiak, inportazioen ordezkapenera zuzenduak
 - Gobernuaren inbertsio publikoen programa

Bankaren berrantolaketa

1917tik aurrera Banka pribatua, Espainiako Bankua eta Ogasunaren arteko harreman estuagoak

- Zor publikoaren pignorazio automatikoa: likidezia
- Espainiako Bankuaren maileguak interes berezietan
- Bankaren Ordenatze legea (1921)
 - Espainiako Bankua eta Banka pribatuaren arteko harremanak arautu eta bakoitzaren funtzioak ezarri
 - Espainiako Bankua benetako banku zentral bihurtu
 - Bankaren Kontseilu Nagusia erakundera sortu banka pribatua kontrolatzeko

Banka eta industria


- Euskal bankuak dira industria presentzia handiena dutenak
- Madrilgo bankuek gero eta garrantzia handiagoa hartuko dute 1920ko hamarkadan
- Bankak industrian daukan garrantzia atzeratutako ekonomietan ohikoa den kapitalen eskasiaren ondorioa da
- Sektore batzuetan nagusi: Ontziolak, Trenbideak, Siderurgia

2.4. Nazioarteratzea eta ekonomia koiuntura

30. Hamarkadako krisia Espainian

- Krisiak islada handien kanpo merkataritzan eta inbertsioan
- Esportazioak behera
- Sektore esportatzaileen arazoak beste sektoreetara hedatu
- Inportazioak behera
- Merkataritza balantzaren eta pagamendu balantzaren defizita
- Inbertsio publikoa mantendu arren, inbertsio pribatuaren beherakada handia izan zen
- Industriaren ekoizpenaren beherakada
- Halere BPGa eta BPG p/c ez ziren erori

Espainiako BPG-ren indizea, 1910-1958
(1950=100)



Industria ekoizpenaren indizea, 1910-1959
(1950=100)



- Espainian nazioarteko depresioaren eragina mugatua izan zen, krisia egon bazen ere, hau hein handi batean barne faktoreen ondorio.
- Espainiar krisiaren berezko arazoak:
 - Enpresari asko erregimen aldaketaren aurkakoak
 - Lurjabe handiak espropiatuak izatearen beldur
 - Banka nazionalizazioaren beldur
 - Kapital ihesa eta bere ondoriozko krisi ekonomikoa
 - Primo de Riveraren garaiko proiektuen ondorioak
- Zenbait aldagaien portaera positiboa
 - Alokairuak igo egin ziren gobernuaren politikaren ondorioz
 - Alokairu igoerak kontsumoa bultzatu zuen, edo beherapena gelditu
 - Sektore esportatzaileetan langabezia egon arren eskari agregatuaren maila egonkor
 - Barne merkatuarekin loturiko nekazaritzaren eskaria igo
- Erregimen politikoaren ezegonkortasunak berreskurapena atzeratu egin zuen
- Enpresarien eta inbertitzaileen konfiantza falta. Gobernuaren aurkako jarrera

Krisiaren aurkako politikak

- Gobernuaren neurrien ondorioen balorazioa ez dago argi
- Kanbio eta moneta politika
 - Urre patrioiaren araei jarraitu
 - Pezetaren depreziazioaren aurkako politika
 - Kanbioen kontrola (kontingenteak eta clearing eragiketak)
 - Kapitalak erakartzeko neurriak baina ez ziren heldu
 - Ekonomiarentzat ondorio kaltegarriak
- Lan-politika berritzaileak
 - Gutxieneko alokairua
 - Gehienezko lanaldiaren ezarpena
 - Batzorde mistoak lan-legearen ikuskaritzarako
 - Industriako langileek enpresen kudeaketan parte hartzeko proiektua
 - Nekazaritzako langabeziaren aurka: lekuko langileak lehenestea, lan poltsak eta sindikatuek ezarritako zerrendak, makineria erabiltzeko debekua langileak langabezian egonez gero...
- Politika fiskala
 - Diktadurak hartutako politika hedakorren biderei jarraitu zioten
 - Gastu publikoak gorantz
 - Zerga zama ez zen handitu: defizitaren areagotzea eta zor publikoaren jaulkipena
 - Inbertsio publikoaren hazkundera
 - Sektore publikoaren pisu txikiak politika antizikliko hauen arrakasta mugatu zuen

II. Errepublikaren ogasuna

- Hasierako urteetan aurrekonturen bat onartua izan zen arren (1932 eta 1933), ez-egonkortasun politikoak gehienetan aurreko aurrekontuaren luzapena ekarriko du
- Hortik aurrerako aurrekontuak ez dira, beraz, plangintza baten ondorio bat izango, aurrekoari egindako gehikuntzak edo eraldaketak baizik

Zerga erreforma saiakerak

- Biurteko errepublikar-sozialista (Jaume Carner):
 - Zuzeneko zergen eraldaketa: klase defavoratuenean alde
 - Zeharkako zergen erreforma: zenbait industria babestu eta sektore esportatzaileak bultzatu
 - Errentaren gaineko zerga osagarria
- Biurteko eskuindarra gastuaren kontrol handiagoak eta bilketaren hazkundera defizita murriztu egin zuten (1935ean batez ere)

- Proyecto de ley de Autorizaciones al Gobierno con la finalidad de restringir los gastos del Estado
- Joaquín Chapaprietaren zerga erreforma saiakera

Gizartea eraldatzeko politikak

•Gobernu ezkertiarra gizartea eraldatzeko zenbait politika aplikatzen saiatu zen:

- Emakumeen bozkatzeko eskubidea
- Erlijioa eta Estatu eta Elizaren arteko lotura apurtu
- Ejertzitza
- Hezkuntza sistema
- Autonomiak
- Nekazaritza-erreforma

•Neurri hauen inguruan sekulako eztabaidak eta gatazkak sortu ziren, gerra piztuko zuen egonezaren jatorri izan ziren neurri handi baten

Errepublikara garaiako gastu politikaren ezaugarri nagusiak

• Biurteko errepublikar-sozialista gobernuek gastu politika hedakorra bultzatzeko arazo gutxiago izango dituzte (urteroko %7,1-eko hazkundeak 1931-33an, eta %0,7 1934-35ean)

• Biurteko eskuindarrean gastuaren kontrol handiagoak eta bilketaren hazkundeak defizita murriztu zuten (1935ean batez ere)

•Orokorrean, gobernu mota bakoitzaren ñabardurak onartuta, Errepublikaren gastu politika hedakorra izan zen

•Gastuaren hazkundearen onuradun nagusiak herri-lanak eta heziketa publikoa izango dira

•Trenbideari eta errepedeei zuzendutako gastua asko handitu zen,

- Langabeziaren arazoa leuntzeko asmoz.
- Azpiegitura horiek hobetzeko helburarekin.

•Azpiegitura hidraulikoetan ere inbertitu zen: espainiar urtegien ahalmena laukoiztu zen

•Hezkuntza Errepublikaren lehentasunetako bat izango da eta eliz-ikastetxeek utzitako hutsunea ere bete beharra zegoen, eskola eta irakasle kopurua handitu egin zen

•Hezkuntzan eginiko gastua hazkorra izango da orokorrean 1935. urtean izan ezik

• Elizaren finantzaketa aurrekontuetatik desagertuko da, nahiz eta biurteko kontserbadorean itzuli

• Ejertzitzaoren erreformaren ondorioz gastu militarrek behera egingo du, baina aurrezki klase pasiboaren gastu igoerak jango du

Nekazal Arazoa ("el problema agrario")

- Jabe txiki eta ertainak nekazaritzako populazio osoaren 2/3 ziren Espainiako iparraldean eta erdialdean; hegoaldean berriz, 1/3 baino ez. Nekazari katolikoek sindikatuak eta kooperatibak nagusi ziren lehenengoan, eta mugimendu sozialistak eta anarkistak bigarrean.
- Gerald Brenanek ondo adierazi zuen bezala (The Spanish Labyrinth, 1943): "Espainian bi nekazaritza-arazo handi daude: erdialdeko eta iparraldeko ustiategi txikiena, batzuetan eskasegiak baitira lan egiten duten gizonak mantentzeko, eta fabrika baten antzera kudeatzen diren hegoaldeko lursail handiena. Sistema horrek soldatak baxu mantentzen ditu, gosez hil arte, lanik gabe dagoen eskulanaren erreserba izugarrien bidez".

Nekazaritza-erreforma

- Erreforma garaiko eztabaida politikoaren muina izango da
- Erreformaren helburua: latifundio handiak desjabetu, zatitu eta lurrik gabeko nekazarien artean banatzea
- Desjabetzak Frente Popularraren garaipenarekin hasi eta gerran zehar gauzatuko dira
- Neurri ekonomikoa izan arren ondorio praktikoa gutxikoa izango da, baina politikoki garrantzia handikoa

- Erreforma nekazarien eskaera historikoa
- Errepublikaren eta gobernu ezkertiarren etorrerak nekazarien itzaropenak piztu zituen
- Behin-behineko gobernuaren barruan iritzi ezberdinak
- Erreforma proiektua behin eta berriz eraldatu zen, onarpena atzeratuz
- Nekazaritza-Ereformaren Legea 1932ko irailaren 9an onartu zen
- Eskuinak gobernura heltzean prozesua lege berriekin moteldu eta gelditu (hainbat lur latifundistek itzuli)

- Lurrak indemnizazio baten truke desjabetuak izango ziren salbuespen batzuekin
- Instituto de la Reforma Agraria
- Desjabetu zitezkeen lurak:
 - 100-750 Ha bitartekoak, laborearen arabera
 - Garai bateko jaurgoak eta Espainiako Handienak (indemnizazio gabe)
 - Hobetzerik zuten lursailak
 - Herrietatik hurbil zeudenak (erradio baten barruan)
- Helburua: urtero 60.000-75.000 nekazari desjabetutako lurretan kokatzea

•Arazoak:

- Finantzaketa sistema berezirik ez zen ezarri, ohiko sarrerekin ordaindu behar
- Herri askotan banatuta zeuden jabego handiak ez zituen ukitzen
- Larretarako lursailak edo basoak ez ziren kontutan hartzen
- Zenbait kontratu mota ez zituen kontutan hartzen
- Herri inguruetan nekazari txikien zenbait lursail desjabetu zitezkeen arteankokatu ziren (nekazariak erreformaren aurka).
- Nekazaritzaren beste arazo batzuk bigarren mailan geratu ziren
- Alderdi eskuindarrek erreformak zenbait sektoretan sortzen zuen egonezina bultzatu eta politikoki aprobetxatu zuten
- Gobernu erradikal-cedistaren (eskuindarraren) kontraerreforma
- Fronte popularrarekin azelerazioa...

Nekazaritza-erreformaren bilakaera

Nekazaritza-erreformarako institutuari aurrekontuetan esleitutako dirua			
1932			
1933		53.651.500 pzta.	
1934		53.073.750 pzta.	
1935		25.728.375pzta.	
Nekazaritza-erreforma 1932-1934			
	Lursail kopurua	Azalera (Ha.)	Kokatutakoen kop.
Desjabetuak	468	89.133	8.609
Okupatuak	61	27.704	3.651
Guztira	529	113.837	12.260
Nekazaritza-erreforma 1936 (otsaila-ekaina)			
Guztira		232.199	71.919

• Nekazaritza erreforma eta "Nekazaritza arazoa". Gerra Zibilaren arrazoietako bat.

• 1932ko Nekazaritzaren Erreformari Buruzko Legea, 1933ko abendura arte indarrean egon zena, langabezia handiaren eta jornalarien ondoez egoera orokortua konpontzeko (batez ere Hegoaldean). Azaña presidentek esan zuen bezala, jornalarien

ezingona ez zen mugimendu komunisten ondorio izan, gosearena baizik. Hala ere, eremu txiki bat baino ez zen desjabetu (latifundio eremu osoaren % 1 baino gutxiago eta desjabetzeak ordainduz), nahiz eta hegoaldeko nekazarien soldatak eta lan-baldintzak apur bat hobetu zituen.

• Anarkistek matxinadarako deia egin zuten 1933an: Casas Viejas-eko Matxinada (Cadiz), 1933: 19 gizon, 2 emakume eta haur bat hil ziren; eta 3 Guardia Zibil. Gertaera hauek gobernuaren erorketa eragin zuten.

• Gobernu eskuindar berriak bertan behera utzi zuen Nekazal Erreforma eta desjabetutako lur batzuk lehengo jabeei itzuli zizkien.

• Frente Popularraren Gobernuak (1936), Nekazal Erreformari beste bultzada bat eman zion. Jornalarien ezingona nabaria zen eta Extremaduran lur-okupazioak eman ziren.

• 1936ko uztailaren 17-18ko Estatu Kolpe eta ondorengo Gerra Zibilak, lur-jabe handien babesak izan zuten.

3. GAIA: Gerra Zibila eta Autarkia (1936-1959) I


3.1. Gerra, esku-hartzea eta isolamendua

Gerra zibila (1936-1939)

Espainiar gerra zibila 1936ko uztailaren 17-18an hasi zen zenbait militar espainiar gobernuaren aurka altxatu zirenean, Falangeren, Karlisten, tradizionalisten, monarkikoen eta bestelako eskuindar indarren laguntzarekin

Estatu kolpeak ez zuen leku guztietan arrakastarik izan eta, ondorioz, estatu kolpeak gerra bati hasiera eman zion eta Espainian bi gobernu egongo dira

- Gobernu errepublikarra, Madriletik Valentziara lekuz aldatuko dena
- Gobernu nazionala, Burgosen edukiko duena egoitza



Merkatuaren integrazioaren haustura

- Ekonomiaren funtzionamendua hankaz gora: eskualdekako espezializazioa, merkataritza harremanak, salmenta guneak, komunikazioak etab.
- Gerra ekonomia eredu desberdinak
- Gune bakoitzak eredu ekonomiko desberdina izango du, bere monetarekin, ekonomia politikarekin eta ogasun sistema propioarekin
- Gerraren bilakaerak eta agintarien ideologiak aplikatutako politikak baldintzatuko dituzte
- Errepublikarrak ez ziren frankistak bezain eraginkorrak izan (helburu ekonomiko eta prioritate desberdinak errepublikar aldean)

Espainia frankistak zituen abantailak

- Militarren organizazioa bere alde: ofizial gehienak altxamenduaren aldekoak, ejertzito biak kopuruaz antzekoak izan arren mando banaketa desparekoa
- Nekazaritza gune garrantzitsuenak hasieratik frankisten eskuetan
- Enpresari gehienak frankisten eskualdeetan zeuden edo hara ihes egin zuten: baliabide ekonomikoak, ezagutzak eta kontaktuak
- Potentzia faxisten laguntza hasieratik: Portugal, Italia eta Alemania
- Baita beren aldekoa izan zen Ez Esku Hartzeko Hitzarmena

Potentzia faxisten laguntza

Italia: Gerra-hornidurak, lehengaiak eta kreditua eman zizkion gobernu nazionalari, ordainketak gerra amaitu arte atzeratuz

Alemania: Diru-laguntzak, salgaiak eta hornidurak hiru bide erabiliz

- Estatutik estatura eginiko zuzeneko bidalketak
- Alemaniar industriak espainiar ejertzitoari eginiko salmenta zuzenak: HISMA-ROWAK eredua
- Merkataritza arruntaren bidezko

HISMA-ROWAK

- Hispano-Marokkanische Transport-Aktiengesellschaft, HISMA) 1936ko uztailearen 31n Espainiako Gerra Zibilaren hasieran Tetuanen sortutako enpresa mamua izan zen.
- HISMAren jatorrizko helburua boluntarioen eta materialen lehen bidalketei itxura pribatua ematea zen, baita Alemaniako enpresei horniduren erosketa antolatzea ere.
- Alemaniako agintarien artean laster sortu zen altxatutako Espainiaren zorra ordaintzeko beharra, laguntza ez baitzen ez mugatua ez laburra izango.
- Altxatuek ez dute urre-erreserbarik, ezta moneta-dibisarik ere; hori dela eta, alemaniarrekin zuten zorra lehentasunezko tratu ekonomiko baten bidez ordaintzea adostu zen.
- Industria eta nekazaritza-ustiategiak ezartzeko eta merkataritza-jarduerak garatzeko erraztasunak emanaz alemaniarrei.
- 1936ko urrian sortutako ROWAK erakundea izango zen jarduera horiek kudeatzeaz eta, horrela, HISMAk sortutako zorra konpentsatzeaz arduratuko zena.

Nazionalen ekonomia politika

- Esku-hartze handiko politika
- Ekoizpenaren, banaketaren eta kanpo merkataritzaren kontrol zentralizatu eta zorrotza
- Ondasun estrategikoen ekoizpena handitzea lortu zuten
- Moneta politika zuhurra: inflazio txikiagoa eta pezetaren nazioarteko kotizazio egonkorragoa (%27,7ko depreziazioa)

Errepublikaren hasierako egoera

- Hasierako baliabide ekonomikoak handiagoak
 - Hiritar populazioaren gehiengoa
 - Ia industria osoa
 - Ia esportazio-nekazaritza osoa
 - Espainiako Bankuaren urre erreserbak
 - Espainiako nazio-aurrezkiaren zati handi bat

- Baliabide ugari izan arren ez zituen eraginkorki erabili
- Errepublikaren aldekoentzako gerra irabaztea ez zen helburu bakarra izango: ekonomia ez-kapitalista bat eraikitzea eta gizarte iraultza bat burutzea lehenetsiko dute zenbaitetan

Errepublikaren ekonomia politika

- Ezarri beharreko sistema ekonomikoaren, gerra irabazi eta gizartea iraultzeko hiru ikuspegi nagusi eta ezberdin
- Liberal progresista: sistema ekonomikoa ez zuten aldatu nahi
- Anarkosindikalista edo libertarioa: Estatuaren abolizioaren eta berehalako iraultzaren aldekoak
- Sozialista-marxista: industria eta finantzen nazionalizazioa eta Estatuaren indartzea ekonomiaren plangintzan eta zuzendaritzan
- Azken bietan alderdi eta sindikatu ugari zeuden ideologia ezberdin eta kontrajarriak
- Alderdien arteko gatazkek eragin kaltegarria ekonomiaren antolakuntzan eta arlo militarrean
- Errepublikaren porrota azaltzen duten beste faktore batzuk:
 - Enpresarien galera edo ihesa (enpresen kudeaketa txarra, kapital galera...)
 - Lehengaien, elikagaien eta armen hornidurarentzako zailtasunak
 - Merkataritza-flota gehiena izan arren itsas garraioaren zailtasunak, Euskadiko Katalunia edo Valentzia bezalako ekonomiak estutu
 - Errepublika urrutiko eskualdetan banatuta
 - Frontearen hurbiltasunak industriaren funtzionamendua oztopatu zuen (Euskadiren kasuan)
 - Iparraldeko frontearen galera (1937an).
- Politika ekonomiko zentralizatu bat aurrera eramateko zailtasunak
 - Autonomiak
 - Zenbait alderdik gobernuaren zilegitasuna kolokan jartzen zuten: lantegien, meatzeen, lursailen eta udalen kontrola
- Moneta politika
 - Gobernu autonomikoek euren moneta propioa jaulki zuten
 - Udalek ere jaulkipenak egin zituzten
 - Moneta eskaintza izugarria (x3): hiperinflazioa
 - Errepublikar pezetaren depreziazioa: %97,6 erori 1938ko amaierarako

Kolektibizazioa

- Langileek lantegien eta lursailen kontrola hartu zuten
 - Jabeek alde egin zutelako
 - Sindikatu edo alderdi erradikalek bultzatuta
- Lekuaren arabera honen garrantzia ezberdina

- Katalunian eta Asturiasen industria osoa
- Euzkadiko gobernuaren lurraldeetan ez
- Aragoien nekazal lurraldeen %75a eta Katalunian %10

• Ondorioak:

- Langileen batzordeen kudeaketa gaitasun urriaren ondorioz ekoizpena ahalmenetik behera
- Kolektibizatutako enpresetako batzordeek ez zuten errepublikar agintarien eskuetan uztea onartzen
- Mobilizazio industrialak gauzatu arren, ekoizpenak behera egin zuen.

Atzerritar potentzien jarrera Errepublikarekiko

- Mendebaldeko demokraziek ez zuten jarrera lagungaririk izan, Errepublikak suposatzen zuen iraultzaren, europar faxismoaren eta beren barne gatazken beldur.
- Itxurazko neutraltasuna aitzaki ez zuten inolako laguntzarik eskaini: ez armarik ez krediturik
- Ez Esku Hartzeko Hitzarmena
- Sobietar Batasuna eta Espainiako Bankuaren urrea

Zerealen ekoizpena Espainian, 1936-1938 (Qm)

	Eskualde frankista			Eskualde errepublikarra		
	1936	1937	1938	1936	1937	1938
Garia	15.527.100	21.175.600	19.308.200	12.583.384	9.643.280	8.000.000
Garagarra	7.595.200	9.841.900	7.377.300	8.778.610	7.884.944	7.000.000
Zekalea	3.397.200	4.524.500	3.417.400	565.030	489.903	400.000
Oloa	2.437.230	3.599.070	3.195.620	1.944.248	1.483.654	1.300.000
Artoa	4.410.600	5.268.400	4.390.950	1.484.310	1.196.618	d.g.

d.g. - daturik gabe

Errepublikaren nekazaritza-espportazioak (1937-1938)

	1931-35 batez bestekoa	1937	1938 (urt-eka)
Ardo arrunta (Hl.)	1.442.092	215.764	10.075
Oliba olio (Qm)	628.883	80.317	9.829
Laranja (Qm)	8.598.094	4.573.985	1.649.706
Almendrak (Qm)	242.481	46.752	16.450
Kipulak (Qm)	1.098.037	302.704	57.518
Limoia (Qm)	181.176	214.342	119.776
Patatak (Qm)	1.057.982	91.292	82.042
Mahats freskoak (Qm)	484.799	126.357	-
Urrak (Qm)	94.364	28.041	1.587
Piper ehotua (Qm)	61.514	27.697	4.371

Gerrak industrian izandako eraginaren arabeko ranking-a


Faboragarria		Zehaztugabea		Desfaboragarria	
Gipuzkoa	1	Avila	18	Kordoba	34
Sevilla	1	Palentzia	19	Girona	35
Pontevedra	3	Santander	20	Tenerife	36
Araba	4	Lugo	21	Alacant	37
Kadiz	5	Soria	22	Toledo	38
Salamanca	6	Las Palmas	23	Barcelona	39
Segovia	7	Caceres	24	Murtzia	40
Cuenca	8	Valladolid	25	Tarragona	40
Burgos	9	Zamora	25	Huesca	42
Nafarroa	9	Granada	27	Jaen	43
Bizkaia	11	Badajoz	28	Albacete	44
Coruña	12	Oviedo	29	Castello	45
Balears	13	Ciudad Real	30	Almeria	46
Logroño	14	Valentzia	31	Lleida	47
Orense	15	Malaga	32	Guadalajara	48
Huelva	16	Leon	33	Madri	49
Zaragoza	16			Teruel	50

Arma inportazioak (milioiak)

		Dibisa nazionala	Dolarrak
Errepublikako gobernuak	Sobietar batasuna	-	171,40
	Bestelakoak	-	102,0
Agintari frankistak	Alemania	382,73 RM	154,33
	Italia	3.627 lira	195,32
Guztira	-	-	623,05

3.2. Berrogeiko hamarkadako nekazaritza eta elikadura krisia

Jaiotze, Heriotz eta Berezko hazkunde tasak Espainian, 1920-198



Giza galerek garrantzia handia izan zuten. Errepresioa (exekuzioak eta presoak), erbesteratuak eta purgak kontuan hartuta, Espainiako biztanleria aktiboaren % 10 inguruko galera. Langile kualifikatuen, zerbitzari publikoen eta unibertsitate-hezkuntza zuten profesionalen ehuneko erlatibo altuagoak, horrek zekartzan ondorioekin.

Gerrak eragindako suntsipen fisikoak Espainian eta Bigarren Mundu Gerran (%)

Espainiako ekonomiaren aldaketa globala 1935-1939 artean. Oinarri urtea 1929=100

	1935	1939	Jaiotsiera (%)
Nekazal ekoizpena	97,3	76,7	21,2
Industria ekoizpena	103,3	72,6	31,0
Errenta nazionala (1929ko pezetak)	25,3	18,8	25,7
Errenta per capita (1929ko pezetak)	1.033	740	28,3

	Hasierako stock-arekiko kalketuriko materiala				Elektrizitate ekoizpenaren erorketa
	Lokomotorak	Bagoiak	Itsas-merkataritza flota	Instalaturiko potentzia elektrikoa	
Espainia	34	40	23	0,3	16
Frantzia	76	65	73	2,8	27
Grezia	82	91	73	3,1	56
Italia	50	57	76	5,4	26

	Ganaduaeren beharpen portzentzia		Suntsitutako etxebiltzen %	Populazioarekiko heriotzen portzentzia	
	Zaldiak	Bihazazenda		Osoarekiko	Aktiboarekiko
Espainia	26	10	0,5/4,0	1,1/1,5	2,7/4,0
Frantzia	25	11	8	1,4	3,1
Grezia	39	49	21	7	18,9
Italia	32	14	5	0,9	2,2

Gerra-osteko ondorioak

- Erregimen berri bat (diktadura faxista 1940ko hamarkadan): politika ekonomiko eta sozial berriak.
- Irabazleak: lurjabeak eta enpresaburuak.
- Galtzaileak: Landa eremuko langileak (Errepublika garaian eman zitzaizkien eta gerra garaian okupatu zituzten lurrak galdu zituzten) eta langileak (haien eskubideak eta sindikatuak indargabetu eta debekatu egin zituzten). "Gerra-egoera" (gerra-legea) 1948. urtera arte egon zen indarrean.
- Errepresio soziala eta politikoa: erbetea, espetxeratzea, exekuzioak, espetxe-lana, purgaketak politikoak, beldurra eta miseria (La Colmena, C. J. Cela, 1945-46). Diktadura, ageriko buru baten pean (Franco), botere guztia eta alderdi politiko bakarra (Falange) biltzen zituena, eta afiliatuek administrazio publikoko kargu gehienak betetzen zituztena.

- Soldata errealkak jaitzi egin ziren kontrolatutako soldata nominalen eta kontrolik gabeko inflazioaren konbinazioaren ondorioz (urteko inflazio-tasa 1940-1951 artean, % 11,3). 1940ko hamarkadan, soldatak gerra aurretik baino % 40 eta % 50 txikiagoak ziren.
- Kontsumo pribatuak behera egin zuen (elikagaiak eta kontsumo-ondasunak). Goseak landara mugitu zituen hiriko langileak janari bila.
- Enpresen irabaziak izugarri igo ziren hasiera batean.
- Trenbideak nazionalizatzea Estatuaren kontura (banku pribatuek diru-kopuru izugarria jaso zuten).
- Kolpe militarra babestu zuten enpresari batzuek Espainian zeuden atzerriko enpresak erosi zituzten saldo prezioan (Juan March), estatuaren laguntzari esker.
- Irabazleen aldeko zerga-politika (errentaren eta jabetzaren gaineko zerga-maila oso txikiak).
- Eskolatzeko tasak behera egin zuen (25 urte behar izan ziren 1930eko hamarkada hasierako tasetara itzultzeko)
- Politika ekonomikoa: Estatuaren esku-hartzea eta autarkia

Gerra-osteko ondorio ekonomikoak

- Lan errenten hondorapenak berreskurapen ekonomikoa atzeratuko du
- Kontsumo agregatua beheratzeaz gain, eskariaren berregituraketa ere bai
- Kontsumo orokorreko produktu manufakturatuen kontsumoa erori zen
- Oinarrizko ondasunen (elikagaiak, etxebizitza...) behar handia, baina...
- Luxuzko ondasun eta zerbitzuen kontsumoak gorantz
- Produktibitatea beheratu zen, bereziki industriarena
- Industria-produktuen eskariaren beherapena
- Lanaren erabilpen intentsiboago baten aldeko pizgarriak (soldata baxuak eta makinak inportatzeko zailtasunak)

Gerra-osteko ondorioak

- Nekazaritza-populazio aktiboa gorantz
- Nekazaritza-kapitala beherantz (lanerako ganadu gutxi, makineriarik ez, ongari (natural/kimiko) gutxi...)
- Lanaren eta lurraren produktibitateen hondorapena
- Eguraldi aldaketekiko menpekotasuna handitu
- Eskariaren egituraren aldaketak aurreko hamarkadetan espainiar nekazaritza nazio eta kanpo-merkatuetara egokitzeko egindako esfortzuak eta inbertsioak zapuztu

Gerra-osteko ondorioak: Teknika zaharkituen berreskurapena

- Lehen industria iraultzarekin loturiko tekniken berreskurapena eta indartzea
- Petrolioaren eta elektrizitatearen eskasiak harrikatzaren erabilpena sustatu
- Energia iturri bitxiak ere bai: fruitu lehorren oskolak adibidez.
- Autoen eta kamioien eskasiak garraio eskaria trenbiderantz bideratu zuen:
 - Trenbide garraioa gorantz
 - Sarearen berreraikuntza geldoa
 - Garraio zerbitzuen kalitate kaxkarra (istripu eta atzerapen ugari)

Gerra-osteko ondorioak: Enpresa-irabazien hazkundera

- Erregimen berrian enpresariak beldurtutako langileria merkea izango dute eskuragarri
- Lan-kostuen beherapenaren bitartez irabaziak gorantz
- Hasieran itxaropen handiak (elkarteen sorrera), baina ez ziren bete
- Ez zen Bigarren Mundu Gerra lehenengoa bezala aprobetxatu

Estatuaren papera gerra-osteko ekonomian

- Kanpo-zorra berehala ordainduko da (Bigarren Mundu Gerrak lagundu)
- Barne zorraren zama inflazioak gutxituko du
- Inflazioa kontrolatzeko arazoak (ekonomiaren funtzionamenduaren gaineko ezagupen txikia)
- Gastu publiko altuak defizita areagotu zuen: ejertzitua mobilizatua egongo da gerra hotza hasi arte 1947/8 (gastu izugarria)
- Finantzaketa zerga berriekin eta zor publikoarekin

- Bigarren mundu gerra ostean zor publikoaren pignorazio automatikoak inflazioa bultzatu zuen
 - Ez zen bereziki altua izan Europarekin konparatuta
 - Oso aldakorra eta prezio erlatiboetan eragin handikoa

- Kolpearen aldeko finantza taldeek onura handiak lortu zituzten
- Atzerritar aktiboen nazionalizazioa
- Juan March bankariak, bestelako mesede batzuen artean, Barcelona Traction enpresa elektrikoa eskuratu zuen
- RENFERen sorrera ekarriko duen trenbidearen nazionalizazio operazioak zenbait bankuri onura handiak ekarriko dizkio

Esku-hartzea merkatuetan

- Gehiegizko esku-hartzea gerra-osteko ekonomia arazoaren erantzule nagusietako bat
- Ekonomiaren ikuspegi militar baten ondorio: merkatuak, agenteak eta prezioak diziplinapean jartzen saiatu
- Oinarrizko ondasunen eskasia bai kontsumitzaileentzat zein ekoizleentzat (autarkiaren eta nazioarteko isolamenduaren eraginez)
- Errenta beherapena:
 - Eskaintza urriak eragindako gehiegizko prezioek eros ahalmena beheratu
 - Ekoizpen ahalmena izan arren material gabezia handia
- Esku-hartzeak bi norabide:
 - Prezioen kontrola
 - Baliabideen esleipena
- Burokrazia aparatu handia sortu zen

Esku-hartzea nekazaritzan

- Nekazariak zenbait laboreen ekoizpena horretaz arduratzen zen erakundeari derrigorrez saldu behar zizkieten erakundeak berak tasatutako prezioan
 - Cupos de entrega obligatoria
 - Servicio Nacional del Trigo, gariaren kasuan
- Erakunde honek ekoizpena ezartzeko ahalmena zeukan: Estatukoa, probintziakoa, udalekoa edo banakakoa
- Prezio ofizialen ezarpenak merkatuan distortsioak sortu zituen
 - Ez ziren kostuak kontutan hartzen
 - Nahita-baxuegi-ezartzen-ziren kontsumitzaileen mesederako

Bilboko txikizkako prezio klandestino eta prezio ofizialen arteko konparaketa, 1943-1945 (%)

	Ogia	Azukrea	Olio	Ehuna	Esne kondentsatua	Xaboi arrunta	Zoparako pasta	Txokolatea	Kafea
1943	800	610	509	480	261	361	100*	250	180
1944	686	415	337	480	197	100*	335	236	181
1945	600	371	536	240	200	350	291	225	154

- Lortutako ondorioek ez zuten helburuekin bat egin, guztiz kontrakoak baizik
 - Prezioa merkatuko orekaren azpian ezartzeak ekoizpenaren beherapena dakar
 - Ekoizpena handitzeko pizgarriak ezabatu egiten dira merkatu ofizialean
 - Ahal izanez gero ekoizleak merkatu ofizialetik at saltzen saiatuko dira: merkatu beltza edo estraperloa
 - Merkaturatutako ekoizpen osoa (ofiziala+beltza) merkatu librekoa baino txikiagoa

Errazionamendua

- Eskaintzaren nahikotasun ezak gobernua kontsumoa arautzera eraman zuen
- Estatuak kontsumitzaile guztiek gutxieneko kopuru batzuk ziurtatua edukitzea nahi zuen (arazoak ekidin eta aldeko iritzia lortzea)
- Errazionamendu kartilak 1951. urtera arte indarrean egon ziren (beste herrialde batzuetan gerra-osteko hiru urteetan baino ez)
- Errazionamendua ekonomia politikaren porrotaren adierazlea
 - Kontsumitzaileak eta ekoizle txikiak galtzaile irten ziren
 - Zenbatek sekulako irabaziak lortu zituzten: ekoizle handiak, bitartekariak etab.
- Kapitalismo espekulatiboaren agerpena

Energia sektorea: Petrolio

- Petrolio eskasia izugarria
- Gerran zehar aliatuen murrizketak Espainiak Alemaniarekin zituen merkataritza harremanen zigorra
- Gerra ostean inportazioak burutzeko zailtasunak (dibisa falta)
- Irtenbidea: ordezkioak bilatu
 - Estatuak ekoizpen sintetikoa bultzatuko du
 - Partikularrek eraginkortasun baxuko ordezkioak erabiliko dituzte: gasogenoak

Energia sektorea: Elektrizitatea

- Petrolioarena baino eskasia handiagoa eta iraupen luzeagokoa
- Gobernuak prezioak 1936ko mailan izoztu zituen
- Energiaren prezio errealean beherapena (%70 1939-1951)
- Ekoizpena handitzeko pizgarririk ez (merkatu beltzaren aukerarik ez)
- Eskariaren hazkundera
 - Kontsumitzaileentzako erlatiboki merkeagoa
 - Energia elektrikoan intentsiboak ziren industriak sustatu zirelako
- Zerbitzuaren ohiko etendurak, industriari kalte handia (ekoizpenaren %15a galdu zela estimatzen da)

Industria esku-hartzea

- Estatuak baliabideen esleipenean ere esku-hartu zuen
- Lehengaien eta ekipo ondasunen esleipenean
 - Kupoak
 - Inportazio baimenak
 - Enpresen ekoizpen ahalmena Estatuaren erabakien menpe


- Estatuaren helburua: estrategikoak ziren sektoreak bultzatzea auto-nahikotasunaren ikuspegitik
 - Inbertsio pribatuaren arautzea
 - Enpresa-sektore publikoaren sorrera (3.4. puntuan)
- Inbertsio pribatuaren arautzea
 - Inbertsio ekimenaren kontrolean gobernuak erabakitze-ahalmen osoa
 - Ekonomia-arrazionaltasuna ez zen bere xedea izan
 - Enpresarien kontaktu politikoek pisu handia azken erabakian
 - Zenbait eskualde kaltetu (Katalunia) eta beste batzuk saritu (Gaztela)
 - Sektorekako diskriminazioak ere bai
 - Eraginkortasunik gabeko baliabideen esleipena
 - Italiar faxismoaren eta gerra garaiko eskualde frankisten aldeko eredu jarraipena

3.3. Inportazioen ordezkapena eta industrializazioa

Autarkia

- Gerra-osteko kanpo merkataritzaren datuak negargarriak dira
- Inportazioen beherapenak ekonomiaren berreskurapenerako ezinbestekoak ziren lehengaiak eta makineria garestitu zituen
- Inportazio ahalmena elikagaien beharrak ere mugatu zuen
- Gobernuak armen erosketa lehenetsi zuen (1950. urtera arte)
- Arazorik larriena inportazioak finantzatzeko baliabideen urritasuna:
 - Urre eta dibisa erreserbarik ez (gerran xahututa)
 - Ardatzeko herriei zorrak ordaintzeko beharra
- Egoera orekatzeko bi modu:
 - Kanpo finantzaketa.
 - Kanpo inbertsioa ia debekatua eta autarkiak bultzatutako nazionalizazioek kapital irteera bultzatu, beraz aukera honi uko egin zitzaion.
 - 1945. urtetik aurrera nazioarteko isolamendua. Nazioarteko erakunde berrien diru-laguntzarik ez (argentinar salbuespena)
 - Esportazioak handitzea. Gaitasunik ez:
 - Nekazaritza espezializazioa eta atzerapen teknikoa
 - Aldebikotasuna eta alemaniar lehenespena
 - Kanbio-politika

Espainiako industria ekoizpenaren indize sektorialak
1940-1958 artean (1958=100)



ERRENTA PER CAPITA ETA INDUSTRIA EKOIZPENA

	ERRENTA	INDIZE INDUSTRIALA (Carreras)
1870	75	49
1880	83	67
1890	91	80
1900	100	100
1910	109	122
1920	126	145
1930	143	193
1940	134	184
1950	124	234
1960	187	479
1970	342	1.135
1980	455	1.658

Kanbio-tasa politika

- Pezetaren balioa nazioarteko merkatuetan egonkor mantentzeko egitasmoa
- Herrialde gehienek gerra ostean beren monetak debalatu zituzten esportazioak bultzatzeko
- Espainiak pezetaren gehiegizko balorazio bati eutsi zion
- Dibisen trukearen monopolioa: Instituto Español de Moneda Extranjera
- Dibisen errazionamendua
- 1949-51 biurtekoan espainiar isolamendua leuntzen joango da eta kanpo-sektorearen egoera hobetzen

Espainiar nazioarteko isolamenduaren bukaera

- Koreako gerrak gerra hotzaren "berotzea" suposatu zuen
- Espainia, AEBrentzat, komunismoaren aurkako aliatu fidagarria bihurtu zen
- 1950ean Nazio Batuek espainiar isolamendu diplomatikoari bukaera eman zioten
- Madrileko ituna, 1953
 - Estatubatuar diru-laguntzak
 - Espainiak amerikar baseak ezartzeko baimena
- Diru-laguntza horiekin Espainiak kanpo-merkataritzaren defizitari aurre egin zion
- Inportazioak handitu ziren (ekipo ondasunak, lehengaiak, ongarriak...)
- Esportazioen hazkunderako koiuntura faboragarria
 - Koreako gerrak (1950-53) nazioarteko ekonomiari emandako bultzada
 - Europar ekonomien berreskurapena (Alemania adibidez.)
- Esportazioen hazkundeak dibisen eskuragarritasuna handitu zuen
- Kanbio-tasa anitzen sistema: pezetaren ezkutuko debaluazioa

Esku-hartze politiken leuntzea

- 1951ko gobernu berriak politika ekonomikoa aldatu egingo du
- Helburuak:
 - Nazioarteko egoera berrira egokitzea
 - Aurreko politikaren ukazinezko porrota
- Esku-hartze eta autarkia politikak leunduko dira, baina ez dira bertan behera utziko
 - Inbertsio pribatuaren gaineko kontrola
 - Atzerritar inbertsioaren mugak
 - Dibisen merkatuaren kontrola
- Merkatuen esku-hartze politika leunduko da
- Errazionamendu kartillen (1952) eta lehengaien kupoen ezabapena
- Prezioa kontrolaturik duten produktuak gutxituko dira
- Tasatutako prezioak merkatuko orekatik hurbilago
- Ekoizpena handitu egin zen, prezioak igoera handi baten ondoren egonkortu, eskasia bukatu eta merkatu beltza desagertu ziren

Nekazaritza-politika berria

- Nekazaritza produktu gehienek prezio askatasuna
- Derrigorrezko salmentarako kuoten sistema ezabatuko da
- Modernizazioa bultzatzeko neurriak:
 - Makineria erosteko finantzaketa
 - Lursailen kontzentrazioari bultzada
 - Kolonizazio politika (ureztapenaren hedapenarekin batera)

Energiaren sektorea

- Industria politika berriak eta dibisen eskuragarritasunak energia sektoreari bultzada eman zion
- Elektrizitatearen ekoizpenak sekulako hazkundera (40ko hamarkadan INIk bultzatutako azpiegiturak)
- Enpresa publikoek eraikitako zentral termiko eta hidroeletriko berriak (Endesa, Enher eta Encaso)
- Merkatu elektrikoaren pixkanakako desarautzea
- Eskualde-sareen arteko konexioak eratu ziren defizitak orekatzeko
- Eskaria asko handitu arren murrizketarik gabe erantzuteko arazorik ez (inbertsio handiak)

Inportazioen Ordezkatze Politika

- Autarkiak proposaturiko espainiar baliabideetan soilik oinarritutako industrializazio ereduak porrot egin zuen
- 1951ko politika autarkikoaren leuntzeak Inportazioen Ordezkatze Politikaren hasiera ahalbidetu zuen
- Helburua: Bertoko industria indartsu bat sortuz garapen ekonomikoa lortzea
- Hori lortzeko bitartekoa inportazioak ordezkatzea
- Politikaren oinarriak:
 - Atzerritar produktuen sarrera oztopatu
 - Kapital ondasunen inportazioaren malgutasuna
 - Kanbio-tasen kontrol zorrotza
 - Estatuaren parte-hartze zuzena oinarritzko ondasunen ekoizpenean
- Latindar Amerikan eta Asian aplikatzen ari zen ekonomia politika ereduak
- Barne merkatu handia izanik hasierako urteetan hazkunde garrantzitsua
- Politika hauen arrakastaren iraupen laburra
 - Inflazioa: moneta eskaintzaren gehiegizko hazkundea
 - Merkataritza Balantzaren defizita

Inportazioen Ordezkatze industrializazioaren emaitzak (1941-1958)

Urteak	Ekoizpen nazionalaren parte-hartzea (%)			
	Kontsumo ondasunak	Bitarteko ondasunak	Ekipo ondasunak	Guztira
1941	77,1	77,9	32,7	73,7
1951	79,7	81,4	47,3	76,5
1958	94,4	82,4	70,6	86,0
Epeak	IOI-k ekoizpenaren hazkundeari eginiko ekarpena (%)			
1941-1951	75,2	69,9	49,0	
1951-1958	60,2	24,4	106,4	

50ko hamarkadako hazkunde eta egiturazko aldaketa

- Espainiar ekonomiaren joera aldaketa
- Hazkunde ez zen europar beste herrialdeekoenaren parekoa izan
- Inbertsioaren hazkundea
- Kontsumo pribatuaren hazkundea
- Manufakturatutako produktuen eskariaren hazkundea
- Industriaren pisuaren hazkundea espainiar ekonomian
- Nekazaritza-produktibitatearen hazkundea

3.4. Enpresa-sektore publikoa

Sektore publiko ekintzaile indartsua baina eraginkortasun txikikoa

Industrializazioa (batez ere industria astuna) izan zen berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetako gobernu frankisten helburu nagusia (garapen ekonomikoaren eta botere militarren giltzarri).

Estatuaren esku-hartze zuzena justifikatzeko, ekimen pribatua ez dela hori lortzeko gai dioen argudioa erabiliko da (interes pribatuak, ez nazionalak). Hiru oinarri legislatibo:

- 1939ko urriaren 24ko "Interes nazionaleko" industria berriak babesteko Legea: "Interes nazionaleko" industria guztiek eskatu ahalako onurak jasoko zituzten (inportazio-lizentziak, kupoiak, lur merkeak, zerga-pribilegioak...)
- 1939ko azaroaren 24ko Industria arautu eta defendatzeko Legea: Enpresa-ekimena arautzea sektore guztietan (edo zertarako beharrezkoak diren estatu-baimenak)
- 1941eko irailaren 25ean, Industria Institutu Nazionala (INI) sortu zen

Merkatuan sartzeko oztopo handiak eta lehiarik eza. Gobernuak askatasun osoa, kanpoko kontrolik eza: ustelkeria handia.

Administrazio publikoan kontaktu hobeak zituzten enpresaburuek irabazi horiek jaso zituzten. Errazagoa zen Francoren Espainian negozio on bat egitea enpresa on bat zuzentzea baino (pizgarri kaltegarriak, hazkunde ekonomikoari eta produktibitateari laguntzen ez diotenak).

INI sektore pribatuaren "ezintasunari" aurre egiteko. Erakunde publiko autonomoa izango da. Lehendakaritza Ministerioaren mendekoa, eta 1963ra arte Juan A. Suanzes izan zuen buru, itsas ingeniari eta Armadako ofiziala, Francoren eta haren familiaren lagun mina, ekimen pribatua "gaitz" gisa ikusten zuena (literalki).

INI estatuko enpresen holding gisa (Enpresa Nazionala), nahiz eta kasu batzuetan kapital pribatuak partaidetza minoritarioa izan.

INiko enpresei, guztiak ere interes nazionalekoak, laguntza ugari eman zitzaizkien (kapital merkea, lehengaien kupoiak, inportazio-lizentziak, etab.).

Espainiako gobernuak finantzatu zituen, Espainiako Bankuaren maileguak ere jaso zituzten, eta Estatuak beste mailegu merke batzuk eman zizkien.

INI Espainiako gobernuarentzat estrategikoak ziren sektoreetan zentratu zen: energia, bitarteko ondasunak eta ekipoak.

1950ean, INIk 40 enpresa bildu zituen. Energia INIren inbertsio guztien % 56 izan zen (ENCASO, ENHER, ENDESA, REPESA), ondoren produktu metalikoak eta ekipo-ondasunak (ENASA, BAZÁN, ENARO), garraioa eta komunikazioak (ELCANO, TORRES QUEVEDO), eta beste asko meatze eta kimika-industrietan.

INI Taldearen enpresa kopurua, 1942-1963: zuzeneko parte-hartzea zuten enpresak

	Osozkoak	Gehiengokoak	Gutxiengokoak	Guztira
1942	2	-	2	4
1945	6	7	6	19
1950	10	16	10	36
1955	12	20	8	40
1960	15	28	13	56
1963	18	29	14	61

Mendebaldeko Europan gertatu ez bezala, INIko enpresak Espainiako enpresa pribatuekin gogor lehiatu ziren berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan, Estatuaren laguntzarekin. Enpresa publiko eta pribatuen arteko lehiaren eta gatazken adibideak (altzairua, ontzigintza, itsas garraioa).

Suanzesen arauari jarraitu zioten: "Prezioa kontuan izan gabe ekoiztea". Enpresa publikoak ez ziren lehiakorrak, ezta prezioan ere. INIko enpresa guztiek galerak zituzten eta haien defizita aurrekontu publikoak estali zuen. Finantzaketa inflazionarioa (INIko enpresen pasibo osoa Espainiako BPGren % 8 zen 1960an).

1960an, Espainiako 15 enpresa handienetatik bost INIkoak ziren (ENSIDESA, ENCASO, BAZÁN, ENDESA eta ENHER). Gainera, Estatuako beste hiru enpresa zeuden (monopolio nazionalak): Renfe, TELEFONICA eta CAMPSA.

INIren boterearen gailurra 1945ean izan zen, INIko presidentea, aldi berean, Industria ministroa zenean. 1950eko hamarkadan INIren eta enpresa pribatuen arteko borrokan, Francoren kabineteko ministro batzuen laguntza izan zuten enpresa pribatuek. Suanzek 1963an dimisioa eman ondoren, INIk beste rol bat bete zuen (ekimen pribatuaren osagarri)

Estatuaren esku-hartzea ere oso handia izan zen banku-sektorean. 1946ko Banku Legearen araudiak de facto nazionalizatu zuen Espainiako Bankua (1962an bete zen benetan), banku berriak sortzea debekatu zuen eta interes-tasa ofizialak oso maila baxuetan finkatu zituen, banku-gordailuek eta beste produktu batzuek zor publikoekin lehiatzerik izan ez zezaten, horrela lehia arautuz.

Estatuak derrigorrezko inbertsio-koefizienteak ere ezarri zituen bankuentzat eta, bereziki, aurrezki-kutxentzat (non inbertitu behar zuten ere adieraziz). Bankuak eta aurrezki-kutxak izan

ziren zor publikoaren erosle nagusiak, eta azkenean Espainiako Bankuak onartu egin zuen, billeteen eta beste mailegu batzuen truke (Espainiako ekonomiaren finantzaketa inflazionarioa).

Francoren gobernuek diru-politika hedakorra (diru merkea) ezarri zuten, eta horren ondorioz, diru-eskaintza asko hazi zen, inflazio handia eraginez.

1957tik aurrera, gobernu berriek aldatu egin zuten inflazioaren finantzaketa-politika hori, billete gehiago jaulkitzeari utzi eta interes-tasak igo zituzten; aldi berean, berriz, murrizketa batzuk egiten hasi ziren gastu publikoan.

Ez dago aldaketa esanguratsurik zerga-politikan. Zerga-ihesa, batez ere zuzeneko zergen esparruan, orokorra izan zen. Espainian zergadunak ziren haiek saihesteko botere politikorik ez zutenak. Zeharkako zergak (zerga bereziak eta aduana-eskubideak) diru-sarrerara publikoen iturri nagusi bihurtu ziren, ondoren, Erabileren Kontribuzioa (kapitalaren eta lanaren gaineko zerga).

Zerga-sistema oraindik ere ez zen nahikoa "Estatu oso pobre" baten gastuak estaltzeko.

1957ko lehen erreforma-saiakera, 1957-1958 urteetako egonkortze-neurrien testuinguruan.

Hala ere, baliabide gutxi izan arren, lehentasun politikoak zeuden: defentsa aurrekontuaren % 39 izan zen 1940 eta 1945 artean; hezkuntza, azpiegitura eta erretiro-pentsioetara zuzenduriko gastu publikoa murriztu egin zen.

Oro har, presio fiskala murriztu egin zen eta BPGren gaineko gastu publikoa gutxitu. 1950ean gastu publikoa BPGren % 8,5ekoa izan zen, Europa mendebaldeko beste herrialde batzuetakoa baino askoz txikiagoa.

Mendebaldeko Europan ongizate-estatu bat Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen bitartean, Espainian hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaiera arte, Franco hil arte, itxaron behar izan zen.

Estatuaren gastua BPGren gainean Europako herrialde batzuetan 1930-1970 (%)

	United Kingdom	Italy	France	Germany	Spain
1930	18.6	24.5	17.8	23.2	9.7
1940	57.8	59.9	24.3	43.6	12.6
1950	33.5	32.3	38.0	21.4	8.5
1960	32.7	27.1	34.1	17.9	10.5
1970	36.4	30.6	30.2	17.0	12.1

Inflexio puntu bat: 1959ko Ekonomia Egonkortzeko Plana

- 1959ko uztaileko egonkortze-plana: autarkiatik kanpora bideratutako garapen ekonomikoko estratergiara igarotzea.
- Nazioarteko testuingurua: liberalizazioa eta nazioarteko lankidetzak ekonomikoa; 1957ko Erromako Ituna: Europako Ekonomia Erkidegoa.
- Testuinguru nazionala: Espainia 1959ko lehen seihilekoan kanpo-ordainketak etetetik gertu (autarkiaren porrota).

- Liberalen (teknokraten) eta autarkiaren aldekoen arteko borroka politikoa 1957 eta 1959 artean.
- Espainiako ekonomiak 1959ko lehen seihilekoan izan zuen egoera zaila izan zen aldaketaren katalizatzailea (ordainketa etete arrisku larria alegia).

Hori baino lehen, Francok gobernu berri bat eratu zuen 1957ko otsailean, hiru pertsona giltzarrarekin, kanpora bideratutako estratergia berri bat defendatzen zutenak, Merkataritza Ministerioa (A. Ullastres), Ogasuna (M. Navarro Rubio) eta Kanpo Harremanak (F. Castiella), L. López Rodo-rekin batera Presidentetza Ministerioko Idazkaritza Tekniko Nagusian. Guztiak, Opus Deiko teknokratak.

Talde horrek, gobernuko goi-funtzionario batzuekin batera, aurre-egonkortze neurri batzuk jarri zituen abian 1957-1959 bitartean: moneta-politika murriztailea (inflazioari aurre egiteko), zerga-erreforma (gero eta handiagoa zen zor publikoari aurre egiteko eta zerga-ihes orokorraren aurkako borroka) eta pezetarentzako kanbio-tasa berri bat. Gobernu berri honek Espainia lankidetzak ekonomikoko nazioarteko erakunde nagusietan onartua izatea lortu zuen (Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa 1958; Europako Lankidetzak Ekonomikorako Erakundea).

- Egonkortze-planaren helburuak: epe laburrera, kanpo-saldoaren defizita ezabatzea; epe luzeagora, Espainiako ekonomia ireki eta liberalizatzea.
- Espainiako ekonomista talde txiki batek diseinatu zuen eta Nazioarteko Diru Funtsak 500 milioi dolar estatubatuar baino gehiagoko kreditu-lerroa ireki zion Espainiari, baina 74 milioi baino ez ziren behar izan eraldaketa abiarazteko.

- Neurriak: moneta-politikak eta zerga-politika murriztaileak (interes-tasen igoera, kreditu-murrizketak eta gastu publikoaren kontrola, zergen igoera); pezetarentzako kanbio-tasa berri bat (% 30 inguruko devaluazioa); erreforma ekonomikoak (Kanpo merkataritzaren eta inbertsioen liberalizazioa eta merkatuaren malgutasuna, baina lorpen mugatuak hasieran).

Epe laburreko ondorioak, kontsumoa, inbertsioa, prezioak eta BPG jaitsi egin ziren (BPG % 2,5 1959ko bigarren seihilekoan), baina kanpoko saldoa suspertu egin zen (inportazioak jaitsi egin ziren eta esportazioak handitu), eta 1960rako superabit esanguratsua izan zuen.

- Kostu sozialak: langabeziak gora egin zuen eta langileen diru-sarrerak % 25 edo gehiago jaitsi ziren (aparteko orduen murrizketa); emigrazioa.
- Biztanleko BPG % 3,11 jaitsi zen 1959an, % 0,73 hazi zen 1960an, eta gero % 10etik gora igo zen 1961ean eta 1962an.
- Baina 1960ko hasieran, ordainketa-etenduraren gaituta zegoen. Dibisa-erreserben gehikuntza nabarmenari eta aurrekontu publiko orekatuari esker.
- Hedapen-neurri berriak (kreditua eta interes-tasak), barne-eskaria suspertzea eta nazioarteko testuinguru ekonomiko mesedegarria. 1960ko azken hiruhilekotik aurrera Espainiako ekonomia hazten hasi zen.
- Bere arrakasta azkar eta ikusgarriak eragina izan zuen Espainiako agintariengan: liberalizazioa eta nazioarteko ordena ekonomikoan integratzea ez zen jada zalantzan jartzen.

4. GAIA. Ekonomia hazkundera eta egitura aldaketa (1959-1973) I

4.1. Liberalizazioa eta kanporanzko irekiera

- Espainiar ekonomiaren egonkortze eta liberalizazioaren aldeko iritziak
- Espainiar ekonomia mendebaldeko ekonomien parean jartzeko beharra: Esku-hartze politiken bukaera
- Politika ekonomikoaren aldaketa sakona
 - Ekonomia egonkortzeko autarkia politika alde batera laga beharra zegoen
 - Merkatuak araututako eta atzerrirantz irekitako ekonomia baten beharra onartzen zen administrazioaren zenbait eremutan

Politika aldaketaren aldeko faktoreak

- Nazioarteko testuingurua: Europar Ekonomia Elkartearen (1958) eta EFTAren (European Free Trade Association: 1960) sorrera
- Espainiar pagamendu balantzaren krisia: dibisen eskasia

- Bi aukera:
 - Inportazioak izugarri murriztu, autarkiari eutsiz
 - Kanpo oreka berreskuratu kanpo merkataritza liberalizatuz, atzerritar kapitalaren etorrera baimenduz eta nazioarteko ekonomia erakundeetan sartuz
- Lehenengo aukeraren gizarte eta politika kostuak aurreikusita, bigarrena hautatu zen

Egonkortze planaren aurreko neurriak (1957-58)

- 1957an Franco-k gobernu berria aukeratu, horien artean erreformaren aldeko zenbait ministro
- Arazo ekonomiko larriak:
 - Inflazioa
 - Defizit publikoa
 - Kanpo defizita
- Administrazioko ekonomialarien aholkuz zenbait neurri:
 - Moneta politika murriztailea
 - Sarrerak handitzeko zerga erreforma
 - Kanbio-tasa berri eta bakarraren ezarpena
- Neurriak ez ziren behar bezain arrakastatsuak izan
 - Defizit publikoa zerbait murriztea lortu zen
 - Inflazioa handitu
 - Merkatal defizitak handiegia izaten jarraitu zuen
 - Praktikan, kanbio-tasa anitzen sistemarekin ez zen bukatu

1959ko Egonkortze Plana

- Espainia Nazioarteko Moneta Funtsan eta Nazioarteko Elkarlanerako Ekonomia Erakundean onartua izateko urratsak eman ziren
- Horren truke ekonomia egonkortzeko eta irekitzeko plan bat prestatzea eskatu zitzaion gobernuari
- Politika autarkikoekin bukatuko zuen plan hori aurrera eramateko erakunde horien laguntza izango zuen
- Planaren helburu nagusia kanpo balantzaren defizita orekatzea: moneta, zerga eta kanbio politika murriztaileak
- Ordainketen krisi bat berriro ez agertzeko baldintzak ziurtatu: egiturazko epe-luzeko aldaketak: ekonomiaren liberalizazioa eta desarautzea


1959ko Egonkortze Plana: Neurriak

- Gobernuak moneta politika berreskuratu eta gogortu
- Automatikoki pignoragarria zen zorraren jaulkipena ezabatu
 - Zor publikoaren pignorazio automatikoa Estatuak jaulkitako zor-tituluen edukitzaileek herrialdeko banku zentralera jo eta beren tituluen bermearekin kreditu bat lortzeko duten aukera da.
- Interes-tasak igo
- Sektore pribatuaren kredituari mugak ezarri
- Gastu publikoari mugak ezarri
- Zerga sistemaren sarrerak igotzearen ondorioz: familien eros-ahalmena murriztu
- Inportazioa burutzeko: inportatu beharrekoaren balioaren %25a gordailu bezala aurretik emateko baldintza ezarri zen inportazio baimenen lortu ahal izateko
- Kanbio tasa berri eta bakar baten ezarpena (%30eko debaluzioa)


1959ko Egonkortze- Plana: Emaitzak

- Izugarritzko arrakasta: Nazioarteko Moneta Funtsank eredu moduan erabiliko du.
- Hasierako hilabeteetan zenbait arazo: atzerapena, inbertsioaren eta inportazioen beherapena, emigrazioa (langabeziaren truke), familien errenta mailaren beherapena,
- 1960tik aurrera, liberalizazioaren aldeko neurriek lagunduta, ekonomiaren sekulako hazkundera gertatuko da

Espainiako BPG-ren bilakaera 1936-1975
(1950=100)



Inflazio tasa Espainian 1940-1975



Iturria: Tafunell eta Carreras (2003)

Espainiar ekonomiaren liberalizazio prozesua

- Espainiar ekonomia hazkunde-eredu berri bat besarkatzeko oinarriak Egonkortze Planak ezarri zituen
- Nazioarteko ekonomian berrintegratzea eredu berriaren oinarri nagusia izango da
- Helburu hori lortzeko bi estrategia nagusi:
 - Merkataritza-irekiera
 - Finantza-irekiera

Merkataritza-irekiera

- Espainiar agintariek kanpo merkataritza liberalizatu beharra zegoela onartu zuten
- Liberalizazioa gradualki burutuko zen
- Gobernuaren esku-hartzea ez zen desagertuko, baina jadanik ez zen zuzena izango: muga-sariak eta bestelako zergak erabiliko ziren
- Merkatuak ezarriko zuen hortik aurrera zer eta zein kantitatetan inportatu

Merkataritza-irekiera: Neurriak

- Inportazio-eredu ezberdinen ezarpena:
 - Liberalizatutako merkataritzakoa. Eredu honen barne sartzen ziren produktuak inolako mugarik gabe inportatu zitezkeen
 - Esku-hartutako merkataritza alorretakoak. Honen barne zeuden produktuen inportazioa gobernuaren baimenpekoa zen
 - Egonkortze planaren aurretik inportazioen %6a baino ez zen baimenik gabekoa, egonkortze plana onartu eta gero %33a (lehengaiak, ekipo-ondasunak, ordezko piezak...).
 - 1965erako liberalizatutako produktuak %67,3 eta 1967rako %75a baino gehiago.
- 1960ko muga-sari berria
 - Kupoak eta lizentziak ezabatuta muga-saria inportazioak kontrolatzeko tresna bakarra
 - 1922ko muga-saria indarrean egonik berriztu beharra zegoen
 - Muga-sari berriak babes maila handia ezarriko du
 - Industriari barne merkatuan prezio altuetan saltzeko aukera emango dio, batez ere kontsumo eta bitarteko ondasunei dagokionez.
- Nazioarteko bilakaera bestelakoa: GATT akordioak
- Espainia eta EEE-ren arteko Lehentasunezko Merkatal Ituna 1970-1976 urteetarako (Espainiak muga-sariak %25 jaitsi zituen eta EEE-k %6

Espainiar ekonomiaren irekiera maila $(X+M/BPG)*100$



Mugasari babes nominala Espainian 1850-1936 (%)



Finantza-irekiera: Aurrekariak

- 1936-1959 epean atzerritar inbertsioak urriak izan ziren Espainian
- Frankoren erregimenaren politika ekonomikoaren ondorioak autarkia garaian:
 - Atzerritar inbertsioen baimena Estatuaren erabakitze ahalmenaren menpe
 - Frankismoaren helburaespainiar ekonomia kanpo menpekotasunetik libratzea izan zen
 - Atzerritar kapitalak erakarri baino gehiago, hauek kanporatzen saiatu ziren
 - Ekonomiaren eta baliabideen kontrola Gobernuaren eskutik

Finantza-irekiera: Neurriak

- Egonkortze planaren onarpenarekin atzerritar kapitalaren inbertsioak errazteko legedi oso liberala garatu zen 1959an:
 - Atzerritar inbertsioa mugarik gabe kapital sozialaren %50 arte.
 - Gobernuaren baimenarekin %100era heltzeko aukera
 - Zuzeneko inbertsioak, kartera inbertsioak eta ondasun higiezinak baimendurik zeuden
 - Inbertitutako kapitalak eta beren errentak atzerriratzeko arazorik ez
 - Jabetza eskubidearen gaineko bermeak eman ziren
- Zenbait sektore estrategiko araudi honetatik salbuetsita geratu ziren: defentsarako industria, petrolio birfintzea, komunikabideak eta argitalpenak, eta aire-garraioa.
- Elektrizitatea eta banka ere, aipatuak izan gabe salbuetsita geratu ziren
- Hurrengo urteetan zenbait industria-sektoretan atzerritarrek kapitalaren %50a gaitzeko gobernuaren baimena lortu beharra ezabatu zen

Finantza-irekiera: Arrazoiak

- Atzerritar kapitala garapenerako ezinbestekotzat hartzen zuten agintariek
- Arrazoiak:
 - Barne eskariaren nahikotasun eza
 - Pagamendu balantza orekatzeko beharrezkoa zen dibisak lortzea (beste aukera inportazioak mugatzea izan zitekeen).
 - Ezinbestekoa zen espainiar enpresen atzerapen teknologikoaren eta produktibitate baxuaren arazoei konponbide bat emateko

Merkataritza eta finantza irekieren ondorioak

- 1960tik aurrera espainiar ekonomiak inoiz izandako hazkunderik garrantzitsuenak izan zuen: Espainiar Mirari Ekonomikoa
- Herrialde guztiak hazten ari ziren testuinguru baten, Espainiak, OECDko herrialdeen artean bigarren hazkunderik handiena zuen, Japoniak lehena

BPG per capitaren urteko hazkunde tasa

	1820-1870	1870-1913	1913-1950	1950-1973	1973-1992
Austria	0,7	1,5	0,2	4,9	2,2
Belgika	1,4	1,0	0,7	3,5	1,9
Frantzia	0,8	1,5	1,1	4,0	1,7
Alemania	1,1	1,6	0,3	5,0	2,1
Italia	0,6	1,3	0,8	5,0	2,4
Britainia Handia	1,2	1,0	0,8	2,5	1,4
Espainia	0,5	1,2	0,2	5,8	1,9
Errusia	0,6	0,9	1,8	3,4	-1,4
AEB	1,3	1,8	1,6	2,4	1,4
Japonia	0,1	1,4	0,9	8,0	3,0

•Hazkundearen arrazoiak (miraririk ez):

- Kanpo harremanen garapenak industrializazioari sekulako bultzada eman zion
- Industriak beharrezkoak ziren produktu energetikoak, lehengaiak, ekipo eta bitarteko-ondasunak prezio lehiakorretan lortzeko aukera izan zuen
- Hazteko eta modernizatzeko beharrezko baliabideak lortu zituen industriak
- Irekierak inportazio horiek burutzeko beharrezkoak ziren dibisak eskaini zituen
- Dinamika hau 70. hamarkadako krisiarekin bukatu zen, inportazioak garestitu eta atzerriko kapitalak murriztu zirenean

4.2. Nekazaritza-exodoa eta nekazaritza-modernizazioa

- Espainiar nekazaritzak egiturazko aldaketa izugarria burutu zuen oso epe laburrean
- Datuak aztertuta ez dirudi horrela izan zenik 1960-73 epean urteko hazkunde tasa %2,4koa izan zen
- Nekazaritzak ekonomia hazkundeari ekarpen handiak egin diezazkioke: eskulana, kapitala, dibisak, elikagaiak edota merkatuak eskainiz
- Aztertzen ari garen garaian eskulanarena izan zen garrantzitsuena eta sektorearen modernizaziorako ezinbestekoa

Espainiar ekonomiaren izaera bikoitza 60. hamarkadan

- Nekazaritza: oso atzeratua, produktibitate baxukoa eta langileriaren ehuneko handia erabiltzen zuena
- Industria: modernizazio bidean, produktibitate altuagokoaren eta eskulan merkearen beharrea
- Egoera honetan eskulana nekazaritza-tik industriara mugitu zen

Nekazaritza-emigrazioa

- Enpresen irabaziak handiak izanik (lan kostuak handitu, eskaria handitu) inbertsioak ere gora egingo du
- Eskulanaren elkartrukea atzeratutako sektorearen eskulan erreserbak agortzerakoan bukatuko d
- Prozesu honek ekonomiaren hazkunde izugarria ekarriko du epe luzean, baliabideen erabilpen eraginkorragoari esker (Faktoreen produktibitate osoa handituko da)
- Exodoaren garrantziaren arabera izango da hazkundearen maila
- 1950eko hamarkadan 1,1 milioi pertsona; 1960an 2 milioi (batzuk atzerriara: Alemania, Suitza...)
- Prozesu honek ondorio garrantzitsuak izango ditu hirigintza prozesuan: eraikuntza eta zerbitzu sektoreak bultzatuz


Nekazaritzaren modernizazioa

- Nekazaritza eredu tradizionalaren krisia
 - Eskulan ugaria eta merkea
 - Teknikoki atzeratuta
 - Dibertsifikazio gabeko ekoizpena: Espainiar errenta maila baxuaren ondorio
- Populazioaren hiritartzeak eta sarrera mailaren igoerak kontsumo ohiturak aldatu zituzten
- Nekazaritza-produktuen merkataritza balantza defizitarioa
- Emigrazioak lan kostuen igoera ekarriko du (1964-1976 epean x5,5)
- Soldaten igoerak aldaketa nabariak eragin zituen lan kostuak, kostunosen %70a zirela kontutan hartuz
- Lan faktorearen ordezkapena: aukeratutako haziak, ongarriak, traktoreak...
- Egin beharreko inbertsio esfortzua handia izan zen eta nekazaritzaren zorpetze maila izugarri hazi zen
- Konposatutako elikagaien kontsumoaren hazkundeak nekazaritzak ekonomian eta enpleguan zuen pisua arindu egin zuen
- Modernizazioaren ondorio nabarienetako bat produktibitatearen hazkundera izan zen

Populazio aktiboaren banaketa ehunekotan aktibitate sektoreen arabera, 1910-1981

	Nekazaritza eta arrantza	Meataritza	Industria	Eraikuntza	Elektrizitatea, gasa eta ura	Merkataritza	Garraiota eta komunikabideak	Bestelako zerbitzuak	Bestelako jarduerak
1910	66	1,4	10,4	4		4,7	2,2	11,3	
1920	57,2	2,3	15,6	4,1		5,9	2,9	12	
1930	45,5	2,1	19,2	5,2		7,6	4,6	15,8	
1940	50,5	1,4	15,6	5,2		7,3	3,9	16,1	
1950	47,6	1,7	18,2	6,6		9,3	4,1	12,5	
1960	36,6	1,7	21,2	6,7	0,6	8,4	4,7	15,3	4,8
1970	22,8	1,1	26	10,5	0,8	15,6	5,7	16,1	1,4
1981	13,9		26,7	8,8	1,7	22,2	6,4	18,6	1,7

Nekazaritza-ekoizpenaren indizea Espainian, 1935-1975 (1950=100)




4.3. Industria-hazkundera eta teknologia aldaketa

- Industria 60. hamarkadako espainiar hazkunderaren motore
- Industriaren parte hartzea BPGan eta enpleguan handitu egin zen
- Egiturazko aldaketaren oinarrietako bat eskariaren ezaugarrien aldaketa
- Eskariak eskaintzaren eraldaketa ahalbidetu zuen, eta azken honek lehengoaren transformazioa bultzatu

Eskariaren ezaugarrien eraldaketa

- Familien eskari maila handitu zen.
 - Oinarrizko ondasunek familien aurrekontuan zuten pisua gutxitu: elikagaiak, edariak, tabakoa, jantziak, oinetakoak...
 - Errentarekiko elastikotasun handiko ondasunen kontsumoaren hazkundera: altzariak, tresneria, osasun zerbitzuak, garraio eta komunikabideak, aisialdia, ostalaritza, turismoa...
- Produktu hauek (autoak, etxetresnak...) eskala errendimendu gorakorrek izanik gero eta merkeago eskaintzen ziren, merkatuak hedatuz eta industria ekoizpena berriro ere areagotu

Industria ekoizpenaren indizea, 1950-1970
(1950=100)



Lehen eta bigarren sektoreen garrantzia enpleguan eta BPGean¹, 1959 eta 1972an (%)

	1959		1972	
	Enplegua	Ekoizpena	Enplegua	Ekoizpena
Nekazaritza, basogintza eta arrantza	39,7	22,1	22,8	12,1
Industria ²	23,5	22,4	27,8	35,2

Oharra: 1. 1970ko prezio konstanteetan kalkulatuta. 2. Eraikuntza gabe

Iturria: Tafunell eta Carreras (2003)

Kanpo merkatuen papera

- Kanpo merkataritzaren egitura aldaketa
 - Espainiar esportazioetan nekazaritza-produktuak indarra galduz joan ziren
 - 1970. hamarkadarako industria produktuak espainiar esportazioetan nagusi
- Hala ere esportazioek industriaren ekoizpenean zeukaten garrantzia mugatua zen
- Zenbait sektoretan aldiz esportazioek zeukaten garrantzia nabarmen handitu zen: Ontzigtza, Larrua eta oinetakoak, Makineria ez elektrikoa, Kautxua ...

Industria-esportazioen hazkunderaren zergatiak

- Pezetaren kanbio-tasa
- Europar ekonomien hazkundera
- Atzerritar inbertsioek lagundutako espainiar industriaren berrikuntza teknologikoa
- Gobernuak aplikatutako esportazioak bultzatzeko politikak: zerga kenkariak
- EEERekin sinatutako lehenetsuneko merkataritza akordioa

Industria hazkunderaren zenbait ezaugarri

- Industriaren hazkundera ez zen orekatua izan, sektoreen arabera portaera ezberdinak: kimika, eraldaketa mekanikoak eta eraikuntza mekanikoak onuradunenak
- Espainiar industriaren espezializazio egituraren aldaketa ere burutu zen

Balio erantsi gordinaren urteroko batez besteko hazkunde tasak industriako zenbait sektoretan (1970eko pezetetan) 1959-1972 bitartean

Sektoreak	%
Energia eta ura	8,2
Metalen ateratze eta eraldaketa	14,1
Mea ateratzea	8,1
Ekoizpena eta lehen eraldaketa	13,8
Meatze produktu ez-metalikoak	15,2
Industria kimikoa	16,2
Metalen eraldatze industria	13,8
Eraldatze metalurgia	13,2
Garraio materialaren eraikuntza	15,5
Bestelako manufaktura	9,0
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	6,8
Oihalgintza industria	7,1
Oinetakoak eta jantziak	11,2
Egurra, kortxoak eta altzariak	8,5
Papera eta paperezko produktuen ekoizpena	12,6
Beste batzuk	13,1

Garapen planak

- Espainiak zailtasunak izango ditu 70. hamarkadako krisiari aurre egiteko
 - Liberalizazio prozesuaren geldotzea zenbait sektoreen jarrera protekzionisten ondorioz
 - Esku-hartze eredu berrien agerpena: Garapen planak
- Garapen planek lau urteko iraupena izan zuten: 1964-67, 1968-71 eta 1972-75
- Mendebaldeko zenbait herrialdeetako esperientziari jarraituz prestatu ziren plangintzak
- Helburuak ez ziren derrigorrez bete behar, enpresa eta erakunde publikoentzako izan ezik
- Gobernuaren industrializazio politikak ez zion industriari inolako mesederik egin, batzuen ustez kaltea ere bai
- Garapen poloak
 - Industria barruti berrien sorrera industriadik ez zegoen lekuan
 - Lurralde desorekak konpontzeko saiakera antzua
- Adostutako ekintzak
 - Garapen planak betetzen konprometitzen ziren industrientzako diru-laguntzak
 - Egitura oligopolistikoa eta enpresa publiko ugari sektoreen mesederako: Siderurgia, ontzizaintza, harrikatz meatzaritza...
 - Lehiakortasuna eta eraginkortasuna handitu beharrean, sektore hauen gehiegizko hazkundera bultzatu zen

Esku-hartzea finantza sektorean

- Banka publikoak enpresa publikoei eta kontzertatutako enpresei lehentasuna ematen zien
- Banku pribatuak eta aurrezki kutxek beren baliabideen zati handi bat gobernuak esandako inbertsioetara zuzendu behar zuten
 - Kutxa koefizientea
 - Derrigorrezko inbertsio koefizientea
- Neurri hauekin kreditu merkatu pribatua garestitu egin zen eta eraginkortasun gutxi inbertsioek baliabide handiak erabili zituzten

4.4. Hirigintza eta kontsumo eredu berriak

- Biztanleria 28,8 milioi pertsonakoa zen 1950ean, 30,5ekoa 1960an, 34koa 1970ean eta 35,9koa 1975ean.
- Aldaketa demografikoak: jaiotza eta heriotza-tasen murrizketa; bizi-itxaropenaren igoera; aldaketak biztanleria aktiboaren sektorekako banaketan; jarduera-tasak sexuaren arabera (emakumeen jarduera-tasa Europako batez bestekoa baino askoz txikiagoa zen); urbanizazioa, landa-eremuko exodoa, despopulazioa, baina arazoak (hiri-plangintza egokirik gabeko hiri-hazkundera).
- Auzo marjinalak eta txabolismoa hiri industrial handietan. Bilbo horren adibide garbia da.
- Aldaketa soziala: Espainia hiritarragoa bihurtu zen eta ez zen jada hain landatarra; industrian eta zerbitzuetan soldatapeko okupazioak nagusi ziren langile autonomo eta independenteen gainera.
- Aldaketak hirietako txikizkako sisteman eta banaketa-sisteman (saltoki handiak, supermerkatuak). Sozialitate-eredu berriak hiri eta herrietan (hiri-mugimenduak, sindikatuak).
- Hazkunde ekonomikoak oparotasun gero eta handiagoa ekarri zuen, nahiz eta modu desorekatuan banatu zen.
- Soldatak liberalizatu ziren 1958tik aurrera (Hitzarmen Kolektiboen Legea).
- Soldata errealak igo egin ziren, baina langileen errentak BPGren gainean konstante mantendu ziren (% 50 inguru) eta gizarte-segurantzako kuotak soilik igo ziren % 4tik % 10era 1966 eta 1972 artean.
- 1960ko hamarkadan langileriaren ondorezaren hazkundera. Politika paternalista eta lan-merkatuaren zurruntasuna (enpresek ezin zuten langilerik kaleratu).
- Diru-sarreraren hazkundera kontsumo-eredu berri bat eragin zuen.
- Biztanleko batez besteko gastua 10.765 pezetatik 71.723 pezetara igaro zen 1958 eta 1973 artean.
- Engelsen Legea: Diru-sarrerak handitu ahala, elikagaietan gastatutako diru-sarreraren proportzioak behera egiten du, baita elikagaietan egindako gastu errealak gora egiten badu ere. Elikagaiak eta beharrezko beste kontsumo-ondasun batzuek (zapatak eta arropa) guztizkoaren gaineko partaidetza murriztu zuten (% 70etik % 47ra igaro zen).
- Espainian klase ertain berri baten agerpena eman zen.

Urteko batez besteko kontsumoaren banaketa pertsonako (%)

	1958	1973	Total
Elikadura	55,3	38	-17,3
Arropa-zapatak	13,6	7,7	-5,9
Etxebizitza	5,0	11,6	6,6
Etxeko gastuak	8,3	11,1	2,8
Bestelako gastuak (oporak barne)	17,8	31,6	13,8

- Hazkunde ekonomikoak Espainiako biztanleriaren mugikortasuna areagotu zuen, herrialde barnean zein kanpoan.
- Andaluzia, Aragoi, bi Gaztelak, Murtzia, Galizia eta Extremadura izan ziren emigrante espainiarren jatorrizko eskualdeak, eta Madrilera, Kataluniara, Valentziara, Euskal Herrira eta uharteetara joan ziren.
- Bost milioi pertsona baino gehiagok beren jaioterritik beste eremu batera mugitzea erabaki zuten garai honetan Espainian.
- Landa-eremutik hirirako migrazioa izan zen, nekazaritzatik industriara eta zerbitzuetara, Espainiako populazioaren gizarte-aurrerapenaren adierazle.
- Hazkunde ekonomikoaren eta biztanleria-fluxuen arteko korrelazioa: eskualde aberatsenek txiroenetako migratzaileak erakarri zituzten
- 1951 eta 1970 bitartean, kanpo-emigrazioaren saldo garbia 1.214.000 pertsonakoa izan zen. 1950eko hamarkadan kanpoko emigrazio hori Latinoamerikara zuzendu zen, batez ere Argentinara eta Venezuelara. Urtean, batez beste, 40.000 emigrante irten ziren Espainiatik urte horietan.

Pagamendu balantzaren osagai nagusiak, 1961-1973 (milioi \$)

	1961	1973	Urteroko batzbestekoa
Inportazioak	1.038	8.948	3.591
Esportazioak	759	5.402	1.956
Merkataritza Balantza	-279	-3.546	-1.635
Turismoa eta Bidaiak	330	2.878	1.265
Emigranteen diru-bidalketak	116	916	377

1950eko hamarkadaren amaieratik, kanpoko emigrazioa Mendebaldeko Europara lekualdatu zen: 1957tik 1974ra 1,8 milioi espainiar inguru joan ziren Europara. Alemaniak, Frantziak eta Suitzak migratzaileen % 95 bildu zituzten. Andaluzia eta Galizia izan ziren emigrante espainiarren jatorrizko eskualde nagusiak.

- Gobernuak mugimendu hori babestu eta bultzatu zuen Espainiako Emigrazio Institutuaren bidez (1956), atzerriko herrialdeen lan-eskaria bideratzeaz eta Espainiako etorkinei laguntza eta babesa emateaz arduratzen zen erakunde ofizialaren bitartez.

- Kanpora emigratutako norbanakoen rol ekonomikoak:
 - Landako langabeziaren arazoa arindu zuten (1960-1973 bitartean 1,3 milioi lanpostu galdu ziren nekazaritzan).
 - Espainiako ekonomiarako dibisa-iturri gero eta garrantzitsuagoa bihurtu ziren (diru-bidalketak).


4.5. Turismo eta atzerritar inbertsioa

- Turismoa garrantzia handiko sektorea bilakatu zen garai honetan:
 - Kanpo balantzaren oreka ahalbidetu zuen
 - Sistema produktiboaren eraldaketa bultzatu zuen
 - Gizarte eraldaketak sakonak bultzatu zituen
- Europar herrialdeen ekonomia hazkundeak beren herritarren kontsumo ahalmena handituko d
- Turismoa europar klase ertainentzako kontsumo ondasun arrunta bihurtuko da
- Espainia eskari horri aurre egiteko herrialde aproposa izango da
- Espainiak Europar turismoarentzat baldintza erakargarriak zituen:
 - Herrialde kontsumitzaileekiko hurbiltasun geografikoa
 - Baldintza natural faboragarriak: eguraldia, kostalde zabala, hondartza kopurua...
 - Prezio baxuak
 - Enpresarien eta erakunde publikoen ekimenez eskariari aurre egiteko erantzun azkarra: hotelak, azpiegiturak...

Turista kopurua Espainian, 1901-1949 (mila pertsona)



Turista kopurua Espainian, 1900-2001 (mila pertsona)



Dibisa diru-sarrerak 1960an 296,5 milioi dolarretik 1975ean 3.400 dolarrera igo ziren. Turismoa herrialdeko sektore ekonomiko garrantzitsuena bihurtu zen: inportazio guztien herena baino gehiago finantzatzea ahalbidetu zuen.

- Turismo nazionala ere azkar hazi zen. Turismoaren sektoreak BPGan zuen partaidetza % 5etik % 9ra igo zen 1960-1974 bitartean. Hotel eta jatetxeetako langile kopurua 366.787 pertsonatik 644.874ra igo zen 1955tik 1974 bitartean. Gainera, turismoak beste sektore batzuetan eragin sakonak izan zituen, bereziki eraikuntzaren industrian (hotelak eta apartamentuak eta beste azpiegitura batzuk).

- Atzerriko kapitalaren zeregina. 1959ko uztaileko Legeak, Espainian atzerriko inbertsio zuzena liberalizatu zuen: Espainiako enpresen kapital sozialaren % 50eraino, % 100eraino ere, Estatuaren baimenarekin. Sektore gutxi batzuk bakarrik geratu ziren hemendik kanpo: defentsa, petrolio findegiak, aire garraioa, egunkariak, argitaletxeak, bankuak eta enpresa elektrikoak.

- Atzerriko inbertsio zuzenaren abantailak Espainiarentzat: kapital-eraketa, merkataritza balantzaren defizitaren finantzaketa, teknologia eta kanpo-ezagutza.

- Espainiaren erakargarritasuna multinazionalentzat: merkatu dinamikoa eta atzerriko lehiaren aurrean oso babestua, hazten ari zena, eskulan merke eta diziplinatuaren eskaintza ugaria, zerga korporatibo oso baxuak eta erregimen politiko egonkorra.

- Zifrak: 300.000 milioi pezeta baino gehiago 1959-1974 aldiran, kapital finkoko inbertsio gordinaren % 6 eta industria-inbertsio gordinaren % 20 inguru.

- Sektoreka: manufaktura-industria (atzerriko inbertsio zuzenaren % 76). Industria kimikoa, kautxua (Michelin, Pirelli, Continental), automobilak (Renault, Citroen, Ford, Chrysler) eta beste garraio-ekipo batzuk, makineria eta ekipo elektrikoak (GE, Siemens, Westinghouse Electric, Standard Electric) eta elikagaiena izan ziren sektorerik garrantzitsuenak.

- Jatorrizko herrialdeen arabera: AEB (% 35), Suitza, Mendebaldeko Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua. Atzerriko inbertsio zuzenaren % 99 inguru pribatua zen.

- Multinazionalak funtsezko papera izan zuten Espainiaren garapen industrialean urte horietan.


- 1974an, Espainiako 500 manufaktura-enpresa garrantzitsuetatik 200ek atzerriko kapitala zuten akziodunen artean (120tan atzerriko kapitalak % 50 baino gehiago zuen).

- Multinazionalak, estatuko enpresak eta banku pribatu handiei lotutako industria-talde handiak ziren Espainiako enpresa handien bizkarrezurra.


- Multinazionalak barne-merkatu handi bat aurkitu zuten Espainian lehenik, eta esportazio-plataforma bat gero.

- Espainiako automobil-industriaren kasua horren adibide dugu (Ford Fiesta, VW Polo...).

Espainian eraikitako etxebizitzak, 1946-1975 (unitateak)




Porlanaren uestezko kontsumoa 1935-1975 (mila tonatan)



4.6. Giza kapitalaren eraketa eta bere mugak

• 1962an garaturiko Munduko Bankuaren txostenak, ondorengo esaten zuen Espainiaren inguruan: Hezkuntza herrialdearen atzerapen ekonomikoaren eragile nagusietako bat da. 1960ko hamarkadaren hasieran, alfabetatze eta eskolatze-tasak Mendebaldeko Europako txikienak ziren (5 eta 14 urte bitarteko biztanleen % 86 eta % 63, hurrenez hurren). Aurrerapena 1960ko hamarkadan, baina atzerapena bistakoa zen oraindik 1970eko hamarkadan. Gainera eskola-porrota tasa altuak lehen eta bigarren hezkuntzan, eta aukera-berdintasunik eza, desberdintasun sozial handiaren eraginez.

1935 eta 1974 bitartean jaiotako belaunaldien ikasketa maila (populazio osoa sexu bereizketarik gabe)



- 1970eko hamarkadaren hasierara arte, goi klaseek bakarrik ordain zitzaketen seme-alaben unibertsitate-ikasketak.
- 1960ko hamarkadatik, gobernuak derrigorrezko hezkuntza 14 urtera zabaltzen eta bigarren mailako prestakuntza teknikoa sustatzen saiatu zen, baina oso emaitza mugatuekin.
- Eskola publikoen eskaintza urria zen (estatuaren jabetzakoa), batez ere bigarren mailan: 1961/62an 120 eskola publiko zeuden 1.128 pribaturen aurrean. Hala ere, bigarren mailako ikasleen kopurua 3 aldiz baino gehiago handitu zen hamarkada horretan, baita unibertsitateko ikasleena ere.
- Hirugarren hezkuntzako atzerapena are zorrotzagoa izan zen. 1960ko hamarkadan garatzen hasi zen, Europa Mendebaldean baino hamarkada bat beranduago.
 - Universidad Autónoma de Bilbao (1968)
- Villar Palasí Legea (1970): derrigorrezko hezkuntza 14 urtera arte, bigarren hezkuntzaren erreforma (Balioanizdun Batxilergo Bateratua, Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea eta lanbide-heziketako eskolak). Hezkuntzako gastu publikoa % 8,57tik % 15,40ra igaro zen 1973an (baina oraindik Mendebaldeko Europaren atzetik zegoen). Bigarren mailako eskolen, unibertsitate publikoen eta ikasle kopuruaren hazkundera. Baina hezkuntza profesionala eta teknikoa oraindik ez zegoen oso garatuta.

- Korrelazio positibo handia egon zen garapen ekonomikoaren eta eskualde-mailako giza kapitalaren prestakuntzaren artean. Espezializazio handiko industria-barrutietan, ekintzaileek, udalekin eta beste administrazio batzuekin lankidetzan, lanbide-heziketako eskolak sortzea bultzatu zuten, enpresei eskulan kualifikatua emateko: armagintza Eskola (Eibar), Paperaren Eskola (Tolosa), Sarria Kimika Institutua (Sabadell), Diseinu Eskola (Sabadell)...

- Enpresa handienek beren eskolak ezarri zituzten.

- 1970eko hamarkadaren hasieran, Euskadik zituen ikasle gehien biztanleko lanbide-heziketako eskoletan: ‰ 10,5; Espainian, berriz, ‰ 4,5.

- Gauza bera gertatu zen ikerketa-laboretegiekin eta zentro teknologikoekin. Enpresa handienek sortutako beren I+G zentroz gain, zenbait industria-elkartek (makina-erreminta, metalezko produktuak, galdategiak, papera) laboretegiak eta zentro komunak sustatu eta babestu zituzten, elkartutako enpresa guztiei erantzunez:

- Tekniker Eibarko Armeria Eskolari lotua, Labein Bilboko Ingeniarien Goi Eskola Teknikoari lotua, Inasmet Gipuzkoako Fundizioen Elkarteari, INVEMA Makina-Erremintaren Fabrikatzaileen Elkarteari; edo Ikerlan Mondragon taldeari lotuta.

Laburbilduz: hazkunde desorekatua

- Lorpen guztiak gorabehera, 1973ko petrolioaren krisiaren bezperan, Espainiako ekonomiak hainbat ahultasun zituen, eta hainbat erronkari erantzun behar zien:

- Merkataritza balantzak gero eta defizit handiagoa zuen, eta esportazioek, kanpoko bidalketek (migratzaileak), atzeritar inbertsioak eta turismo bidezko irabaziek estali zuten.

- Espainiako industria atzerriko lehiakideengandik oso babestuta zegoen eta nazioartean lehiakorra izateko txanpon merke eta soldata baxuen mende zegoen. Gainera barne-merkatu batean zentratu zen ia erabat (produktibitate eta lehiakortasun-arazo bat zuen).

- Hazkunde-tasa handiak zituen arren, Espainiako ekonomiak ezin izan zion biztanleria osoari enplegurik eman.

- Atzerriko petrolioarekiko mendekotasun gero eta handiagoa eta gehiegizkoa zen.

- Estatuak ondasunen eta faktoreen merkatuetan zuen esku-hartze mailak handia izaten jarraitzen zuen.

- Sektore publikoa oso ahula zen (BPGri dagokionez).

- Eraginkortasun gabeko zerga-sistema atzeratu bat zuen.

5. GAIA. Aldaketa politikoa, ekonomia krisialdia eta EEE-rako sarrera (1974-2000)

Trantsizio politikoa (1975-1982)


- 1974-1982: petrolioaren krisia eta krisi ekonomikoa. Aldaketa politikoekin batera. Krisi ekonomikoak Mendebaldeko Europako beste ekonomia batzuk baino indar handiagoz kolpatu zuen Espainia.
- 1975: Francoren heriotza; 1975eko azaroan, Trantsizio politikoa deritzonaren hasiera. Zenbaitek, Trantsizio aldia 1973-1982artean kokatzen dute (Carrero Blancoren heriotzatik, PSOEren lehen gobernura).
- 1977ko ekaineko lehen hauteskunde orokorrak, Adolfo Suarez buru zuen lehen gobernua osatzen da (UCD).
- Moncloako itunak (1977ko urria) krisiari aurre egiteko. Aldaketa politikoa eta instituzionala (1978ko Konstituzioa, zerga-erreforma, estatu-eredu berria, gizarte-erreformak, etab.).
- Hauteskunde berriak 1979ko martxoan, UCDk berriro irabazi zituen, baina agintean zegoen alderdiak barne arazo gero eta handiagoak zituen. Suarezren dimisioa 1981eko urtarrilean. Kolpe militarra 1981ko otsailean, baina arrakastarik ez. <https://www.youtube.com/watch?v=tubhxc-7gfw>
- Hauteskunde berriak 1982ko urrian, Felipe Gonzálezek (PSOE) irabazi zituen, gehiengo handiarekin (202 eserleku beheko ganberan, % 57,7). Gobernu berriaren helburu nagusia: Espainia Europako gainerako herrialdeekin integratzea.
- 1986: Espainia EEEko eskubide osoko kide bihurtu zen.
- 1986-1998: erabateko integrazioa EEEen, gero Europar Batasunean
- 1994-2008: hazkunde ekonomikoa eta EBrekiko erabateko konbergentzia
- 1974an hasi zen nazioarteko krisi ekonomikoa, Espainiara aldaketa politiko prozesu korapilatsu bat hasten zen momentuan iritsi zen.
- Trantsizioko gobernuak, zilegitasun sozial eta politikorik gabekoak, ez ziren ausartu krisi ekonomikoari aurre egiteko erabaki esanguratsurik hartzen 1977ko urrira arte (Moncloako Itunak).
- Arazo ekonomikoak kontsiderazio politikoaren mende zeuden. Espainiako ekonomia nazioarteko atzeralditik isolatzen zaitu zen gobernua hasiera batean (aurrekontuaren bidez barne-eskaria suspertuz eta petrolioaren prezioen igoera dibisa-erreserben bidez xurgatuz), iraupen laburrekoa izango zelakoan. Baina politika horrek, Estatu ordainketa-etenduraren eta kaosaren atarian jarri zuen berriro ere.

- Oro har, krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan zuen Espainiako ekonomian Mendebaldeko Europan baino (eta gauza bera gertatu zen Grezia eta Portugalekin, antzeko egoera politiko eta ekonomiko batean aurkitzen zirenak).

5.1. Nazioarteko krisia eta bere eragina Espainian: industriaren gainbehera

- Krisiak eragin bereziki kaltegarria Espainian
 - Inflazioaren hazkunde izugarria
 - Langabeziaren hazkundea
 - Inbertsioaren erorketa
 - Pagamendu balantzaren defizita eta kanpo zorra
 - Gastu publikoaren igoera eta defizit publikoa
-
- BPGaren hazkunderen murriztea, 1978an % 3 inguruko hazkunde tasa, eta gero 1979-1985 aldian % 1,5 inguruko tasa (atzeraldi urte bakarra, 1981).
 - Petrolioaren prezioen bi talkek (1974an eta 1979an) indar handiagoz jo zuten Espainia, inportatutako energiaren mende baitzegoen. Faktura energetikoa 2.500 Miloi \$ (% 50eko merkataritza-defizita) 1974an.
-
- Gainera, 1977ra arteko trantsizio-gobernuen politikek, 1970eko hamarkadaren amaierara arte, BPGaren unitate bakoitzeko energia-kontsumoa etengabe handitzea ekarri zuten (Europako gainerako herrialdeetan, aldiz, 1973tik aurrera murrizten joan zen). Espainiako energia-inportazioak esportazioen balioaren % 41 izan ziren 1978an.
-
- Inbertsioak behera egin zuen, aurrezkiak bezala, eta barne-merkatua kolapsatu egin zen.
 - Sindikatuak 1977an legeztatu ziren, eta gero eta negoziazio-botere handiagoa zuten, laneko ezinegona gero eta handiagoa baitzen. Industriako soldata errealak % 130 igo ziren 1970 eta 1982 artean, Europako beste edozein herrialdeetan baino gehiago, eta produktibitatea % 42 igo zen.
 - Estantflazioa: hazkunde ekonomiko motela (edo estankamendua) eta langabezia nahiko altua, prezioen igoerarekin batera (inflazioa)

Espainiako BPGren bilakaera, 1970-2000, 1980ko prezioetan (1950=100)




Inflazio tasa Espainian 1940-1975




Iturria: Tafunell eta Carreras (2003)

Inbertsioaren urteroko hazkunde tasa eta aurrezkia BPGrekiko Espainian, 1973-1985



Estatuaren aurrekontuaren saldoa Espainian, 1973-1985




Iturria: Tafunell eta Carreras (2003)


Administrazio Publikoen eta Estatuaren gastuen portzentaia BPGrekiko Europako bost herrialdetan, 1940-2000

Urteak	Alemania		Frantzia		Italia		Erresuma Batua		Espainia	
	Guztira	Estatua	Guztira	Estatua	Guztira	Estatua	Guztira	Estatua	Guztira	Estatua
1940	55,2	43,6	32,0	24,3		59,9	67,1	57,8		12,6
1960	35,0	17,9	52,4	34,1		27,1	43,6	32,7	14,8	10,5
1970	36,8	17,0	51,0	30,2	43,3	30,6	53,2	36,4	20,1	13,7
1980	48,6	20,0	50,6		48,2		47,2		32,3	15,6
1990	46,6		50,7		50,7		43,9		42,7	26,4
2000	45,9		52,8		46,8		40,2		39,4	26,1


Pagamendu balantzaren saldoa (milioi dolarrak)



Sexuen araberako aktibitate tasa orokorrak Espainian, 1960-2001 (%)



Lan merkatua Espainian, 1973-1985



Turistak Espainian (mila pertsona), 1970-2001



Espainiar krisialdiaren faktoreak eta ezaugarriak

- Nazioarteko krisia: petrolioaren prezio igoera, Bretton Woods-en bukaera eta inflazio.
- Greziarekin eta Portugalekin ezaugarri komunak:
- Pagamendu balantza orekatzeko atzerriarekiko menpekotasun handia.
- Energia eta petrolio kontsumo handiko sektoreetan espezializatua eta Estatuak aurreko urteetan bereziki sustatutakoak: siderurgia, ontzigintza eta kimika.
- Diktaduraren amaiera: egiturazko arazoaren herentzia eta trantsizio politikoa.

Egoera politikoaren baldintzapenak

- Egoera politikoak krisiari aurre egiteko neurriak baldintzatu zituen.
- 1974ko petrolioaren prezioaren igoeraren aurrean frankismoaren amaierako gobernuak ez ziren beharrezkoak ziren neurriak hartzera ausartu.
- Krisiak eragindako kostua banatu eta errenta beherapenari aurre egin beharrean...
- Moneta politika hedakorra: interes tasa baxuak eta kreditu ugari (Espainiako Bankuak banka pribatuari eta banka pribatuak partikularrei).

Petrolioaren prezio igoerari aurre egiteko politikak

- Espainiako gobernuen politikaren ondorioz petrolioaren kontsumoa jaitsi beharrean igo egin zen 1973-1980 epean.
- Gobernuak hidrokarburoen prezioa ez zuen igo horren gaineko zergak beheratuz. Ondorioz:
 - Ez industriek ezta partikularrek ere ez zituzten beraien kontsumo ohiturak doitu.
 - Petrolio kontsumo altuko zenbait atzerritar industria Espainiara lekuz aldatu ziren.
 - Estatuaren sarreren beherakada handia.
- 1978an politika aldatu arren Petrolioaren bigarren krisiak, 1979an, doikuntza bikoitza izatea ekarri zuen, ondorio kaltegarriagoekin.

Espainiar ekonomiaren egoera 1977an

- Moneta politika hedakorrak bultzatuta kontsumoa, publikoa zein pribatua, egonkor mantendu zen (hasiera batean behintzat).
- Esportazioak behera.
- Turismoaren sarrerak behera.
- Inflazio izugarria eta pagamendu balantzaren defizita.
- Kanpo zorra hirukoiztu zen.
- 1976an pezeta debalatu zen arren ez zen ezer konpondu, beste erabakirik ezean, inflazioak konpentsatu zuen eta.
- Urteko %40ko inflazioa 1977an.

Doikuntza politikak eta gizarte-akordioak

- 1977ko hauteskundeetatik UCDek zuzendutako gobernu berria sortuko da.
- Gobernuak ekonomia politika berria parlamentuan ordezkariak zuten alderdi guztiekin adostu zuen.
- Honek hartu beharreko neurri gogorrei zilegitasun politikoa ematen zien.
- Krisiak eragindako sakrifizioa modu ekitatiboan banatzea bilatu zen.
- Akordio hauek Moncloako Itunak bezala dira ezagunak.

Moncloako Itunak

- Prezioen igoera gelditzeko politika
 - Diru merkearen politika baztertu.
 - Soldatak ezartzeko eredia aldatuko da.
 - Kanpo oreka lortzeko pezeta %20ko debaluazioa.

- Zerga erreformaren beharra
 - Krisiaren kostuak era ekitatiboagoan banatzeko tresna.
 - Aurreko zerga sistema zaharkitua: zeharkako zergen pisu handiegia, ez zen neutrala ezta ekitatiboa ere.
 - Gizarteak eskatutako gastu betebeharrak berriak (aldaketa politikoak, ongizate estatua...)
 - Gastu sozialaren hazkundeak errentaren beherapena konpentsatu behar zuen (ezkertiar alderdien eskaria).
 - Bestelako erreforma politikak: energia, enpresa publikoak, finantza sistema...

Fernández Ordoñezen zerga erreforma

- EEEen indarrean zegoen zerga sistemen ildoari jarraituz hiru oinarri nagusi:
 - Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (PFEZ)
 - Familia unitatearen errenta osoa zergatzen zuen iturrien artean bereizketarik egin gabe.
 - Zerga progresiboa: Oinarri zergagarriaren mailaren arabera aplikatutako tasa igotzen doa.
 - Elkarteen/Sozietateen gaineko zerga: enpresen irabaziak zergatu zituen.
 - Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ): hau ez da 1986. urtera arte aplikatuko arazo teknikoak zirela medio.
- Erreformak zerga sistemaren egitura goitik behera aldatu zuen.
- Estatuaren zergak biltzeko ahalmena izugarri handitu zen.

Administrazio Publikoen gastuen egitura funtzionala 1970-1985 (BPGren %)

	1970	1975	1980	1982	1985
I. Ondasun publikoak	4,3	4,6	5,3	5,6	6,1
1. Defentsa	1,7	1,7	2,0	2,0	2,0
2. Zerbitzu publiko orokorrak	2,6	2,9	3,3	3,6	4,1
II. Ongizate Estatua	13,0	16,2	21,6	22,8	24,8
3. Lehenasunezko ondasunak	5,6	6,9	8,9	8,7	9,9
3. a. Hezkuntza	1,9	2,1	3,3	3,0	3,6
3. b. Osasuna	2,8	3,8	4,5	4,3	4,5
3. c. Etxebizitza eta zerbitzu kolektiboak	0,9	1,0	1,1	1,4	1,8
4. Errentaren mantentzea	7,4	9,3	12,7	14,0	14,9
4. a. Pentsioak	4,0	5,6	8,6	9,2	10,0
4. b. Desenplegua	0,2	0,5	2,2	2,6	2,9
4. c. Bestelakoak	3,2	3,2	1,9	2,2	2,0
III. Ekonomia mistoa	4,8	4,2	6,2	9,3	11,6
5. Zerbitzu ekonomikoak	4,2	3,7	5,5	8,3	8,4
5. a. Inbertsioa	2,3	2,1	1,6	2,8	2,9
5. b. Diru-laguntzak eta transferentziak	1,9	1,6	3,9	5,5	5,5
6. Zor publikoaren interesak	0,6	0,5	0,7	1,0	3,2
Gastu osoa	22,1	24,9	33,1	37,7	42,5

Finantza sistemaren erreforma

- Frankismoaren araudi esku-hartzailearekin bukatu
- Atzerritar bankari ateak ireki (mugekin)
- Bankuen eta aurrezki kutxen negozioaren askapena
 - Araudiak zehazten zuen merkataritza-banka eta banka-industrialaren bereizketa baztertu zen.
 - Lurralde mailan hedatzeko askatasuna.
 - Interes-tasak ezartzeko askatasuna.

Petrolioaren bigarren krisia (1979)

- Moncloako itunean adostutako neurriak aplikatzen hasi arren gauzak ez ziren gehiegi hobetu.
- 1979an petrolioaren prezioen igoera berri bat eman zen.
- Espainiar ekonomiak doikuntza bikoitza egin behar izan zuen orduan.
- Krisia larriagotu egin zen.
- Garraio sektorea eta industria izan ziren gehien kaltetutako sektoreak.


Industriaren krisia

- Espainiar industriaren ezaugarriak:
 - Eskari baxuko produktuetan espezializatua (tradizionalak eta oso hedatuak).
 - Energia kontsumo handia.
 - Eskulanean intentsiboak.
 - Teknologia eta giza kapital maila baxua.
- Nazioarte mailako produktu manufakturatuen eskariaren beherapena.
- Nazioarteko merkatuetako lehiaren hazkundera: herrialde industrializatu berriak.
- Ekoizpenaren eta inbertsioaren beherakada.
- Kriaren eragin handiena 1978tik aurrera
- Gobernuaren politika aldaketa.
- Energia eta lehengaien prezioen igoeraren eragina.
- Eskulanaren garestitzea.
- Kapitalaren garestitzea.

Industria ekoizpen indizea (1970=100)



Inbertsioa: Kapital Finkoaren Eraketa Gordina 1970-1998 (1970=100)



Eskulanaren garestitzea

- Lan kostuak nabarmenki igo ziren: gizarte segurantzaren garapena.
- 70eko hamarkadako langileen eskaerak eta mobilizazioak.
- Soldata igoerak ez ziren produktibitate hobekuntzen ondorio izan.
- Sindikatuak 1977an legeztatu ziren, eta gero eta negoziazio-botere handiagoa zuten, laneko ezinegona gero eta handiagoa baitzen. Industriako soldata errealak % 130 igo ziren 1970 eta 1982 artean eta produktibitatea % 42.
- Igoera hauek eragin kaltegarria izan zuten enpresen lehiakortasunean eta finantza-orekan, batez ere 1978tik aurrera. Eskaintzen zituzten teknologia eta produktuak kontuan izanik, nazioarteko lehia ugaritzen zen garai batean (herrialde industrializatu berriak...).


Kapitalaren garestitzea

- 1974-1977 epean industriako enpresek kredituaren bitartez egoerari eustea lortu zuten.
- Kreditu beharra zeukaten eta interes tasak oso baxuak ziren.
- Interes tasa erreal negatiboak:
- Inflazio handia.
- Interes tasa nominal arautuak (igoera leuna).
- Finantza sektorea liberalizatu zenean eta moneta politika hedakorra bukatzean interes tasak izugarri igo ziren.

Langabeziaren arazoa

- Industria bere ekoizpena doitzera behartu zen langile kopurua beheratuz
- Espainiako langabezia tasa beste herrialde garatuena baino askoz handiagoa izan zen
- Desindustrializazio prozesuaz ere hitz egiten dute autore batzuk
- Langabeziak bizi izandako izugarritzko hazkundea arazo politiko larriena bihurtu zen.

Langabeziaren bilakaera Europar Batasunean, herrialde nagusietan eta Espainian, 1970-1994 (populazio aktiboarekiko %)



- Langabeziaren arazoa areagotu zuten faktoreak:
 - Industriak bere ekoizpena doitzeko beharra.
 - Barne-atzeraldi ekonomikoa.
 - Aldaketa teknologikoa.
 - Lan egiteko adinean zegoen biztanleriaren hazkundera: Baby boom belaunaldietako langileak.
 - Emigrazioaren bukaera.
 - Nekazaritzaren modernizazioaren gailurra.
 - Espainiako nekazaritzak 600.000 lanpostu baino gehiago galdu zituen 1975 eta 1985 artean (eskarian eta langabezian eragin argia).
 - Emakumeen lan-jardueraren tasen etengabeko igoera.
 - Emigrazioaren murrizketa eta migratzaile ohi askoren itzulera.
- Lanean zegoen biztanleriaren zenbatekoa 13,2 milioi pertsonatik 10,6ra jaitsi zen 1974 eta 1985 bitartean.
- Espainiar gizartearen erantzuna:
 - Ikasketen iraupena luzatu.
 - Populazio aktiboaren murrizpena.

Laburbilduz

- Moncloako Itunak alderdi politiko, enpresa-gremio eta sindikatuen artean adostu ziren 1977ko urrian, inflazioari aurre egiten, hazkunde ekonomikorako eta enplegurako ingurune mesedegarri bat sortzen saiatu ziren. Neurriak hartu ziren gobernuaren eskaintza monetarioa, gastua, zorpetzea eta soldatak kontrolatzeko. Gainera, Espainiako industriaren lehiakortasuna hobetzeko neurriak hartu ziren, pezeta % 20 devaluatuz, erakunde ekonomikoak erreformatuz (erreforma fiskala) eta faktoreen merkatuen malgutasuna handituz.
- Erreforma fiskala (1978): Errentaren Gaineko Zerga, Elkarteen/Sozietateen Gaineko Zerga eta BEZa, Europako sistemaren ildotik. Zergek Estatuko bilketa osoan zuten pisua handitzeko beharrari erantzunez.
- Faktoreen merkatuak: finantza-sistemaren liberalizazioa bakarrik ekarri zuen (eta geroago, energia eta telekomunikazioak), baina lan-merkatuan aldaketa esanguratsurik gabe, oso zurrun mantendu baitzen.
- Moncloako Itunek epe laburrean arrakasta lortu zuten, baina 1979an petrolioaren bigarren talka batek tentsio berberak eragin zizkion Espainiako ekonomiari. Berriro ere, ezegonkortasun politikoak oso zail egin zuen erantzun azkar bat ematea.

- Enpresa porrotak ugari eman ziren eta langabezia izugarri hasi zen. 1978 eta 1982 artean zortzi lanpostutik bat suntsitu zen. 1982ko urrian boterea hartu zuen gobernu berriak (PSOE) 1977ko doikuntza-politika berberak hartu zituen: debaluazioa eta inflazioaren aurkako borroka (moneta-politika murriztailea eta soldata-kontrola).
- 1975 urtea baino lehen, Estatuak Espainiako ekonomian izan zuen esku-hartzea lege eta erakunde arautzaileen bidez ezarri zen, diskrezionalitate handiko (eta gardentasunik gabeko) esparru baten barruan.
- 1977az geroztik, estatuaren esku-hartzeak parlamentuaren kontrolpeko aurrekontu publikoa erabili zuen. Aldaketa hori erregimen berri baten eraketaren eta ongizate-estatu baten sorreraren emaitza izan zen.
- 1975ean, guztizko gastu publikoa (gobernu zentrala, gizarte-segurantzako kuotak eta tokiko administrazioak) BPGren % 22,7koa zen Espainian. Europar Ekonomi Erkidegoko batez bestekoa % 37,2koa zen. 1985ean, % 42,5ekoa eta % 49koa zen hurrenez hurren. Goranzko gastu horren zati bat 1978ko zerga-erreforman onartutako zerga berriek estali zuten.
- Ongizate-estatuak: hezkuntza, osasun, pentsio eta langabezia-zerbitzuak garatu zituen.
- Desberdintasun ekonomikoa murriztea Espainian. 1974an, diru-sarrera handienak zituzten familien % 10 BPGren % 40 ziren; 1980an, azken hori % 29ra jaitsi zen.

5.2. Industria birmoldaketa eta bankaren krisia

Industria birmoldaketa

- 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Espainia krisi ekonomiko batean sartu zen. Industriari bereziki eragin zion, milioi bat lanpostu galdu baitzituen (1975ean 3,6 milioi ziren, eta 1985ean 2,6 milioi).
- Krisiak gogor jo zituen 1960ko hamarkadan Espainia espezializatu zen industriak (ontzigintza, altzairua, ekipo-ondasunak, ehunak eta jantzigintza, oinetakoak). Espainiako industrian eragin berezia izan zuen krisiak eta kostu txikiagoko berriki industrializatutako herrialdeen lehiak, espezializazioa eskulan eta energia kontsumoetan intentsibok ziren industrietan ematen baitzen, non lehia kostuetan eta prezioetan oinarritzen zen, ez produktuen kalitatean.
- Eskaria uzkertzea (etxean eta atzerrian); lehia areagotzea; kostu gero eta handiagoak (lan, energia-eta kapital-kostuak handitzearen ondorioz); eta lan-produktibitate txikia izatearen eraginez.

- Gauzak okertzeko, atzeraldiari emandako erantzuna beste herrialde askotan baino beranduago eta motelago iritsi zen; petrolioaren lehen krisitik babestu zen industria neurri batean petroliotik eratorritako produktuen gaineko zergen murrizketagatik, barne-inflazio azkarragatik eta interes-tasa negatiboen iraunkortasunagatik.
- Inbertsio-programa handiak abiarazi ziren altzairugintzan eta ontzigintzan, 1970eko hamarkadaren amaierara arte, nahiz eta eskaria nabarmen jaitsi zen mundu osoan. Lan-kostuen hazkundearen erritmoa bateraezina zen lehiakortasunari, irabazi-marjinei eta enpleguari eustearekin.
- 1980. urtearen ondoren, gobernua petrolioaren prezioa nazioarteko mailetara egokitzea erabaki zuenean, eta interes-tasak igotzen hasi zirenean, krisiak eztanda egin zuen eta industria-sektore handiak erabat ustekabeen eta estututa aurkitu ziren. Gehiegizko pertsonalaren, gehiegizko gaitasunaren eta zorpetzearen ondorioz.
- Egoeraren aurrean, Gobernuen lehen erantzuna galerak sozializatzea izan zen, hau da, finantza-egoera arriskutsuan zeuden enpresak nazionalizatzea, INIk xurgatu zituenak.
- Gainera, Espainiako industriak hainbat ahultasun zituen, krisiari aurre egiteko eta Europan integratzeko erronkari aurre egiteko landu beharrekoak:
 - Lehiakortasunik eza, produktibitate txikiaren eta lan, kapital eta energia-kostuen igoeraren ondorioz.
 - Enpresa eta lantegi txikiak (horrek eskala-ekonomientzako aukerak mugatu zituen eta epe luzerako finantzaketa lortzea zaildu zuen).
 - Industria tradizionalarekiko eta zaharkituarekiko oso loturik zegoen industria-egitura.
 - Barne-lehiarik eta enpresa-lehiarik eza, isolazionismo ekonomiko eta protekzionismo (berotegiko atmosfera) hamarkaden ondorioz.
 - Barne-merkatura oso bideratuta, kanpo-merkatuetan esperientzia falta.
- Gobernuak krisi ekonomikoari eman zion erantzun nagusia industria-birmoldaketa sustatzea izan zen, termino hori erabili zen Espainian laurogeiko hamarkadan izan zen industria-berregituraketaren prozesu zabala deskribatzeko.
- Prozesua 1981ean hasi zen etxetresna elektrikoekin eta altzairu bereziekin, ondoren, atzeraldiak bereziki eragindako beste bederatzi sektoretara zabaldu zen: altzairu integrala, forja astuna, ontzigintza, ehungintza, oinetakoak, auto-piezak, elektronika piezak, ongarriak eta kobre erdilanda.

- Gainera, bost enpresa handik birmoldaketa-programa bereziak jarraitu zituzten (GE, Westinghouse, Talbot Auto, Asturiana de Zinc eta Alcatel-Standard Eléctrica).
 - Sektore guztietan, birmoldaketa-programaren helburu nagusiak izan ziren gehiegizko gaitasuna murriztea, produktibitatea hobetzea eta errentagarritasuna lehengoratztea, eta inbertsioa eta aldaketa teknologikoa sustatzea.
- Baina arrazoi politikoek ere pisua izan zuten erabaki hauek hartzeko orduan, lan-mobilizazio indarra eta Alderdi Sozialistarekiko elkartasuna kontuan izan zirela dirudi.
 - Hala ere, birmoldaketa-programen ondorio nagusia enpleguaren murrizketa handia izan zen, biztanleria aktiboaren herena inguru, handiagoa zenbait sektoretan, hala nola altzairugintzan eta ontzigintzan (% 50 inguru). 300.000 pertsona inguru kalteturik (industrian lan egiten zuen biztanleriaren % 10) eta 80.000 langile inguru kaleraturik.
- Programa horien kostu osoa (2.4 eta 3.25 bilioi pezeta artekoa, 14.000 eta 21.000 milioi euro artekoa) aurrekontu publikoaren kargura finantzatu zen. Altzairuak eta ontzigintzak programa horiei esleitutako funts publikoen erdia jaso zuten.
 - Espainiako nazioarteko itsas garraioaren krisiari emandako epe laburreko erantzun politikoa: Milioi bat tonelada programa (1976), ordaindu ezin zuten BCiko diru publikoaren bidez Espainiako armadoreei emandako laguntza (1989an, 833 milioi euroko galerak, Espainiako industria-birmoldaketaren kostu osoaren % 5 inguru).
- Espainiako ontziolen birmoldaketa ez zen 1983-84 arte hasi.
 - Lehen birmoldaketa: 1984-1988, ontziola handiak. ASTANO (Ferrol) birbideratzea, Euskalduna (Bilbao) eta ASCON (Vigo) ixtea, bizirik irten ziren ontzioetan enpleguaren murrizketa handia (% 50 inguru).
 - Gobernu zentralaren laguntza eskuzabalak eta baldintza “onak” kaleratutako langileentzat. Bilbo, Ferrol, Gijón eta Vigo prozesu honen gune nagusiak: grebak, laneko istiluak, harreman sozialetan, musikan (punka, rocka) eta komunikabideetan izandako eragina (Los lunes al sol filma; Naval, Gijón 1984-2009)
- Bigarren birmoldaketa: 90eko hamarkadan, ontziola txiki eta ertainak, itxiera (Celaya, Ardeag, ARN) eta pribatizazioa (Barreras, Juliana, Astican...).
 - Ikatz-meatzaritzaren sektorearen birmoldaketa amaiezina. 1989tik 2010era, sektoreko produkzioarako diru-laguntzak 15.000 milioi eurokoak izan ziren (eta 7.700 milioi euro gehiago erretiro aurreratuko pentsioetarako), 80ko hamarkadako industria-birmoldaketaren kostu osoa baino gehiago.

Banka krisia

- Industria-krisiak gero eta zailtasun handiagoak eragin zizkien Espainiako bankuei.
 - Industriak, krisian sartzean, arazoak izan zituen kredituak itzultzeko. Enpresa industrialek, kostu gero eta handiagoei eta eskari estuari aurre eginez, ezin izan zituzten beren maileguak ordaindu. Ordainketa etendurak eta porrotak ugaritu ziren.
 - Industriaren krisia bankuetara hedatu zen.
 - Espainian industria eta bankaren arteko harremanak oso estuak.
 - Bankak krisiak gehien kaltetutako sektoreetan kontzentratuta zuen inbertsioa
-
- Gainera, kudeaketa arazoak eta, kasu batzuetan, banku-kudeatzaile eta Kontseilu Korporatiboetako kideek egindako espekulaziozko eta iruzurrezko jarduerak. 1962. urtearen ondoren ezarritako banku berriek maileguak asko jaso zituzten eta gehiegizko arrisku-kontzentrazioa ezkutatzeko, hainbat finantza-enpresa sortu zituzten. Horretaz gain, eraikuntzan eta higiezinaren sektorean ere inbertsio handiak egin zituzten, urte horietan gorantz zihoan sektorea.
-
- Gainera, 1977tik aurrerako finantza-liberalizazioak lehia handitu eta sektoreko irabazi-marjinak murriztu zituen. Bankuek sukurtsal berriak ireki eta inbertsio gehiago egin behar izan zituzten merkatu-botereari eusteko.
-
- 1977 eta 1985 bitartean, zeuden 110 bankuetatik 58 kalteturik suertatu ziren, txikienak eta ertainetako batzuk bereziki (Grupo Rumasa, Banco Urquijo, Banca Catalana), ia 50.000 langile eta 3.332 sukurtsalekin. Kapitala edo gordailuak sektore osoaren % 30 baino gutxiago ziren 1980an, sektoreko langileen % 28 enplegatzen zutenean.
 - Urterik okerrenak 1982 (12 bankuk porrot egin zuten) eta 1983 (21 bankuk, Rumasako 20 bankuk porrot egin zuten) izan ziren.
-
- 1977ra arte, Espainiako Bankuak ez zuen banku pribatuak zaintzeko eta kontrolatzeko behar adinako fiskalizazio-botere eskumenik izan.
 - Gobernuak, Espainiako Bankuaren bitartez, izu-egoerak saihesteko behar zen guztia egiten saiatu zen. 1978an, Espainiako Bankuak botere handiak jaso zituen (banku pribatuen Administrazio Kontseiluak bertan behera utzi eta haien ardura hartzeko eskumena). Gainera, 1977 eta 1978an Espainiako Bankuak eta banku pribatuak bi erakunde berri sortu zituzten (% 50 bakoitzak): gordailuak Bermatzeko Funtsa eta Banku Korporazioa. 1980an bi erakundeek bat egin .

- Banku Korporazioak krisian zeuden bankuak berrantolatu, balantzeak garbitu eta saldu egin zituen.
- Salbatuak, likidatuak edota laguntzaren beharra izan zuten bankuek sistemaren %25-30a suposatu zuten.
- Bat-egite eta eskuratzeko prozesu bat hasi zen, eta horren ondorioz bi banku handi sortu ziren: Banco Santander (Central-Hispano-Urquijo, eta gero Banesto) eta BBVA (Bilbo, Bizkaia eta Argentinaria):
 - 1988 Banco Bilbao eta Banco Vizcaya bankuen bat-egitea.
 - 1991 Banku Zentralaren eta Banco Hispano Americanoren bat-egitea.
 - 1994 Santanderrek Banesto erosi zuen (baina lehenak bere nortasuna mantendu zuen).
 - 1999 Santanderrek Central Hispano bat-egin eta erosi zuen.
 - 2000 BBVAk Argentinaria batzea eta erostea.

Lan merkatua

- Espainiako gobernuak Francoren gobernuen babes handiko lan-legedia jaso zuen oinordetzan, horrek kaleratze-kostu handiak zekartzan berekin.
- Ondorioz, enpresek, lehenik, lan-premia gero eta handiagoak asetzeko beste modu batzuetara jo zuten, langile berriak kontratatu beharrean (aparteko lana, produktibitate-neurriak...).
- GMren Espainiako dibisioko presidentearen hitzetan:
 - "Espainia jendea gaineratik kentzeko lekuri garestiena da. Horregatik, nahiz eta GMk datozen urteetan ekoizpena bizkortuko duen, ez du kontratazio plan handirik. Aldiz, produktibitatea mugara eramateko asmoa du, aurrerago kaleratzea garestia izan daitekeen pertsona berriak kontratatu aurretik".
- Lan-merkatuaren erreformarako lehen urratsa 1984an eman zen, gobernuak aldi baterako kontratuak sartu zituenean, kontratazio berrien % 90 izatera iritsi zirenak.
- Krisia eta inflazioaren aurkako politika eraginkorra izateko gizarte-akordioak beharrezkoak.
- Sindikatuen, Patronalaren erakundearen eta gobernuaren arteko itunak soldaten igoerak mugatzeko.
- Horrelako akordioak 1980an hasi ziren eta gaur egunera arte iraun duen eredu da.

- Soldatak finkatzeko negoziazio kolektiboko metodoa bultzatu zen. Hitzarmen kolektiboak lortu ziren sindikatuen eta sektoreko enpresaburuen artean, hiru mailatan: naziokoa, lurraldekoa eta lantegikoa, eta langile guztiei aplikatu zitzaizkien. Akordio nazionalak gutxienerako bat ezarri zuten, hurrengo mailan hobetu zitekeena, eta horrela hurrenez hurren. Behin aplikazio-epea amaituta, hitzarmen horiek indarrean egongo lirarteke beste hitzarmen kolektibo bat egin arte (horri esker, langileek jada lortutako eskubide eta baldintza guztiei eutsi ahal izango zieten).

Merkataritza liberalizazioa

- Merkataritza-liberalizazio gero eta handiagoa. Espainiako ekonomiaren irekiera-ratioa 1973ko BPGren % 31,1etik 1985eko BPGaren % 43,5era igaro zen (12,5 puntu), esportazioen hazkundeagatik (7,7 puntu) inportazioena baino gehiago (4,8 puntu).

- EEERekin lehentasunezko akordioa, 1973an sinatua zen. 1977an gobernuak 1974an eta 1975ean eraikitako merkataritza-oztopo batzuk ezabatu zituen.

- 1979an, Espainiak beste akordio bat sinatu zuen EFTArekin, EFTAko herrialdeetara EEEdo herrialdeei aplikatutako muga-zerga berberak zabalduz.

- Kapital-fluxuen liberalizazioa (barrurantz eta kanporantz) 1979an gauzatu zen.

- 1980an, GATTren Tokioko negoziatioetan onartutako muga-zergen murrizketak onartu zituen Espainiak. Hala ere, alde horretatik bultzada handia 1986an Espainia EEEn sartu zenean hasi zen.

- Arantzelak pixkanaka murrizten joan ziren zazpi urtez. 1992an, EEEn inportazioei aplikatutako muga-zergak, batez beste, 1985eko muga-zergen % 10era iristen ziren. Espainiak EEEn merkataritza-politika erabat onartu zuen.

5.3. Euskal ekonomia: Kontzertu ekonomikoa eta autogobernua

- Eusko Kontseilu Nagusia (1977):

- Eusko Kontseilu Nagusia[1] Euskal Autonomia Erkidegoko autonomiaren aurretiko erakundea izan zen, 1978ko urtarriletik 1980eko apirilera bitartean existitu zena.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua eta Eusko Jaurlaritza (1979):

- 1979ko Gernikako Estatutua onartu eta lehen hauteskundeak egin ondoren, Eusko Kontseilu Nagusia desegin, eta frankismoaren osteko lehen Eusko Jaurlaritza eratu zen.

- Ekonomia Ituna (1981):
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunak (Kontzertu Ekonomikoa) Espainiako Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko zerga eta finantza harremanak arautzen ditu, foru erregimenaren parte da. 1878tik 1937ra Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak ituna izan zuten; Frankismo garaian, hiru lurralde horietatik, Arabak bakarrik mantendu zuen 1980. urte arte, Gerra Zibilean erregimen frankista babesteagatik. 1981etik aurrera, 1978ko Espainiar Konstituzioan eta 1979ko Gernikako Estatutuan jaso bezala, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru lurraldeei ituna aitortu zitzaaien berriro ere.
 - Nafarroak bere aldetik, Nafarroako Foru Komunitateko Ekonomia Hitzarmena du, 1841. urtetik dago indarrean, baina egungo hitzarmena 1990. urtekoa da.

Ekonomia Ituna: jatorria

- 1978ko Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarria: “Konstituzioak babestu eta errespetatu egiten ditu foru-lurraldeen eskubide historikoak. Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo da”
- 1979ko Euskal Estatutuaren 41.1. artikulua: “Estatu eta Euskal Herriaren arteko zerga mailako harremanak, antzinako erara, Kontzertu ekonomiko eta Komenio sistemaz erregulatuak izango dira”

Euskal estatutuaren 41.2. artikulua

- “Kontzertu Erregimenaren edukiak ondoko printzipio eta oinarriak errespetatuko ditu eta beroriei egokituko zaie:
 - a) Herrialde Historikoetako instituzio bidezkoek, bere esparruan, zerga erregimena mantendu, ezarri eta erregulatu ahal izango dute, Estatuaren egitura orokor inpositiboari, kontzertu berean Estatuarekin koordinazio, fiskal armonizazio eta kolaborazioa izateko agertzen diren arauak eta Komunitate Autonomoaren barruan helburu berdinak lortzeko euskal Biltzarreak diktatuko dituen kasu eginez. Kontzertua Legez onartuko da.
 - b) Zerga guztien exakzio, gestio, likidazio, bilketa eta inspektzioa, Aduanen Errentan sartzen direnak eta gaurregun Monopolio Fiskalen bidez biltzen direnak izan ezik, Herrialde Historiko bakoitzean, bertako Diputazio Foralek egingo dute, guztiori Estatuarekin behar den kolaborazioaren eta beronen goi-goiko inspektzioaren kaltetan izan gabe.
 - c) Herrialde Historikoetako erakunde konpetenteek gisako akordioak hartuko dituzte Estatuak lurralde komunari aplikatzea erabakiko dituen exzeptzio eta koiuntural jitezko arau fiskalak bakoitzak bere lurraldean aplikatu dituzten, haietan hainbat denbora egingo dutelarik zutik hemengoetan.

- d) Euskal Herriak Estatuari egingo dion aportazioa kopuru oso bat izango da, eta komunitate autonomoak bere gain hartzen ez dituen Estatuak hartutako kargen kontribuzio gisa lurralde bakoitzak emandako kopuruez osatuko da.
- e) Aipaturiko kopuru osoa osatzen duten lurralde bakoitzari dagozkion kopuruak izendatzeko eta erabakitzen diren epeetan berritzeko, batzorde mixto bat osatuko da, zein alde batetik Diputazio Foral bakoitzeko ordezkari batez eta Euskal Gobernuako beste hainbestez eta, bestetik, Estatu Administrazioako beste hainbeste ordezkariak osatuko baita. Honela ematea erabakiko den kopurua Legez onartua izango da Kontzertuan seinalatuko den aldioro, urtekal gaurkotu daitekeelarik Kontzertuan seinalatuko den prozeduraz.
- f) 138. eta 156. artikuluetan aipatzen den solidaritate printzipioaren arauera aplikatuko da Kontzertu erregimena.”


Ekonomia ituna

- 1981an Ekonomia Ituna edo Kontzertu Ekonomikoa arautuko zuen legea onartua izan zen.
- Arabak 1976an sinatutakoan oinarritu zen eredu berria, Espainiar Gobernua, Diputazioak eta Eusko Jaurlaritza negoziaketan aritu eta gero.
- Batzar Nagusiek xedapen ahalmena izango dute zerga kontuetan.
- 1878ko Ekonomia Itunean kupoa Estatuak lurralde bakoitzean bilduko zituen zergen baliokidetzat hartzen zen.
- 1981an Autonomia erkidego osorako kupo bat zehaztuko da Estatuak bertan edo bertokoen onurarako egindako gastuak finantzatzeko eta EAERI dagokiona elkartasun funtsera zuzentzeko.
- Estatuak transferitu gabeko eskumenetan gastatutakoa, kontzertatu gabeko zergekin bildutakoa eta defizita aintzat harturik kupoa kalkulatzen da, euskal ekonomiak Espainiakoan daukan pisua %6,24 dela onartuz (ehuneko hau ez da 1981etik aldatu).
- Eusko Jaurlaritza eta Diputazioen artean adostu zen geroago kupo horren beraien arteko banaketa.
- Kontzertutako zerga nagusiak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) eta Sozietateen gaineko zerga dira.
- 1986an BEZa sartuko da.
- 1997an zerga bereziak sartu eta xedapen ahalmena handitu (PP-EAJ akordioa): Kupoaren igoera.
- Foru Aldundien xedapen ahalmena dela eta salaketak eta arazoak egon dira espainiar beste erakundeekin.
- 2002tik aurrera ekonomia itunari behin-betikotasuna emango zaio.


Industria krisiaren ondorioak

- Euskal Herrian industriaren pisua beste lurralde batzuetan baino handiagoa zen.
- Gehien kaltetutako sektoreen presentzia ere handia: Siderurgia, ontzigintza, metalurgia...
- Enpresa askok itxi egin behar izan zuten eta langabezia asko igo zen.
- Industria kontzentratzen zen herrietan arazo larriak.

Euskal hiriburuen populazioaren bilakaera, 1960-2011




Zenbait bizkaitar udalerrien populazioaren bilakaera, 1960-2011



Industria krisiaren ondorioak

- Birmoldaketa prozesuaren ondorioz zenbait enpresa historiko desagertu egin ziren: Euskalduna, Bizkaiko Labe garaiak...
- Euskal erakunde berriek industria politika propioa garatzeko aukera izango dute.
- Ekonomiaren egitura aldaketa: tertziarizazio prozesua emango da.


2.7. irudia. Hego Euskal Herriko egitura industrialia (BEG) 1969



Iturria: Merkataritza-Ganbarak

Iturria: Arizkun (2002)

Langabezia tasak hainbat lurraldetan (1977-1984)



5.4. Hirugarren sektorearen indartzea, teknologia berriak eta ekonomia globala

EEEn sartzeko prozesua

- Lehenengo eskaerak 60ko hamarkadan.
- 1970ean Lehentasunezko merkataritza akordioa.
- 1977an, hauteskundeen ostean, gobernu berriaren lehenengo neurrietako bat eskaera berria aurkeztea izan zen.
- Negoziaketa prozesua luzatu egin zen ordea:


- Petrolioaren bigarren krisia.
- Espainiar gobernuaren egonkortasun eza.
- Europak Nekazaritza Politika Komuna birplanteatu beharra.

- 1983an egoera desblokeatu zen espainiar gobernu berria eta europar egoera ekonomiko ona zela eta.
- 1985ean akordioa sinatu eta gero, 1986ko urtarrilaren 1etik aurrera Espainia eta Portugal EEeko estatu kide bilakatu ziren.
- Espainiak muga-sari egoera berrira egokitzeko behin-behineko zazpi urteko prozesua hasi zuen:
- Urtero muga-sariak zehaztutako ehuneko batean egin behar zuten behera (%10-15).
- 1993. urterako erkidegoko beste herrialdeekiko muga-sariak ezabatuta ziren.
- Hirugarren herrialdeekiko muga-sariak europar mailetara egokitu behar izan ziren epe berberean.
- Kanpo merkataritzaren zergapena eraldatu behar izan zen, ezkutuko salbuespenak eta zamak ezabatzeko,
- BEZa ezarri behar izan zen.


EEEtik Europar Batasunera

- 1989an Ekonomia eta Moneta Batasun bat osatzeko plana onartu zen (Delors txostena).
- Ondasun, zerbitzu eta faktoreen merkatu bakarra osatzeko asmoz.

Espainiar BPGren sektorekako banaketa, 1970-2000 (prezio korrontetean)



Espainiaren eta Europar Batasunaren ekonomien zikloa, 1984-1994 (hiruhilabeteko hazkunde tasen batezbestekoa)



- Moneta bakar bat eratzeko ekimena eta bere kudeaketa autonomoaz arduratuko zen Europako Banku zentralaren sorrera eta garapena.
- Epeak eta baldintzak 1992ko Maastricht-eko itunean erabaki ziren.
- Espainia Europako Moneta Sistemaren barneratu zen.
- Maastricht-eko baldintzak betetzeko zailtasunak
 - Inflazioa: Diferentzia handia baxuena zeukatzen hiru herrialdeen batez bestekoarekiko
 - Defizit publikoa: BPGren %3aren gainera.
 - Zor publikoa: BPGren %60aren gainera.
- Kapital merkatuen ezegonkortasuna eta 1992-1993ko europar finantza krisiaren eragina.
- 1995etik aurrera espainiar gobernuak zorrotz ekin zioten beharrezkoa zen aurrekontuaren doikuntza politikari.
- 1998rako defizitaren baldintza betetzea lortu zen.
 - Baldintzak malgutasunez neurtu ziren.
 - Zor publikoaren baldintza baztertu zen.
 - Ekonomiaren berreskurapena eta honi loturiko interes tasen beherapena eman zen.

Eurorako bidean espainiar ekonomiaren zenbait adierazle, 1995-1998

Kontzeptua	1995	1996	1997	1998
BPG	2,7	2,3	3,8	4,0
Inbertsioa	8,2	1,3	5,1	9,0
Barne eskaria	3,2	2,2	3,5	5,7
Epe luzeko interes tasak	10,9	7,7	5,3	4,1
KPI	4,7	3,6	2,0	1,8
Defizit publikoa*	6,6	7,3	5,4	3,2
Zor publikoa*	62,6	65,7	70,6	69,7
Kanbio tasa (1)	92,7	93,3	89,1	88,8
Soldatapeko bakoitzeko alokairua	4,5	4,5	3,1	2,0
Langabezi tasa**	22,8	21,7	20,2	18,1
Kontu korrante balantza*	1,3	1,3	1,9	0,7

Oharrak: Datu guztiak urteroko hazkunde tasak dira. Salbuespenak: *BPGren portzentzia. ** Populazio aktiboaren portzentzia. (1) Kanbio tasa efektibo nominala 1993=100

Europar integrazioak eragindako erakunde erreforma

- Espainia EEEen sartu zenetik liberalizazio prozesuak aplikatu dira Estatuaren pisua gutxitzeko eta merkatuen eraginkortasuna handitzeko.
- Lehiaren defentsaren aldeko politikak bultzatu dira.
- Liberalizazio politikak: zerbitzuak, finantza sektorea, lan merkatua...
- Finantza sektorearen liberalizazioak espainiar bankan kontzentrazio prozesuak bultzatu zituen: BBVA, Banco Santander.
- Enpresa sektore publikoaren pribatizazioa: SEAT (Volkswagen), ENASA (Fiat), Telefonica, Repsol, Endesa, Iberia etab.

Espainia eurogunean (1999-2020): hazkunde ekonomikoa 1995-2007

- Hazkunde ekonomikoa handiagoa eta eurogunearekin bat egitea, herrialde garatuarekin distantziak txikituz.
- Enpleguaren hazkundera (6 milioi migratzaile inguru iritsi ziren Espainiara Latinoamerikatik eta Afrika iparraldetik eskulan beharri erantzun emanez), euroguneko altuena, baina produktibitatearen geldialdia (eta lehiakortasunaren galera mailakatu, lan-kostuen igoeraren eta inflazio handiagoaren ondorioz).
- Banku-kredituan oinarrituriko hazkundera: higiezinaren burbuila eta eraikuntzaren industriaren (eta ondorioz, azpiegituren, EBko diruarekin finantzatu zirenak) eta sektore osagarrien (kalifikatu gabeko eskulana eskatu zutenak) gorakada eragin zuena.
- Ordainketa-balantzaren defizita handitu zen (Espainiako historia ekonomikoa beste edozein fasetan baino handiagoa), atzerriko inbertitzaileentzako (eurogunea) kanbio-arriskua desagertu zelako.

Espainia eurogunean (1999-2020): krisi ekonomikoa, 2008-2013

- Higiezinaren burbuilaren leherketa eta krisia eraikuntzaren sektorean eta horrekin lotutako industrietan.
- Banku-krisia (sistemikoa).
- Kanpo-defizita, zerga-krisia eta defizit publiko gero eta handiagoa (Espainiako historia ekonomikoa modernoko handiena).
- Langabeziaren hazkundera.
- Gobernuak harturiko neurriak: bankuen erreskatea, lan-merkatuaren erreforma eta zerga-finkapena.

Espainia eurogunean (1999-2020): susperraldi ekonomikoa, 2014-2020

- Kanpoko faktoreak: Europako Banku Zentralaren diru-politika hedakorra eta petrolioaren prezio merkeak.
- Barne-faktoreak: barne-debaluazioa (soldadak eta lan-kostuak). Produktibitatea handitzea eta lehiakortasuna handitzea (esportazioak eta munduko merkatuan integrazioa). Superabita ordainketa-balantza.